# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2012-01-27
EGUBAKOITZA
494. ZENBAKIA
12. URTEA
DOANEKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM




GOIENA

## Loquillo gaur Arrasaten, Amaian

'Su nombre era el de todas las mujeres' azken lana aurkeztuko du, 21:00etan | 32

'Euskeraren espektakulua' esketx sorta Aretxabaletan | 22



Lanbidek lau orientazio zentro kolaboratzaile ditu bailarako beste horrenbeste herritan | 2



Zaporeen azoka egingo dute Bergaran domekara arte | 16




Aiert Zubigarai, Ruben Montero, Jon Leibar eta Garikoitz Garitano, ekimenean parte hartu duten lau marrazkilari, fantzinearen lehen zenbakia erakusten. | MONIKA BELASTEGI

# 'Zapla' fantzine berria sortu du Debagoieneko komikilari talde batek

Lehenengo zenbakia urtarrilean kaleratu dute eta orain bigarren zenbakia prestatzen dihardute, Aste Santurako. Euretako batek egindako deialdiari erantzunez, bailarako 13 marrazkilari batu dira abentura berri horretan, eta ateak zabaldik dituzte. Ibarreko tabernetan eskura daiteke lehenengo zenbaki hori. | 33

## SINADURAK



Lanean lagunak egiteaz | 6
IÑAKI PEÑA



6 | Zero zabor
INAZIO ARREGI



Zenbat gara? | 18
MAIALEN MADARIAGA



40 | 36ko gudarien omenez
AINTZANE OIARBIDE


ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6
ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 28
KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35
TELEBISTA-IRRATIA 36
ESKELAK 37 | NON-ZER 38




## Sinadura batzea zaintza partekatuaren alde Bergaran | 4

## "Indarkeria deslegitimatu egin dugu, eta biktimekiko jarrera eraba ezberdina da"



Fabian Laespada | Bakearen Aldeko Koordinakundeko bozeramailea | 8





Udalaitz
ŠKODA
Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



Agurtzane Arregi (ezkerrean), Arrasateko BAZeko bulegoan. | LEIRE KORTABARRIA



Joxema Bergaretxe eta Koldo Azkoitia, Garapen Agentziako Enplegu Zentroan. | L.KORTABARRIA

# Orientatzaileak, lan bila dabilenari zerbitzu on eta doakoa emateko

- Arrasaten, Bergaran eta Aretxabaletan daude
- Lanbiderekin kolaboratzen dute
- Hainbat enpresak eurengana jotzen du langile bila

**LEIRE KORTABARRIA** | ARRASATE

Lanbide erakunde berria da oraindik; bestalde, betidanik INEM deitu izan diogun erakundea Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa (SEPE) da. Debagoienean, bien egoitza nagusia leku berean dago: Arrasaten, ospitale parean.

Aspaldikoak dira ere enplegu zerbitzu publikoarekiko kolaborazioak Debagoieneko zenbait udal eta erakunderen aldetik. Debagoienean, Arrasateko Udalak, Bergarako Udalak, Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Agentziak eta Aretxabaletako Lanbide Heziketa Institutuak dute elkarlan hitzarmena Lanbiderekin. Horren ondorioz, lau toki horietan dago Lanbideren Enplegu Orientazio Zerbitzu bana. Zerbitzua doakoa da, denoi irekita dago –lanik gabe daudenei eta baita euren lan-egoera hobetu nahi dutenei ere- eta kalitatezkoa da. Zerbitzu horietako batzuk beste batzuk baino ezagunagoak dira, baina denek egiten dute lan helburu berberarekin: lan bila dabilenari laguntzea. Horretarako, bila dabiltzanekin zein lana eskaintzen duten enpresekin harremanetan egoten dira.

Hauek dira bailarako orientatzaileak: Agurtzane Arregi, BAZen; Marije Unamuno, Bergarako udaletxean; Joxema Bergaretxe, Mankomunitateko Garapen Agentzian; eta Nuria Davila, Aretxabaletako Lanbide Heziketa Institutuan.

**Helburuak finkatu behar dira**

Arrasateko Udala betidanik izan da Lanbideren zentro kolaboratzailea. Agurtzane Arregi lanerako orientatzailea BAZen egoten da astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 13:00etara. Berarekin egoteko, hara joatea besterik ez dago. Berak laburtzen digu han eta Lanbiderekin kolaboratzen duten beste orientazio zentroetan eskaintzen dutena: "Bitartekaritza zerbitzua ematen dugu. Horretarako, lan-poltsa daukagu, lan-eskatzailea eta enpresa kontaktuan ipintzeko. Lana topatu gura duenak lan-poltsan izena emanda egon beharko luke".

Hori egin eta gero, "elkarrizketa okupazionala dator: lan bila dabilenak zer eskaintzen dion lan-merkatuari; ze helburu dituen..." Eta ohar bat ematen du: "Lana bilatzea ibilbide bat da, eta helburu jakin batzuk izan behar ditu. Orientazio zentrook ibilbide hori ahalik eta eraginkorrena izan dadin laguntzen diogu. Askok esaten dute edozein lan egiteko gertu daudela, baina hori ez da horrela: bakoitzak baldintza, disponibilitate, eremu, ezagutza... batzuk ditu".

**Hainbat tresna, eskura**

Norbere helburuak zehaztu eta gero, orientazio fasea dator, bakarka eta taldeka.

Orientatzailearekin aurrez aurre egoteaz gain, zentro kolaboratzaile guztietan zenbait tresna daude: argitalpenak, lan-eskaintzak, egunkariak, formazioaren gaineko informazioa...

Azkenik, Garapen Agentziaren Enplegu Zentroan, ordenagailuak erabiltzeko aukera dago. Zentro horrek ordutegi zabala du: astelehenetik egubakoitzera, 08:30etik 15:30era, eta martitzen eta eguenetan, arratsaldez ere bai. Hango teknikari Joxema Bergaretxeren esanetan, "orientatzaileak bi motatako laguntza ematen du: Lanbiderekin lotutako informazioa eta orientazioa, batetik; eta orientazio kualitatiboa, bestetik, hau da, bakoitzaren egoera ebaluatzen du".

**Enpresak, erabiltzaile fidelak**

Zerbitzu horren beste hanka enpresak dira. Hainbat enpresa Lanbiderekin harremanetan dago. Arrasateko Udaleko Enplegu teknikari Marga Garmendiak esaten duenez, "doako eta kalitatezko zerbitzua" ematen die enpresei Lanbidek, eta enpresa asko ohikoak dira, edo behin erabili eta gero, gutxienez errepikatu egin dute Lanbiderekin.

Orientatzaileak enpresari ematen dion zerbitzua hau da: bete nahi duen lanpostuaren profila eta baldintzak galdetu, eta lan-poltsan daudenekin konparatu. Gero, beti hautagaien onespenarekin, enpresari hainbat curriculum bidaltzen dizkio.

Garmendiak azpimarratzen duenez, "enpresak askatasun osoa dauka guk proposatutako bateren bat hartzeko edo inor ez hartzeko; bestalde, hautaketa-prozesu osoa enpresak egiten du".

Marga Garmendiak esaten duenez, lan-eskaintza gehienak enpresa txiki eta ertainetatik ailegatzen zaizkie.

Orientatzaileendako, enpresekin harremanetan egotea garrantzitsua da, "enpresen pultsua hartzeko: ze behar dituzten, ze gabezia... hori dena jakiteko".

**Lehenengo aldiz lan bila**

Orientatzaileek egoera berri bat ikusten dute mahaiaren beste aldean: "Hona etortzen den jende asko lehenengo aldiz dabil lana bilatzen, eta ez daki zelan egiten den hori. Horregatik, galduta sentitzen dira. Horrek ez du esan nahi gaitasunak ez dituztenik, baizik eta inoiz ez dutela lana

**DATUA**

**586**

LAGUN

Bergarako zerbitzuak 2009an atenditu zituenak; 2008an 452 izan ziren.

**ESANAK**

**"Arreta pertsonalizatua ematen diogu bakoitzari"**

**AGURTZANE ARREGI**
ORIENTATZAILEA

## Diru-laguntzen gaineko guztiak

Diru-sarreren Bermerako Errenta (DBE; espainolezko RGI siglez ere ezaguna) Lanbidek kudeatzen du orain. Etxebizitzaren Prestazio Osagarria ere berak hartu du. Informazioa ematen dabil onuradunei eta eskatu nahi dutenei, eta egunero 2.000 kontsulta erantzuten ditu.

DBEz zalantzak argitzeko, telefono hauetara deitu: 901 22 29 01 / 945 16 06 00.

## Ordenagailuak erabilgarri

Mankomunitateko Garapen Agentziaren eskutik, hainbat instalazio erabiltzeko aukera dute langabeek. Arrasaten Mankomunitateak duen eraikinean daude.

Internetera konektatutako ordenagailuak erabil daitezke, doan; beste gela baten, lan-eskaintzen eta, oro har, enpleguaren gaineko argitalpenak topatuko ditu.



## Ze zerbitzu jasoko dut?

**BAI**

- Orientazioa.
- Laneratzeko ibilbide pertsonala diseinatzeko laguntza.
- Norbere lan postua sortzeko laguntza.
- Lan-eskaintzen gaineko informazio eguneratua.
- Lanbideko eskaera prestatu eta mantendu.
- Lanbideko lan-eskaintzetan izena emateko laguntza.
- Ikastaroak antolatu eta kudeatzeko laguntza.

**EZ**

- Lan-eskaintzak kudeatzea; hori norberaren ardura da.
- Lanbideko tramiteen ziurtagiriak.
- Udalak sortzen dituen lanpostuak kudeatzea; udal bakoitzeko Pertsonal sailak kudeatzen ditu.



Bergarako udaletxean ere Enplegu Orientazio zerbitzua dago. | EDU MENDIBIL



Nuria Davila, Aretxabaletako Lanbide Heziketan. | LEIRE KORTABARRIA

bilatu beharra izan". Eta, 2006 edo 2007 arte, orientazio zerbitzua eskatzen zuten gehienak "atzerritarrak ziren; orain, kanpokoak zein bertakoak etortzen dira, adin guztietakoak, eta, asko, garai baten langabezian egotea pentsa ezinekoak zirenak: goi mailako Lanbide Heziketa tituludunak, eraikuntza-ofizialak..."

**Europako eskaintzak ere bai**

Interneten, besteak beste, *www.lanbide.net* ataria dago. Horri zelan probetxua atera ere azaltzen dute orientatzaileek.

Lanbideko ordezkariek hauxe diote: "Lanbide.net lan-eskatzaile eta lan-eskaintzaileendako gure leiho nagusia da. Hainbat tramite egiteko aukeraz gain, laster, Eures sarearen gaineko saila irekiko dugu. Europako 31 herrialdeko lan-eskaintzak batzen ditu horrek. Bestetik, Herbehereetako fundazio handi batekin hitzarmena lotzen gabiltza. Fundazio horrek ehun bat enpresa batzen ditu. Asmoa da Lanbide gure lan-eskatzaileen eta enpresa horien arteko bitartekaria izatea; guk profesionalak ematea eurei, eta eurek, lanpostuaz gain, hizkuntza ikastaroak ordaintzea langileoi".

Internazionalizazioa sustatzeko, Lanbidek hizkuntza eta IKT formazioa ere ematen du, ziurtagiri bakoa, ohiko formazio akreditagarriaz gain. Lanbideko ordezkariek diotenez, "iaz bezala, aurten 25.000 langabe baino gehiagok jasoko dute Lanbideren formazio zuzena, eta, Hobetuz bidez, beste 40.000 lagunek. Azken horietatik %20 eta %40 artean langabeak dira".

## Langabeendako bi ikastaro, laster

Sarbidea programaren bidez, bi ikastaro emango dira Mankomunitatean. Aldundiak hautatuko ditu parte-hartzaileak, izenemate-hurrenkeraz. Hauendako dira: lanik gabe dauden emakumeak; luzaroan langabe daudenak; gazteak eta 40 urtetik gorakoak; minusbaliatuak; eta bazterketa-arriskuan daudenak.

**KLINIKAKO ZAINKETAK ETA LAGUNTZAK (200 ORDU)**

**Egunak:** Otsailaren 16tik ekainaren 15era arte. Saio teorikoak eta praktikoak dira.

**Ordutegia:** 09:00etatik 13:30era bitartean.

**SISTEMA FOTOBOLTAIKOAK ETA EOLIKOAK (95 ORDU)**

**Egunak:** Otsailaren 23tik maiatzaren 4ra arte. Saio teorikoak eta praktikoak izango dira.

**Ordutegia:** 08:30etik 14:00etara bitartean.

DEBAGOIENEKO EUSKAL ESKOLA PUBLIK*A

HAUR HEZKUNTZA, LEHEN HEZKUNTZA, DBH eta EPA

| IKASTETXEAK | INFORMAZIO BILERAK |
| --- | --- |
| Aramaio San Martin Eskola | Urtarrilaren 31an 17:30ean |
| Aretxabaleta Kurtzebarri Eskola | Urtarrilaren 25ean 18:00etan EUS / 19:00 GAZT |
| Kurtzebarri BHI | Urtarrilaren 30ean 18:00etan EUS / 19:00 GAZT |
| Antzuola Herri Eskola | |
| Arrasate Arrasate Herri Eskola | Bedoñabe Urtarrilaren 30ean eta Musakola Otsailaren 1ean 18:00etan EUS / 19:00 GAZT |
| Arrasate Institutua | Arrasate Otsailaren 1ean 18:00etan<br>Aramaio Otsailaren 2an 18:00etan |
| EPA Arrasate HHE | |
| Bergara San Martin Agirre Eskola | Urtarrilaren 31an 18:00etan<br>Ate irekiak Urtarrilaren 28an 16:30ean |
| Ipintza Institutua | Otsailaren 7an 18:30ean |
| EPA Bergara HHE | |
| Elgeta Herri Eskola | |
| Eskoriaza/Gatzaga Luis Ezeiza Eskola | Urtarrilaren 30ean 18:00etan |
| Oñati Errekalde Herri Eskola | Urtarrilaren 28an 17:00etan |
| Zuazola Larraña Institutua | Urtarrilaren 31an 18:30ean |

goieskola
www.goieskola.net

baikara
Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa

matrikulazio epea zabalik urtarrilaren 30etik otsailaren 10era

etorri eta zuk zeuk ikusi



Guztion eskola guztion artean

# Sinadura-batzea bihar, zaintza partekatuaren alde

## Bergaran egingo dute, eta Arrasaten datorren astean

**MONIKA BELASTEGI** | ARRASATE

Agipasek, banatutako aita eta amen Gipuzkoako elkarteak, sinadurak batzeko mahaia jarriko du bihar, zapatua Bergaran. Zainketa partekatuaren alde dihardu sinadurak batzen elkarteak eta datorren zapatuan, otsailaren 4an, Arrasaten ere jarriko dute.

Gipuzkoako Agipaserekin batera, Arabako Amapase eta Bizkaiko Abipasek zainketa partekatua Gasteizeko Legebiltzarrean eztabaidatu eta onartua izan dadin dihardute sinadurak batzen. Horretarako baleko 30.000 sinadura aurkeztu behar dituzte Legebiltzarrean. Dagoeneko 32.000 batu dituzte, eta Agipaseko kide Justo Saenzek azaldutakoaren arabera, "helburua 45.000 lortzea da".

**Jendea ados dago**

Saenzek esan duenez, herritarrek "harrera ona" egin diote ekimenari eta "interesa" erakusten dutela ere aurreratu du: "Askotan, kalean esku-orria ematen dizutenean zakarrontzira botatzen duzu, baina gure kasuan ez. Jendeak irakurri egiten du, galderak egiten dituzte eta gero sinadura eman". Bestalde, zainketa partekatuaren aldeko jarrera dagoela ere azpimarratu du: "Jendea erabat ados dago zainketa partekatuarekin, beharrezkoa dela uste du eta berez egon beharko litzatekeela hala ezarrita".

**Bergaran eta Arrasaten**

Irala kalean jarriko dute bihar, Bergaran mahaia, 11:00etatik 14:00etara eta sinadurak batzearekin batera, esku-orriak ere banatuko dituzte; baita interesa dutenen galderei erantzun ere.

Batutako sinadurak Legebiltzarrean aurkezteko azken eguna martxoaren 6a da.

> **DATUA**
>
> **45.000**
>
> SINADURA
>
> Baleko 30.000 sinadura aurkeztu behar dira Legebiltzarrean gaia eztabaidatzeko. Elkarteak 45.000 batu nahi ditu.

# Fagor Arrasatek Volkswageni saldu dio prentsa robotizatua

**AMAIA TXINTXURRETA** | ARRASATE

Bernabe Unda Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo sailburuak Fagor Arrasateko instalazioak bisitatu zituen eguaztenean, kooperatibak antolatutako ate irekien astearen barruan.

Undak bertatik bertara ezagutu ahal izan du Wave Line deritzon autoen piezak fabrikatzeko prentsa robotizatu berria. Produkzioan %40ko igoera ahalbidetzen du prentsa robotizatuak eta kontzeptu iraultzaile horren garapena robotak egiten espezialista den Alemaniako KUKA enpresarekin elkarlanean egin du Fagorrek.

Prentsa robotizatu horrek hainbat abantaila eskaintzen ditu; izan ere, piezak robot bitartez transferitzen dira eta linearen amaieran pieza guztiz bukatua lortzen da. Wave Line sistema berriak, gainera, abiadura handian egiten du lan gelditu gabe; hortik, produkzioa %40 igotzea.

Prentsa robotizatua probafasean dago orain Fagor Arrasaten, eta aste hau igaro ostean, Hegoafrikara bidaliko dute Volkswagen taldeak han duen lantegi batera.



Unda Industria sailburua eguaztean Fagor Arrasaten. | AMAIA TXINTXURRETA

Fagor Arrasatek 24 milioi eurorengatik saldu dio prentsa robotizatua Volkswageni eta datozen bi urteetarako enpresan egiten duten aurreikuspena ona da; espero dute lana igotzea, eta ondorioz, baita salmenta zifrak ere.

Ate irekien astearen barruan ia 100 espezialista eta zuzendariren bisita jasoko dute.





SAN LORENTZO AUZOA
B E R G A R A



Logela **bateko** etxebizitza
**139.000**€-tik aurrera
23.127.654 pta

**Bi** logelako etxebizitza
**168.000**€-tik aurrera
27.952.848 pta

**Hiru** logelako etxebizitza
**216.000**€-tik aurrera
35.939.376 pta

• 1, 2, 3 eta 4 logela, sukaldea barne.
• Garaje eta trastelekuak

Lehen BEZa %8
Orain Etxebizitza berrian BEZ-a %4

Etxebizitze bukaera 2012

Eraikitzailea INGESLAN CONSTRUCCIONES
Sustatzailea GRUPO Ormak

Argibidea eta Salmenta
943 424 430
www.ormak.es


### Elgetako frontea ezagutzeko bisita gidatua domekan

Elgetako frontea gertutik ezagutzeko bisita gidatua egongo da domekan, hilaren 29an. Gerra zibila Euskal Herrian oinarri hartuta, ibilbide horretan Elgetako Intxorta mendiaren magalean izandako frontearen hainbat xehetasun ezagutzeko aukera egongo da. Parte hartzeko ezinbestekoa da izena ematea 943 71 89 11 zenbakian edo *turismo@debagoiena.net* helbidean. 0-6 urte artekoendako doan da bisita; 7-16 artekoek 2 euro ordainduko dute eta nagusiek, 5.

### Enpresaritza kudeaketa eta finantza ikastaro aurreratuak Oñatin

Mondragon Unibertsitateak antolatu ditu. Enpresaritza kudeaketarena hilaren 31n hasiko da, eta ekainaren 28an bukatu. Finantza ikastaro aurreratua hilaren 30ean hasiko da, eta ekainaren 27an bukatu. Izena emateko deitu 943 71 80 09 zenbakira (Mireia Igarzabal, 233 luzapena) edo idatzi *migarzabal@mondragon.edu* helbidera.

Langabeek %20ko deskontua izango dute eta lanean daudenek ere deskontua izan dezakete.

### Berradiskidetzarako 2. agiria kaleratuko du Baketikek 31n

2011ko urtarrilean Baketik-ek *Berradiskidetzerako Indargunea*k ekimena jarri zuen abian. Urtero, urtarrilean, bizikidetzaren berradiskidetzeari buruzko agiria aurkeztea da ekimenaren xedea. Bigarren agiria urtarrilaren 31n emango da ezagutzera, eguerdiko hamabietan. Ordu horretan, *www.baketik.info* webgunean eta blogean eta bideo bidezko post batenbidez bigarren *Indargunea* aurkeztuko dute. Agiriak berradiskidetzerako proposamen zehatzak jasotzen ditu.

### Bizikasik antolatutako ikastaroetan oraindik lekua dago

*Urradura, elektro higadura eta prozedura berezien bidezko piezen fabrikaziorako CNCN programen sortzea (sarpen bidez/hari bidez)* delako ikastaroan oraindik ere izena eman daitekeela aurreratu dute Bizikasitik (943 76 70 49). Astelehenean hasiko da eta martxoaren 29an bukatuko da. Eskolak astelehenetik eguenera izango dira, 18:00etatik 20:30era, Bergarako Miguel Altuna institutuan. Langile zein langabetuei zuzenduta dago eta %100 Hobetuzek finantzatuta.

# Kukutzaren espirituak Oñati "okupatuko du" datorren astean

## Kukutza astea egingo dute astelehenetik zapatura, askotariko ekitaldiekin

**I.G./M.B.** | OÑATI

Kulturari eskainitako hilabetea izango da otsaila Oñatin, eta horren barruan Kukutza astea antolatu du Udalak: astelehenean hasi, hilaren 30ean, eta datorren zapatura arte.

"Kukutzak astebetez Oñati okupatuko du", esan zuen Manu Egaña Kultura batzordeburuak eguaztenean egindako prentsaurrekoan: "Kukutzan egiten ziren ekintza guztiak eta haren espiritua Oñatira ekarriko ditugu, oñatiarrek eta kanpotik datozenek bizi eta ezagut dezaten", azpimarratu zuen Egañak.

Gaztetxe horretan zegoen kultura eredua gustatzen zaielako erabaki du Oñatiko Udalak Kukutza Astea antolatzea: "Jendeak aktiboki bere parte-hartzeaz sortutako eta kudeatutako eredua" izatea; "mota askotako kulturak batzea"; eta "adin guztietako jendeari bideratutako ekintzak antolatzea", besteak beste. Hala, Oñatirako sortu duten egitaraua eredu hori jarraituta egin dute.

### Manifestaziorako autobusa

Okupazio Eguna izenpean bihar, zapatua, Bilbon egingo den manifestaziorako autobusa antolatu du Bergarako gaztetxeak. Izena gaztetxean bertan eman behar da, edo *bergarakogaztetxia@gmail.com* helbidera idatzi. Autobusa 16:00etan abiatuko da autobus geltokitik. Kukutza IIIren eta azken urteetan itxi dituzten beste hainbat gaztetxeren itxiera salatuko dute.




Kukutza asteko antolatzaileetako batzuk. | IRATI GOITIA

**EGITARAUA**

**URTARRILAK 30**

**19:00** *Kukutza gaztetxea* liburuaren aurkezpena, kultura etxean.

**URTARRILAK 31**

**19:00** Autokudeaketari buruzko hitzaldia gaztelekuan.

**19:00** Dantza egiptoarren ikastaroa Errekalde ikastetxean.

**OTSAILAK 1**

**19:00** Autokudeaketari buruzko tailerrak gaztelekuan.

**OTSAILAK 2**

**18:30** Zirku tailerra gaztelekuan.

**20:00** Zinekluba: *Bavmsky, Exit Through, The Gift Shop*. Kultura etxean.

**OTSAILAK 3**

**18:00** Gaztelekuko bertso paper lehiaketa.

**18:30** *Monstruoak* antzezlana institutuan.

**22:00** Poesia errezitaldia eta te dastatzea Arrano tabernan.

**OTSAILAK 4**

**11:00** Rokodromoa, zirku tailerrak eta grafitiak plazan.

**14:00** Bazkaria kiroldegian.

**18:30** Zirku emanaldia plazan (euria bada, Santa Anan).

**22:00** Kontzertuak gaztelekuan.

# Atxilotuta, Bergaran, zaharren etxean lapurtzeagatik

**M.B.** | BERGARA

Ertzaintzak 27 urteko gizonezko bat atxilotu zuen eguazten gauean Bergaran, hango zaharren etxean eta auto batean lapurretan egitea egotzita.

Herrizaingo Sailak aditzera eman duenez, herritar batek ohartarazi zien ertzainei eguaztenean, 22:30 inguruan, gizonezko bat lapurtzen egon zitekeela Bergarako zaharren etxean, Boni Laskurain kalean. Ertzainak, abisua jaso eta hara gerturatu zirenean, gizonezkoa ihes egiten saiatu zen, baina berehala harrapatu zuten.

### Mailu batekin kristala apurtu

Dirudienez, gizonezko susmagarriak mailu bat erabili zuen kristala apurtu eta zaharren etxera sartzeko. Atxilotuak txanponak eta banku bateko segurtasun giltza zeramatzan. Horretaz gain, Kenwood markako irrati-kasete baten karatula ere antzeman zioten.

Ertzainek ziurtatu ahal izan zuten Aitziturri kalean zegoen Fiat Bravo auto batetik ostutakoa zela irrati-kaseteko karatula, autoari leihotxoa apurtuta lapurtu zuena.

# Hautetsiek hondakinei buruzko prestakuntza saioak jasoko dituzte

## Lehena jaso dute, besteak beste, Antzuolan atez atekoa ezartzeko egindako urratsez

**M.B.** | ARRASATE

Debagoieneko Mankomunitateak hondakinen gaineko formazio saioak antolatu ditu bailarako hautetsiendako eta Zero Zabor taldeetako kideendako.

Hiru saio aurreikusi dituzte eta lehenengoa aurreko zapatuan egin zuten, Antzuolako Torresoroan. Saioan, formazio teorikoa jaso zuten han batutako Bildu, EAJ eta Aralarko hautetsiek, eta baita bailaran dauden Zero Zabor taldeetako kideek ere. Guztira, 60 bat lagun batu ziren.

Alde batetik, gaur egun hondakinekin dagoen arazoaz jardun zuen Garbitania enpresako ordezkari batek. Garbitania, hondakinak gaika bildu eta kudeatzeko baliabideak ahalik eta gehien optimizatuz, udalerriei eta mankomunitateei zerbitzua eskaintzen dien entitate publikoa da, Hernani, Usurbil eta Oiartzungo udalek bultzatutakoa. Gaur egun, Hernani eta Usurbilgo atez atezkoaz arduratzen da.

Beste alde batetik, Antzuolan atez atekoa ezartzeko egindako urratsen berri ere jaso zuten. Azalpenak Pedro Iturbek –aurreko agintaldian Antzuolako alkate izandakoa– eta Markel Azkargortak –Antzuolako Udaleko teknikaria– eman zituzten.

### Saio praktikoagoak ere bai

Bigarren eta hirugarren saioak praktikoagoak izango dira, Mankomunitateko ordezkariek azaldu dutenez. Bigarrenean, atez atekoa ezarrita dagoen herrietara bisita egingo dute, bilketa eta azpiegituren antolaketa bertatik bertara ezagutzeko. Hirugarrenean, berriz, hondakin kudeaketa plantak ezagutzeko bisitak egingo dituzte.

# Futurama: ikasleen sormena eta negozio ideia berriak sortzeko gunea

**M.B.** | ARRASATE

Kimu Berri erakundeak Futurama ekitaldia antolatu du otsailaren 13rako. Futurama egun osoko ekintza bat da, –09:30etik 17:30era– eta helburua da Mondragon Unibertsitateko ikasleen arteko elkarlana, sormena eta negozio ideia berrien garapena sustatzea.

Garaia gunean izango da eta gradu eta maila askotariko 200 ikasle inguru batuko dira helburu zehatz batekin: kirolaren etorkizuna euren gustura eraikitzea. Aldi berean, ideia horiek presente egongo diren arlo horretako hainbat enpresarentzat baliagarri izango dira negozio berriak merkaturatzeko orduan.

Ekitaldia modu dibertigarri eta berritzailean egingo dute eta aukera paregabea izango da gauza berriak ikasteko, jende berria ezagutzeko eta taldean erronka errealei aurre egiteko, etorkizuneko motor bilakatzeko helburuarekin.

### Gazteen ekintzailetasuna

Kimu Berri gazteen artean ekintzailetasuna sustatzeko programa bat da, eta, horretarako, gaur egun gazteria mugitzen duten gai eta teknologiak lantzen ditu; kirola eta aisialdia, esaterako. Ekimen hori elkarlan publiko-pribatuan oinarrituta dago eta osatzen duten agenteek Debagoienaren garapen estrategiarekiko konpromezua erakutsi dute.

Honako agenteek osatzen dute Kimu Berri programa: Debagoieneko Mankomunitateak, Mondragon Taldeko Ingeniaritza eta Zerbitzu arloetako enpresa eta garapen teknologikoen guneak, Mondragon Goi Eskola Politektikoak eta Enpresagintzak, Athlon S. Koop-ek eta Saiolan enpresa eta berrikuntza zentroak.

mu (+)
MONDRAGON UNIBERTSITATEA
professional learning space

ENPRESA KUDEAKETAN IKASTARO AURRERATUA
Hasiera: Urtarrilaren 31.
Tokia: Enpresagintza Fakultatea, Oñati.
www.mondragon.edu/muplus/cage

MARKETING IKASTARO AURRERATUA
Hasiera: Otsailak 3.
Tokia: Gipuzkoako Bazkundea, Donostia.
www.mondragon.edu/muplus/cam

FINANTZA IKASTARO AURRERATUA
Hasiera: Urtarrilaren 30.
Tokia: Enpresagintza Fakultatea, Oñati.
www.mondragon.edu/muplus/caf

Fundación Tripartita bitartez bonifikatzeko aukera. / Langabezi egoeran daudenei, %20ko deskontua.

## ZABALIK



**IÑAKI PEÑA**
http://goiena.net/iritzia/

# Lanean lagunak egiteaz

Txikitan gurasoek Oñati ezagutzera ekarri gintuzten, horren lekuko zuri-baltzezko argazki batean agertzen gara behintzat hiru anai-arrebok 3-6 urtegaz lokomotora baltz zaharraren ondoan. Baina ordutik urte larregi pasa behar izan ziran ingurune hauetatik barriz be igarotzeko, Madrildik gentozan hiru lagun Zarautzerako bidean, Leintz Gatzaga eta Bergarako bariante egin barritik hegoaldetik iparralderuntz.

Are urte gehiago jun ziran itzuli arte, Aramaixoko landetxea, Aizkorri mendia eta Ruperren kontzertua Santa Anan. "Pozik lan egingo nuke holako ingurune euskaldun batean". Esan eta izan. Halako egun batez CVa ekarri eta Udalatxera igo, gurasoekin batera. "Holako ingurune euskaldun horrek" Debagoiena izena eukan, hizkera eta jente berezi eta mendi bazter zoragarriak.

> **"Debagoiena: hizkera eta jente berezi eta mendi bazter zoragarriak"**

Hamar urte geroago "lanera lagunak egitera ez gatozela" esan eustan buruzagiak. Baina oker eta alperrik zebilen. Ordurako lagunak ez ezik emaztea eta seme-alaben ama be banituan eginda, bai eta harribitxiren bat edo beste topau be. Baina are okerragoa dana, lankideen artean ez ezik "bezeroen" (berba itsusiagorik!) artean be harreman politak egin ditut. Parkaezina, pekatu mortala!

Araotz, Mendiola, Apotzaga, Goroeta, Bedoña, Udala, Etxaguen, Barajuen, Elgeta, Angiozar, Degurixa, Alabitta, Aloña, Duru, Gorla... eta Arantzazu, jakina. Eta Arantzazuko XX. Osasun Jardunaldiak, ekimen guztien ganetik. Eta OEEko batzar nazionalak. Eta Goienako blog komunitatea, "Osasun Tartea" eta "Zabalik". Eta AEDko 25. urteurrena. Eta Zelai-Zabalgo bazkariak eta Arteagakoak...

Izen-abizenekin ez naz hasiko, espazio faltagaitik, baina oso posiblea da zeure izena eta abizenak bihotzean gordeko dodan zerrenda horretan egotea. Banoia, baina tarteka itzuliko naz. Osasuna!

## USTEAK USTE

**INAZIO ARREGI** | zuzen@goiena.com

# Zero zabor

Ezertan hasi aurretik esan behar dut ez dudala gustuko atez ateko bilketa sistema. Bai zero zabor filosofia. Beti birziklatu dut, eta nire ustez berdin birzikla dezaket atez ateko bilketa sistemarekin edota bosgarren edukiontziarekin. Eta egiten dut. Atez atekoa ezarri behar omen zaigu. Proposamen bat egiten dut: herritar bakoitzak administrazioarekin borondatezko hitzarmen bat izenpe dezala, birziklatzeko jarrera onartuaz, administrazioari egiaztatzeko baimena emanaz, eta zaborra bost edukiontzietan banatzeko konpromisoa hartuaz. Izenpetzen ez duenari aplikatu atez atekoa edo nahi dena. Atxikimendu gehiago lortuko lituzke zero zabor filosofiak.

## MARRAZKIZ

**UNAI BUSTURIA** | http://goiena.net/iritzia/



## HANDIK ETA HEMENDIK

# Igande bat ziklismoaren infernuan

**Jon Torner**
http://argia.com/erredakzio-mahaia/

*En Forårsdag i Helvede.* Igande bat infernuan.

Izenburu hori du Jorgen Leth daniarrak 1976an filmatutako dokumentalak.

Askorentzat txirrindularitzari buruz sekula egin den filmarik onena da, eta urte hartako Paris-Roubaix klasiko handiaren ingurukoak biltzen ditu, ziklista, antolatzaile eta ikusleen ahotik.

Iparraldeko infernua ere deitzen zaio galtzadarrizko zati, lokatz, matxura eta erorketek markatutako lasterketa horri, eta handik datorkio izena dokumentalari.

YouTuben osorik ikus daiteke, jatorrizko bertsioan (narratzailea ingelesez mintzo da). [Bideoa agertzen da sarean]

Marc Demeyer belgikarrak irabazi zuen Paris-Roubaix klasikoa 1976an, Francesco Moser italiarraren eta Roger de Vlaeminck herrikidearen aurretik.

Eddy Merckx handia 6. iritsi zen helmugara.

Txirrindularitza denboraldia –profesionalena zein zikloturista goiztiar batzuena– hasi berri dela baliatuz ekarri dugu dokumentala hona, gomendio moduan, inork asteburuan ikusi nahiko balu.

Interneten badira ziklismoari buruzko dokumental eta erreportaje gehiago, baina ez dute horrenbesteko xarmarik.

Ez behintzat guk ikusi ditugunak.

Horietako bat da *Road to Paris,* Parisera bidean.

Nike multinazionalak egin zuen 2001ean, Frantziako Tourra zazpi bider irabazi zuen Lance Armstrong estatubatuarraren gorazarrerako.

Artean bi Tour irabazia zen US postal taldean korritzen zuen amerikanoa.

Dokumental hori ere YouTuben dago ikusgai, jatorrizko bertsioan (ingelesez). [Bideoa agertzen da sarean]

Iaz, bestalde, *The road uphill* (Goranzko errepidea) zuzendu zuen Jean-Louis Schuller-ek, Frantziako Tourra hasi baino lehen.

Luxenburgoko Frank eta Andy Schleck anaiek eta euren talde Leopard Trek-ek lasterketa hura nola prestatu zuten jasotzen du.

Sarean trailerra besterik ezin daiteke aurkitu.

Baina anaia horiez hitz egiten gabiltzala, kuriosoa da trailer horri segika topatu dugun beste erreportaje hau. Euren arrantza-egun bat kontatzen du. [Bideoa agertzen da sarean]

Bizikletaren espazioa hirian.

Ziklismo profesionala alde batera utziko dugu orain.

Bizikletaren erabilera altruistagoa hizpide duten hainbat webgunetan makina bat erreferentzia topatu dugu Ted White estatubatuarraren *We are traffic* (Trafikoa gara) dokumentalaz.

Txirrinduaren erabilera bultzatu asmoz 1992an sortutako Masa Kritikoa mugimenduaz mintzo da dokumentala, AEBetako San Francisco hiria abiapuntutzat hartuta.

YouTuben osorik ikus daiteke, bideo bakarrean ingelesez, eta zatika gaztelaniazko azpidatziekin. [Bideoa agertzen da sarean]

goiena" KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea E05 Basabe Poligonoa, 20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola
**Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza.
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA**
**ARRASATE 20500**: Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

**ORDEZKARITZA**
**ARETXABALETA 20550**: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 20.100 ale.
**Difusioa:** 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

# GUTUNAK

**Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne) edo 50 lerro. GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko.**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak dira: Otalora Lizentziaduna, 20500 Arrasate | papera@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

## Hogei urte

**Anjel Bergaretxe**
(Kepa Urraren laguna)
Aretxabaleta

Hogei urte. Horixe da Kepa Urrak kartzelan daraman denbora. Egunotan beteko dira.

Eta gauzak aldatzen ari diren sasoi honetan, aro berriak datozela dirudien honetan, batzuek historia euren erara berridatzi, eta euren egia egia absolutu eta bakartzat ezarri nahi digutenean, pentsatu dut aukera ona izan daitekeela beste egia batzuk ere erakusteko. Beste sufrimendu batzuk ere egon, egon direla eta oraindik ere badaudela aldarrikatzeko. Ezkutatu nahi dizkiguten beste eskubide urraketa batzuk ere izan direla esateko.

Kepa hartuko dut urraketa horietako batzuen adibide. Izan ere, 20 urte hauek, Langraitzen pasatako lauzpabost hilabete izan ezik, etxetik urruti pasatu ditu, sakabanaketa politikaren ondorioz. Puerto, Curtis, Alcala, Valdemoro, Almeria… Espainiar geografia ezagutzeko aukera ederra izan du. Bueno, berak baino gehiago senide eta lagunok. Askotan pentsatu izan dut Fraga izendatu ote zuten berriz ere turismo ministro!

Sakabanaketa. Presoak suntsitzeko asmoz asmatutako politika mendekaria. Eta helburu horren atzetik, ez dute zalantzarik izan senideen sufrimendua erabiltzeko. Sufrimendu horren bitartez presoak zigortzeko. Senideak ere zigortuz.

Urte hauetan guztietan, zenbat ordu eta egun, zenbat kilometro, zenbat diru galduak. Zenbat arrisku, mehatxu, umilazio jasan behar. Baina batera, zenbat lagun berri, zenbat elkartasun keinu, zenbat maitasun eta duintasun froga.

Berriz ere gaizki atera zaie jokoa. Garbi utzi dute, berriro be, ez dutela herri hau ezagutzen. Euren helburua ez lortzeaz gain, senide eta lagunen arteko loturak sendotzea lortu dute. Bestela elkar ezagutuko ez genuenon arteko harreman sendo eta beroak sortzea ahalbidetu dute. Maila pertsonalean, ezin ahaztu zendu berri den Blanka Antepara ezagutzeko parada izan nuela. Goian aipatu ditudan balore guztien adibide emakume egina. Beste asko bezala. Gora zu, Blanka, eta muxu bat!

Baina ez da dispertsioa izan Kepak pairatu duen sufrimendu bakarra. Ala ahaztu egin zaizue atxilotu zutenean ankerki torturatua izan zela? Hain ankerki, non atxilotu eta ordu gutxitara ospitalera eraman behar izan baitzuten. Hain begi bistakoak izan ziren torturak, non ohitura guztien kontra ikerketa ere abiatu baitzen. Hain nabariak, ezen lau guardia zibil epaitu eta zigortu baitzituzten.

Baina krudeltasuna ez da ziega ilun zikinetan bakarrik bizi. Moketadun bulegoetan ere tokia aurkitzen du, eta gobernuak laster asko indultatu zituen torturatzaileak. Baita kasuren baten maila-igoeraz saritu ere. Hau ez ote da biktimak umiliatzea? Ala Kepa ez da biktima bat? Izan ere, nola da hau? Batzuek, ETAren helburu izan direlako, aurretik egin dutena egin dutela ere ohore eta pribilegio guztiak merezi dituzte; eta beste batzuek, aldiz, kirtenkeria handienak jasanda ere ez dute ezta biktima izena merezi? Zer da hau? Espainiako erregeak bere Gabonetako berbaldian esandakoaren ("denok gara berdinak justiziarentzat"), aplikazio praktikoa?

Eta orain, Kepaz gogoratzea ere debekatu nahi digute. Bere argazkia erakustea ere galarazi. Baina berriz ere alferrik dabiltza. Ez dugu argazkirik behar maite ditugunak oroitzeko. Ez digute sinestaraziko elkartasuna eta maitasuna delitu izan daitezkeenik. Ez eta eskubideekiko errespetuaren exijentzia.

Eta exijentzia horiekin jarraituko dugu. Besarkada bat, Kepa. Laster arte!

## Eskerrik asko, Eingeinke!

**Marisol Andrade**
(Eskoriatzako Berbalagunen izenean)
Eskoriatza

Zapatu gaua ikaragarri ondo pasatu nuen. Bertso-afaria Apotzagan, elkartea musikaz eta jendez beteta zegoen eta denon artean partekatu genuen arroz beltza. Gozatu nuen hasieratik amaierara, eta hoberena, prezio hau ordainduta: 15 euro zenbateraino heltzen diren!

Baina gura nuke nire olerkia partekatu, han ez nintzen ausartu eta. Hasieran, mikrofonoa soilik ikusita, pentsatu nuen errespetu falta izango zela bertsolariak baino lehenago ateratzea. Bertso saioaren ostean, berriz, borobil-borobila aterata ikusita, ez nuen estropeatu gura.

Orain Goienak ematen dit aukera, eta eskertu egin gura nuke, esker onekoa izatea beti baita zuzena. Nire hitzek diote:

Ez naiz bertsolari, ez naiz musikari. Beraz, ez dut bertsorik, ezta doinurik.

Ez naiz Gandhi, ez naiz hain handi. Baina ene bihotza bada berea bezain garbi. Adieraziko dizuet, egon adi-adi.

Lau kolore dauzka geure ikurrinak, laurak oso sentiberak dira. Azalduko dizuet zeintzuk diren, maitiak, ze barnean gordetzen baita geure herria.

Berdeak geure basoak, berdeak geure zelaiak dira, berdea, eta ez dago zalantza, eduki behar dugun esperantza.

Gorria berotasuna, gorria anaitasuna, gorria geure odola eta holaxe geure historia.

Zuria hasitako bidea, zuria bada bakea, zuria ametseko sarrera, independentziarako, horixe bera.

Eta falta da kolore bat. Zein izango ote den? Ikusezina da. Kualitate bera du izena, "Gardena edo transparentea" izatea. Prisma gisa jokatzen du kolore horrek. Bai naturan, bai banderan. Uretan zein airean, eguzkiaren izpiak hezetasunaz elkartzean, agertzen dena ostarku eder eta polita izaten baita. Horren azpian fijatuz gero, bizi-bizirik topatzen da herri ausart-ausarta.

Euskal Herria du izena. Ikurrina bere bandera. Eta prisma nagusia, herritarren bihotza.

Bihotz-bihotzez, zuendako guztiendako, irakurle maiteok!

## Tobera 'zerketiarren', eskerrik asko, denoi!

**Iraitz Agirre Aranguren**
(Bagara)
Arrasate

Joan den Inuxente Egunean izan zen; Debagoieneko herrietako ehunka lagunek Amaia antzokia bete zenuten bailarako lehen tobera ikustera etorrita.

Inork gutxik zekien ordura arte zer zen tobera bat, eta hala ere, bailarako lehen tobera edo herri antzerki satirikoaren emanaldia arrakastatsua izan zen benetan. Eta zer den tobera? Ba *zerketia* da tobera! Bagaratik eskerrak eman gura dizkizuegu guztioi: Amaiara gerturatu zineten ikusle guztioi, abenduaren 23ko Arrasateko ezohiko plenoan zinegotzi lanetan aritu zineten Arrasateko herri eragileetako ordezkarioi, Goienari eta bere kazetariei toberari egindako jarraipenagatik, antzokian teknikari eta antolatzaile lanetan ibili zinetenoi, lehen bileretan parte hartu eta azken afarira arte lagundu diguzuenoi, Debagoieneko herritarrei bertan esandakoak umorez hartzeagatik, nazio mailako ikuskariei, herri epaimahaia osatu zuten debagoiendarrei eta, nola ez, tobera antzezteko taldean aritu zareten artista guztioi! Aurtengo epaia ezagututa, datozen toberen nondik norakoak pentsatzen hastea dagokigu orain! Zein ote da epaituko den hurrengo herria? Zorionak, benetan, eta eskerrik asko!

## Arduragabekeria nagusi

**Iñaxio Rodriguez**
Arrasate

Gutun honen bidez adierazi nahi dugu aurreko egunetan gertatu den arduragabekeria gertaera bat:

Urtarrilaren 20an, gure senidea lurperatzeko eskaera egin genuen. Behin eskaera han bideratzeko ziurtagiria bete eta behar bezala zigilua eman ondoren, epe zehatz batean ordainketa egin beharrik ez dagoela adierazi ziguten. Gerta zitekeen edozein atzerapen ekiditeko asmoz, hurrengo egunean, urtarrilaren 21ean, hain zuzen ere, ordainketa burutzea erabaki genuen.

BAZen (Biztanleriaren Arreta Zerbitzu bulegoa), lurperatze zerbitzua emango duen arduradun nagusia BAZ bera dela adierazi ziguten.

Urtarrilaren 21ean bertan, 20:00etan, hilkutxa Arrasateko San Kristobal hilerrira iritsi zen; lurperaketa arduraduna ez zen azaltzen eta momentuan beste lurperatzaile baten zerbitzua eskatu zen.

Familiak, aurrez eskaera egin, ziurtagiria bete eta aurrez ordaindutako zerbitzu bat jasotzeko, 45 minutu baino gehiago itxaron behar izan zituen.

Honetaz gain, aipatzekoa da egun euritsua izanik eta hilerriak halako egoeretarako sarrera egoki edo estalirik ez izateak itxarote denbora hori are luzeago eta desatseginago bihurtu zuela.

Ezbehar honek sorturiko kalteak ordaintzerik ez dagoenez, gertatutakoaren azalpena ematea eskatzen diogu BAZi; aldi berean, kexa hau baliagarria izan dadila aurrerantzean zerbitzu garrantzitsu hau eska dezakeen beste herritar batendako, arduragabekeria larri hau gerta ez dakion.

## Burujabetza politiko eta ekonomikoaren alde mobilizatu!

**Ibai Redondo Beitia**
(Bergarako Ezker Abertzalea)
Bergara

Krisi ekonomikoaren mamua gure inguruan hegan ibiltzetik, krisi ekonomikoa gutako asko sufritzen ari garen errealitate izatera pasa da. Bergarar askok lanpostua galdu dute (5 urtetan langabezia bikoiztu egin da) eta langabezian geldítu direnen egoera gero eta okerragoa da; langile gehienek lan baldintzen kaskartzea nabari dute (soldatak murriztu, finkotasuna galdu, lan kargak gehitu); erretiro duina lortzea gero eta zailagoa da… Multinazionalak, banketxeak eta eraikuntza enpresa handiak ongizate estatua suntsitzen ari dira eta klase politikoaren ordezkari nagusiak (PP, PSOE eta EAJ) zein sindikatu estatalistak beraien beharretara makurrarazi dituzte, politika murriztaile guztiak beraien babesarekin edo pasibotasunarekin atera dituztelarik aurrera.

Osasuna, etxebizitza, hezkuntza, erretiroa, laguntza sozialak, lana sustatzeko politikak… Dirua ongizate estatua mantentzean inbertitu beharrean krisia sortu dutenen poltsikoetan sartzen dute. Gure diruarekin banketxeen zorrak ordaintzen ari dira; ezertarako balio ez duten makroproiektuak finantzatzen ari dira (AHT, 10.000 milioi euro) eta berriak egin nahi dituzte (Pasaiako Superportua, Zubietako Errauskailua, Hondarribiko aireportu berria…).

Ekonomia herritarron zerbitzura antolatu behar da eta ez multinazional, banketxe eta eraikuntza enpresen zerbitzura; ongizate estatua mantendu behar da eta ez suntsitu; aurrekontuak ekonomia garatu eta okerren pasatzen ari direnak duintasunez bizitzeko egin behar dira; zerga sistema aldatu behar da, gehien dutenek gehiago ordain dezaten; ingurumena zaindu eta eskubide sozial guztiak bermatu behar dira. Badaukagu zer egina eta egin beharra daukagu. Euskaldunok bitarteko politiko eta ekonomikoak behar ditugu, nahiko nagusiak gara gure burua gobernatzeko, burujabetza politiko eta ekonomikoa behar dugu. Eskoziarrek argi dioten bezala, Estatu independentea behar dugu!

Otsailaren 4an Bilbon eta Donostian aukera bikaina daukagu sindikatu eta herri eragileek antolatu dituzten mobilizazioetan gure haserrea erakusteko. Otsailaren 9an administrazio publikoan antolatu diren mobilizazioekin ere bat egiten dugu. Egunero gure lantoki eta kaleetan gure eskubideak aldarrikatu, borrokatu eta eskuratzera!

**Fabian Laespada** | Bakearen Aldeko Koordinakundeko bozeramailea

# "Indarkeria deslegitimatu egin dugu, eta biktimekiko jarrera erabat ezberdina da egun"

- Bakearen Aldeko Koordinakundeak azken manifestazioa egingo du otsailaren 11n Bilbon
- "Bakea bidea da eta, aurrerantzean, ETA barik, bidea askoz errazagoa izango da"

**ENEKO AZKARATE** | ARRASATE

Otsailaren 11rako iragarri du azkeneko manifestazioa Bakearen Aldeko Koordinakundeak. Koordinakundea desagertzeko bidean ere izan daiteke, behin bakea lortuta, "bakea bidea" izanik, Fabian Laespada Bakearen Aldeko Koordinakundeko bozeramaileak dioen moduan.

**Zuen azkeneko manifestazioa izango dena iragarri duzue...**

Bilbon egingo dugu, otsailaren 11n. Azkena izango da arrazoi bategatik: azkenekotik, hau da, duela urtebete egin genuen hartatik, gauzak aldatu egin direlako eta geuk ere planteamenduak aldatu egin ditugulako. Asmoa da manifestazioarekin batera jendea erakartzea eta helburu batekin bat egin dezala: ETAren erabakiari sendotasuna eman nahian, helburua baino gehiago, bakea bidea dela eta aurrerantzean ETA barik bidea askoz errazagoa izango dela, edozein gatazka delarik ere.

**Zer aldarrikatuko duzue?**

Betiko leloez gain, elkartasuna adierazi nahi diegu urte hauetan guztietan ETAren mehatxua zuzen-zuzenean sufritu dutenei. Era berean, aldarrikatuko dugu kartzela politika aplika dadila legeak esaten duenaren arabera, gaur egun ez delako legeak esaten duena aplikatzen. Espainiako gobernuek ez dute bete, osotasunean, kartzela politika. Euren etxe ondoko kartzeletara hurbildu behar dituzte presoak, eta amaitu behar du sakabanaketak. Azken urteotako tentsio egoera hori amaitu dugu, eta gauza askotaz eztabaidatu behar dugu; tartean, presoen egoeraz.

**"Lortu dugu", diozue. Zeri buruz ari zarete "lortu dugu" diozuenean?**

*Lortu dugu, etorkizuna badago eta geurea da*. Horixe da manifestazioan erabiliko dugun leloa. 1987an egin genuen manifestazioan erabili genuen lelo bera, hain justu ere. 1986an jaio ginen, oso une gogorrean: GALek azkeneko hildakoak eragin zituen; ETAk 60 pertsona hil zituen urte hartan; dena zegoen nahas-mahas... 26 urte geroago, egoera erabat aldatu da, ez dauka zerikusirik. Esan dezakegu lortu dugula, ez geuk, baizik eta euskal jendarte osoak. Indarkeria deslegitimatu egin dugu, biktimekiko jarrera erabat ezberdina da eta euskal gatazkaren inguruan kontuak argitzen doaz. Giro positiboagoan gaude orain. Zorionez, hildako gehiagorik, dirudienez, ez da egongo.



Fabian Laespada, Goienaren egoitzan, Arrasaten, martitzenean. | ENEKO AZKARATE

**Bakearen Aldeko Koordinakundea desagertu egingo da?**

Lanik potoloena erdi egintzat jotzen dugu eta gure eginkizuna ezbaian jartzen dugu. Gure batzarrak erabakiko du, edozelan ere, desagertu edo desegin egingo dugun elkartea edo ez.

**Bakea gertuago ikusten duzu?**

Bakea bidea da eta orain badaukagu bakea. Bakea ez da armarik barik edo mehatxu barik bizi izatea. Mentalitate bat da. Bizimodu bat. Gauzak zelan egin nahi ditugun... Zoritxarrez, urte luzez armatan murgilduta aritu gara euskaldunok. XXI. mendeak bake-mendea izan behar du. Bakearen bidez lortu behar ditugu gauzak. Izango gara guk nahi duguna, baina bakea lagun.

**Eta normalizazio politikoa?**

Gure herri txiki honetan dauden ideologia guztiek ordezkaritza izatea da normalizazioa. Horretan sinesten dut eta uste dut helduko dela. Gaur egun, neurri batean, badago. Ez erabatekoa. Modu kamuflatuan. Izan ere, Aralarkoa ez den beste ezker abertzaleak nahi du normal jardun, eta ezin du. Baina helduko da hori. Ez daukat zalantzarik. Gatazka politikoa? Egon badago, ez daukat zalantzarik. Besteak beste, hainbat alderdi politikok, populazioaren erdiak, uste dute hemen arazo politiko bat dugula Espainiarekiko. Zelako egituraketa juridikoa nahi edo lortu ahal dugun erabaki nahi du. Hori ukatu nahi duenak ez du errealitatea ikusi nahi.

> **"Ea ezker abertzalea hurbiltzen den demokraziara"**

> **"Gaixotasun larriak dituzten presoek etxean beharko lukete"**

**Presoena konpontzea da orain urgentea?**

Bai, baina konponketa itsusia dauka. Legea aplikatu behar da, baina ezker abertzaleak, bere kide diren presoak babestu guran, ez du onartuko indarrean dagoen legea soilik. Duela gutxi Frantzian harrapatutako ETAko kideek ezarritako zigor guztia bete beharko lukete? Zigorraren hiru laurdenak beteta dituzten presoek ez dute zuzenean etxerako bidea hartu behar. Horretarako, baldintza batzuk bete behar dituzte, betiere, nahita isiltzen direnak. Egia da, bestalde, gaixotasun larriak dituztenek etxean beharko luketela.

**Azkeneko gertakariak direla-eta, Lehendakariari leporatu izan zaio ezer egin ez izana...**

Lehendakariak jarri behar du ustezko bake eta normalizazio prozesu baten aurrean, ala prozesua bultzatu dutenek nahi dute lehendakaria erabili? Ez ote da erantzukizunak banatzea! Ezker abertzaleak egin beharreko prozesua da armak goraipatzetik armak errefusatu eta oso gaizki egindako zerbait aitortzea. "Oker genbiltzan, ez zegoen ondo, inor hiltzea ez zen ona", hori da egin beharrekoa. Ea ezker abertzalea hurbiltzen den demokraziara.

**Ze exijitu behar zaio Raxoiri?**

Hau euskaldunon arazo bat da eta seguru nago geure artean konpontzen bagara, elkar ulertzen badugu, konponbide edo aterabide askoz ere imajinatiboak bururatuko zaizkigula.

**Zelan baloratzen duzue presoen eskubideen alde Bilbon egin zen manifestazio jendetsua?**

Oso manifestazio handia izan zen, eta argi erakusten du presoekiko badagoela kezka bat jendartearen zati handi batean. Ez dut ulertzen, hala ere, manifestazioaren helburuak horren garbiak izanda, zelan laga daitekeen egiten manifestazio handi horretan *Amnistia* izeneko pintada bat eta inork ez duen ezer esaten. Ados egon naiteke manifestazioaren helburuekin, baina ikusten badut amnistia eskatzen dutela, bada, horrekin ez nator bat, ETAk eragin duen sufrimendua ezin delako inolaz ere trukatu amnistiarekin.

**Bakearen Aldeko Koordinakundearen ekarpenik nagusia?**

1986an jaio ginenean, kalean, isiltasuna zen nagusi. Gu jarri ginen biolentziaren aurrean, aurrez aurre, inolako lotsa eta beldurrik barik. Horretaz gain, urteak joan ahala, bahiketak-eta ere egon ziren eta jendea hasi zen lazo urdinak paparrean jartzen. Jartzen zuenak bazekien ze ondorio ekar lekiokeen. Baina askok eta askok jarri egin zuten. Bestalde, Lizarra Garazik porrot egin ostetik hona, pertsona batzuen kontrako jazarpena izan zenean, saiatu ginen jendartera zabaltzen, ikusarazten, pertsona batzuek bizkartzainak eroan behar zituztela. Eta indarkeriaren deslegitimazioa izan da gure ardura eta biktimekiko trataera. 1998an ez genien ia ezer esaten biktimei, baina azken urteotan saiatu gara biktimei ahotsa ematen.

# zatoz ikastolara!

## matrikula epea zabalik

urtarrilaren 30etik otsailaren 10era




### HAUR HEZKUNTZA 0-6 URTE

BILERA INFORMATIBOAK

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 0-3 UDAL ZERBITZUA URIBARRI | urtarrilak | 31 | 18:00 | ARRASATE |
| UMEZAINTZA 0-3 UDAL ZERBITZUA | otsailak | 1 | 18:00 | ARRASATE |

ATE IREKIAK

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ARIMAZUBI | urtarrilak | 30 | 17:00-18:30 | ARRASATE |
| JOSE ARANA 0-3 UDAL ZERBITZUA | urtarrilak | 31 | 18:00-19:30 | ESKORIATZA |

### LEHEN HEZKUNTZA 6-12 URTE

BILERA INFORMATIBOAK

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ARIMAZUBI | urtarrilak | 30 | 18:00 Bilera informatiboa<br>19:00 Gunearen bisita | ARRASATE |
| SANTA TERESA | otsailak | 1 | | |

ATE IREKIAK

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ALMEN | otsailak | 4 | 16:30-18:30 | ESKORIATZA |

### DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA 12-16 URTE

BILERA INFORMATIBOAK

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| GAZTELUPE | urtarrilak | 31 | 18:00 | ARRASATE |
| GAZTELERAZ | otsailak | 1 | 18:00 | ARRASATE |
| ALMEN | otsailak | 2 | 18:00 | ESKORIATZA |

informa zaitez

943 77 20 25
www.arizmendi.eu

MONDRAGON
Finantzak Industria Banaketa Ezagutza
GIZATASUNA LANEAN

ikastolenelkartea

Arizmendi ikastola

## DUELA 10 URTE

2002-01-25

### Argentinan, egoera larrian

Argentina, garai bateko herri aberatsenetariko bat, egoera larrian zegoen duela 10 urte. 132.000 milioi dolarreko zor publikoa, historiako handiena, eta 6.500 milioiko defizita zeukan Latinoamerikako laugarren ekonomiak. Moneta %30 debaluatu zen garai hartan. Gure artean bizi ziren argentinarrak eta Argentinara joandako debagoiendarrak elkarrizketatu genituen GOIENKARIAn, krisiaren gakoak ezagutu nahirik.



Buenos Aireseko irudi bat. | GOIENA

2002-01-25

### Erakusketa areto berria Bergaran

Erakusketa aretoa egiteko lokala erosi zion Bergarako Udalak Kutxari. Barrenkaleko zazpigarren zenbakian dagoen Aroztegi etxea eskuratzearren 342.500 euro inguru ordaindu zituen Udalak. Erakusketa aretoa Aroztegin kokatzea zen Udalaren asmoa. Hain zuzen ere, herriko erakusketa areto nagusia bilakatu da gaur, eta urtean zehar makina bat erakusketa jasotzen ditu Barrenkaleko aretoak.

## DUELA 5 URTE

2007-01-26

### Zinema eta historia

*Zinema eta historiaren arteko harremanak* izenburuko hitzaldi sorta antolatu zuten Bergaran. Historia garaikideko irakasle Juan Madariaga oñatiarrak egin zuen lehenbiziko hitzaldia, industrializazioa eta langileen mugimenduaren hastapenei buruz, *Metropolis* eta *Lo viejo y lo nuevo* filmetako irudiekin lagunduta.

## HERRITARRAK

ARRASATE

**Joxean Aranburuzabala** Arrasateko kirolari lotuta egon da beti. Iturripera, Atxabalpera eta Uarkapera joandako zaleek ondo ezagutzen dute. Erretiratuta dago gaur egun. | EDU MENDIBIL

# "Erretiroan egonda, ahalik eta ondoen entretenitzea da kontua"

Orain dela hiru urte erretiratu zen Joxean Aranburuzabala (57 urte). Hainbat lekutan ibilitakoa da lanean, baina arrasatear gehienek kirolarekin lotzen dute. Atxabalpen lau urtez jardun zuen, eta, horrez gain, harreman estua izan du herriko eskubaloiarekin. Okoretegi tabernan egin dugu hitzordua Joxeanekin, baina, erretzailea denez, kanpoan hitz egin dugu, hiruzpalau graduko tenperaturarekin. Zelako hotza! Eskerrak barruak berotu dizkigun kafesneari... Musakolan bizi da Joxean, baina Monterronen, jauregi ondoan zegoen Kondekua eraikinean jaio zen. Elkarrizketa hasi orduko, bigarren sorpresa: *Egin* egunkariko kolaboratzaile zeneko kazetari akreditazioa erakutsi digu.

***Aibadio*! Kazetari ere ibilitakoa zara, ala?**

Bai, *Egin*-erako herriko kirol kronikak egiten nituen. Roberto Sampedro *Pitote* zenak erakutsi zidan orrialdeak nola antolatu, espazioak zelan bete: titularra hemen, argazkia han... *Egin* eta *La Voz* egunkarietan jardundakoa zen hura. Eguerdiko ordu batean igarotzen zen La Vergaresako autobusa Arrasatetik eta hara eramaten nuen kronika, Eibarko delegazioan entregatzeko. Baina oso gogorra eta neketsua da kazetaritza, besteak beste, ordu txikitan lan egin behar delako; behin, jaietan, goizeko lauretan, txurro -jana edo halako zerbait kubritzera bidali ninduten eta beste behin, Larraitzetik Aralarko San Migelera Corpus egunean egiten zen ibilaldiko kronika egiteko ere nahiko sufritu nuen...

**Une onak ere izango zenituen...**

Bai; lehen elkarrizketa Enrique Alonso txirrindulariari egin nion, Tourrera joan zen lehen arrasatearra izan zen-eta. Eta beste behin, Urra arrasatearraren eta Urtzainkiren arteko partidua ikustera joan nintzen Anoetara [gaurko Atano pilotalekua], eta, Urtzainkiren botilleroa Retegi II.a zenez, hura elkarrizketatzeko aukera izan nuen. Nire ustez, Retegi izan da onena. Semea? Nahiko berde ikusten dut; nire ustez, aitaren dohainik onena kantxan erakutsitako adimena izan da, eta semeak ez dauka...

**Arrasaten, nagusiki futbolean eta eskubaloian jardundakoa zara.**

Zaldibarko txapelketan 16 urterekin hasi nintzen, koadrilaren Makilak taldeko entrenatzaile-delegatu moduan. Txapelketa ugari irabazi genuen orduan, Zaldibarren, Musakolan eta Eskoriatzan, Maristetan.


Joxean Aranburuzabala, Monterron ondoan. Hantxe jaio zen. | E.M.

> **"'Egin' egunkarian kazetari nenbilela, Retegi II.a elkarrizketatu nuen"**

> **"Lagunak eta eskubaloiko igoerak izan dira unerik onenak kirolean"**

Saskibaloian ere ibili nintzen sasoi baten, eta, 1979an Arrasateko eskubaloi saila sortu zenean, hantxe hasi nintzen; 15 urte egin nituen eskubaloi sailarekin eta ondoren beste lau urte Atxabalpen; han neukan nire bulegotxoa...

**Unerik onenak eta zailenak?**

Jende asko ezagutu dut kirolari esker, eta, horrez gain, garaipen guztiekin, eta eskubaloi taldearekin bizi izandako bi igoerekin geratzen naiz. Eta une txarrenak, zalantzarik gabe, eskubaloi saileko *Pitxi* Herrero, Roberto Madinabeitia eta Ibon Abasoloren heriotzak. Era berean, instituzioen aldetik laguntza falta izan genuen hainbat momentutan eta une latzak bizi izan genituen orduan.

**Kirol bakoitzean, herri mailan, zeintzuk izan dira onenak, zure ustez?**

Oso zaila da aukeratzea. Horrenbeste jende pasatu da.... Pilotan, Ibai Bolinaga nabarmenduko nuke; eskubaloian, Julian Nieto; saskibaloian, Arruti pibota; eta futbolean... agian, Alejo Mellado, Jon Arriaran, Pedro Orue *Petete* eta Jose Mari Urtzelai *Txosa*.

**Mojategira joaten segitzen duzu?**

Ez. Aurtengo denboraldian ez naiz joan oraindik. Ez naiz bazkide egin, ez nagoelako batere ados zuzendaritzaren jardunarekin. Hilaren 31n batzarra dago... Ea zer ateratzen den.

**Orain, erretiratuta, ondo biziko zara...**

Saiatzen naiz. Astean bi egunez, goizez, Musakolako gimnasiora joaten naiz, eta, bestela, ibilaldiren bat egiten dut... Egurdi aldera lau bat lagun elkartzen gara txikito batzuk jotzeko eta arratsaldean mandatu batzuk egin, irakurri pixka bat, bueltatxo bat lagunekin... Bi urte langabe egon ondoren, krisiarekin, erretiroa hartzea erabaki nuen. Orain, ahalik eta ondoen entretenitzea da kontua.

### NIRE HERRIAN

**:) HERRI BARRUA ETA PORTALOIA**

Arrasateko herri barrua eta bereziki Portaloia atsegin ditu Joxean Aranburuzabalak. Haren hitzetan, "puntu neuralgikoa da Portaloia Arrasaten, zalantzarik gabe, eta ia–ia herriko parlamentua da askorendako. Kazetari ibilitakoa naiz, eta, Portaloitik igaroz gero, dena jakiten da".

**:( KALEKO ZIKINKERIA**

Orokorrean, kaleak–eta nahiko zikin ikusten ditut gaur. Jendeak ez du inolako errespeturik erakusten eta plastikoak, pipa–poltsak eta bestelakoak nonahi botata ikusten dira. Arazo larria da, eta sentsibilizazio falta ikusten dut horrekiko. Aparkalekuarena ere arazo larria da; ordu jakin batzuetan ez dago non aparkatu.

# HERRIAK

OÑATI



Oñatiko odol-emaileak urtarrileko deialdian, ikastolako aretoan, Donostiako erizainekin. | MIREIA BIKUÑA

# Tantaka-tantaka, hazten

- Oñatiko odol-emaileen taldeak 697 ateratze egin zituen 2011n
- Aurten, uztailean izan ezik, deialdia egingo dute hilero odola ateratzeko

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Oñatiko odol-emaileen kopurua gora doa apurka-apurka. Tantaka-tantaka litro asko batzen dituzte urtero Oñatiko deialdietan. "2011n 697 odol-ateratze egin genituen, 2010ean baino gehiago. Pozik gaude. Herrian emaile asko eta fidelak ditugu", esan digu Pili Irazabalek.

Herriko odol-emaileen taldea osasuntsu dago. 2012ko lehen ateratzea egin zuten hilaren 13an. Beste behin, herritar asko joan zen Txantxiku Ikastolako aretora. Han zeuden Donostiako medikuak eta erizainak.

Lehenengo, medikuari egin behar zaio bisita. Lehenengo medikuak tentsioa neurtu, eta kontuan izan beharreko hainbat gauza galdetzen ditu. Bigarren medikuak pisua neurtu, eta odol tanta bat ateratzen du. Likido urdina duen pote batera bota eta, odol tanta behera erortzen bada, txostena sinatu eta odola emateko baimena ematen du.

### Medikuaren baimenarekin

Protokolo hori betetzen dute odol -emaile guztiek, betikoek eta berriek. 2011n 35 emaile berri lortu zituen Oñatiko taldeak. "2011ko datu guztiak dira positiboak, baina guk bereziki odol-emaile berriak baloratzen ditugu, eta gazteak badira, are gehiago. Urtero, emaile batzuk erretiratu egiten dira, edo gaixotu, eta gabezia batzuk izaten ditugu. Urtero 30en bat emaile berri lortzea positiboa da. Iaz 35 egin genituen eta 2010ean 27", esan digu Irazabalek. Emaile berri gehien abenduan egin zituzten: bederatzi.

Odol-ateratzeak ikastolako aretoan egiten dituzte. 8-10 bat lagunek eman dezakete odola batera. 300-400 ml bakoitzak. Han dauden erizainek poltsa guztiak identifikatu eta hozkailuetan sartzen dituzte. "Ondo kontserbatzeko tenperatura jaisten diogu odolari. Hemendik Donostiara eramaten dugu", esan digun erizain batek.

Nork bere poltsa bete ondoren, indarrak berreskuratzeko mokadutxoa hartzen dute: pintxoak, ardoa, ura, freskagarriak...

### Hilabete onenak eta txarrenak

2011n 697 lagunek bete zuten orain aipatu dugun protokoloa. 2010ean baino 43 ateratze gehiago egin zituzten urteko hamaika ateratzeetan.

Uztailean izan ezik, hilero egiten du deialdia Oñatiko odol-emaileen taldeak. Bada, iaz Donostiatik deialdi bat gehiago egin zuten abuztuan. Herriko Plazan autobusa ipini zuten, eta 51 lagunek eman zuten odola. "Esperientzia polita izan zen. Herritar asko odola eman ezinik geratu zen, autobusak muga asko dituelako. Aurten zehaztu barik dute abuztuko deialdia, baina aukera hori izango dugula uste dugu", esan digute odol-emaileen taldekoek.

Hileka begiratuz gero, hilabete onenak izan ziren iraila (92), urtarrila (78) eta ekaina (65). Txarrenak, aldiz, abuztua (51), abendua (57) eta maiatza (58). Batez beste, ia 68 ateratze egin zituzten hilero.

### Emakumeek, urtean hirutan

Gizonezkoek lau aldiz eman dezakete odola urtero –hiru hilean behin–. Emakumeek, aldiz, hilero duten odol galeragatik, urtero hiru aldiz. Bada, urte hasieran egonda, deialdia egin gura dute herritarren artean, batez ere gazteen artean. "Osasuntsu gaude. Oñatin odole-emaile fidelak ditugu, urtero ateratzeak egiten dituztenak: gizonezkoek lau aldiz eta emakumezkoek hiru, hain zuzen ere. Batzuetan, etenaldiak izaten dituzte: atzerrira bidaiatzen dutelako, umeak izaten dituztelako edo gaixotu egiten direlako. Edozelan ere, oztopoak gainditu ondoren, berriro etortzen dira odola ematera", azpimarratu digu Irazabalek.

### Urteko egutegia banatu dute

2012ko egutegia gertu du Oñatiko taldeak, eta dagoeneko banatu dituzte gutunak emaileen artean. Deialdia gerturatu ahala, kartelak ipintzen dituzte herrian. Udako oporren aurreko atzeratzeak hauek dira: otsailaren 10ean, martxoaren 9an, apirilaren 20ean, maiatzaren 18an eta ekainaren 15ean.

#### ESANAK

"Odol-emaile berrien datua baloratzen dugu gehien"

"Abuztuko deialdi berezian 51 lagunek eman zuten odola"

PILI IRAZABAL | ODOL-EMAILEEN TALDEKOA

#### DATUA

**35**

ODOL-EMAILE BERRI

Horiek dira 2011n Oñatiko odol-emaileen taldeak egindako kide berriak.

## DATUAK

| HILABETEA | 2010 | 2011 | ALDEA |
|---|---|---|---|
| Urtarrila | 62 | 78 | +16 |
| Otsaila | 55 | 61 | + 6 |
| Martxoa | 77 | 61 | -16 |
| Apirila | 49 | 48 | -1 |
| Maiatza | 54 | 58 | +4 |
| Ekaina | 67 | 65 | -2 |
| Abuztua | 0 | 51 | +51 |
| Iraila | 98 | 92 | -6 |
| Urria | 71 | 63 | -8 |
| Azaroa | 58 | 63 | +5 |
| Abendua | 63 | 57 | -6 |
| GUZTIRA | 654 | 697 | +43 |

ITURRIA: OÑATIKO ODOL EMAILEAK

## 2012KO DEIALDIAK

- Otsailaren10ean
- Martxoaren 9an
- Apirilaren 20ean
- Maiatzaren 18an
- Ekainaren 15ean
- Abuztuaren ?
- Irailaren 14ean
- Urriaren 19an
- Azaroaren 9an
- Abenduaren 14an

ITURRIA: OÑATIKO ODOL-EMAILEAK

# Asteon hasitako asfaltatze lanek otsailaren 3ra arte iraungo dute

Lanen epea euriak atzera dezake; obrek 94.000 euroko aurrekontua dute

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Udaleko Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoetako Sailaren arabera, eguaztenean hasitako asfaltatze lanak otsailaren 3an amaituko dira, dena ondo badoa. Ibilgailuen eta pertsonen zirkulazioan eragina izango dute eta, egunerokotasunean "ahalik eta eragin txikiena" izateko, seinaleztapena eta "ahal den lekuetan" bide alternatiboak eskainiko direla adierazi du Udalak. Ahal izanez gero, lanen iraupena murriztu egingo dute, herritarrei ahalik eta eragozpen gutxien sortzeko.

**Zirkulazioan nola eragingo duen**

Gaur, ospitaleko aparkaleku handian –hartxintxar izenekoa– konponketa lanak egingo dituzte, eta, beraz, goizean itxita egongo da aparkaleku hori. Arratsaldean, Amaia antzoki kanpoko zebrabidea konponduko dute.

Urtarrilaren 30ean eta 31n eta otsailaren 1ean, Zarugalde kalera pasako dira asfaltatze lanak, Muxibarko biribilgunetik Udalako biribilgunerainoko errepide zatian. Ez dute errepidea itxiko, baina zirkulazioa moteldu egingo da, paso alternatiboa egongo delako.

Amaitzeko, otsailaren 2an eta 3an, Arrasate pasealekuan konponketa txiki batzuk egin behar dituzte, eta Gazteluondo kalea itxita egongo da. Ibilgailuak ezin izango dira ikastolaraino joan, zirkulazioa desbideratu egingo dute-eta. Hori da Udalak aurreikusitako egutegia, baina aldatu egin daitekeela jakinarazi dute, eguraldiaren arabera: "Euria egiten duenean asfaltatze lanak eten egin behar dira".

Asfaltatze lan horiek 94.000 euroko aurrekontua dute, BEZa barne.



Zaldibar kaleko asfaltatze lanak, eguazten goizean. | ANDER MONEDERO

**HURRENGO ASFALTATZE LANAK**

| LEKUA | EGUNA |
|---|---|
| Ospitale ondoko aparkaleku handia | Gaur goizean |
| Otalora Lizentziaduna: Amaia antzoki parean | Gaur arratsaldean |
| Zarugalde: Muxibar eta Udala biribilgune artean | Urtarrilaren 30ean, 31n eta otsailaren 1ean |
| San Frantzisko kalea | Otsailaren 1ean |
| Arrasate pasealekua eta Gazteluondo sarrera | Otsailaren 2an eta 3an |

## Herri Eskolaren lehen irteera

Arrasate Herri Eskolako guraso elkarteak urteko lehen mendi irteera antolatu zuen domekarako. Lizarrustiko parketxetik Lareoko urtegira joan ziren eta Etxarri Aranatzen bazkaldu zuten. 74 haur eta guraso elkartu ziren eta eguraldi goibelari umore onez aurre egin ziotela esan digute.



ARRASATE HERRI ESKOLA

## Erraldoi eta Kilikien zozketako zenbaki saritua 1.098 da

Erraldoi eta Kilikien Konpartsak urtero ateratzen dituen poltsikorako egutegien zozketako zenbaki saritua 1.098 da. Zenbaki horren jabeak Ttukun fotokopia dendara joan beharko du saria jasotzera. Hain zuzen, Zumaiako Zelai talasoterapia zentroan bi lagunendako egonaldia.




# Maiatzera arteko egitaraua aurkeztu du Emakume Txokoak

J.B. | ARRASATE
Emakume Txokoak eta emakumeendako Jabetze Eskolak maiatzera arteko ikastaro eta tailerren berri eman dute. Ikastaroak otsailaren 6an hasiko dira eta izen-emate epea urtarrilaren 30etik otsailaren 3ra egongo da zabalik. Izena emateko eta ikastaro eta tailerren gaineko argibide gehiagorako, deitu 943 79 41 39 telefono zenbakira edo idatzi *emakumetxokoa@arrasate-mondragon.net* helbidera.

Ikastaro bakoitzean bestelako preziorik agertu ezean, honakoa izango da ikastaro bakoitzagatik ordaindu beharrekoa: 45 euro Arrasaten erroldatutakoek, 30 euro langabeek eta 50 euro Arrasaten erroldaturik ez daudenek.

**Martxoaren 8ari begira**
Ikastaroak eta tailerrak emakumeendako izango dira, besterik adierazi ezean. Haurtzaindegi zerbitzua egongo da, aurretik abisatzen bada, eta emakumeendako aholkularitza zerbitzu juridikoa ere badago.

Ikastaro eta tailerrez gain, Martxoaren 8ko egitaraua jaso dute egitarauan. Kartel lehiaketa abian da dagoeneko; *Feminista naiz eta harro nago!* da aurtengo leloa eta otsailaren 17a baino lehen entregatu behar dira lanak. Martxoaren 8an bertan manifestazioa deitu dute *Gora feminismoa!* lelopean eta martxoaren 10ean, zapatua, emakume artisau eta baserritarren azoka eta Takarraran lasterketaren laugarren edizioa egingo dute.

## Alde zaharreko bizilagunei zaborra eta kartoia jaisteko ordutegia gogora ekarri die Udalak

Erdiko kale, Gazteluondo, Iturriotz eta Ferrerias kaleetan zaborra dagokion orduan jaisten ez dela ikusita, Udalak zabor bilketaren ordutegia gogora ekarri die kale horietako bizilagunei: zaborra martitzen, eguen eta domeketan utzi behar da dagokion lekuetan, eta inoiz ez 21:00ak baino lehen.

Kartoiak, berriz, astelehenetik egubakoitzera utzi beharko dira horretarako propio jarritako lekuan, eta inoiz ez 20:00ak baino lehen.



Ugarte, Aratusteak iragartzen, aurtengo sarietako batzuekin. | JOKIN BEREZIARTUA

**Ion Ugarte** | Aratusteetako jai batzordeko kidea

# "Zapatura ere pasa zenetik urtez urte jende gehiago ibili da Aratusteetan"

Bazkarirako txartelak astelehena ezkero salgai daude Monte, Kajoi, Iluntz eta Basati tabernetan

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
Badatoz Aratusteak. Otsailaren 18an eta 21ean ospatuko dira aurten eta zapatuko ospakizuna antolatzen duen jai batzordeko Ion Ugarterekin (Arrasate, 1985) egon gara, nobedadeak aurrera diezazkigun. Garaikurrak jaso berri zela agertu da hitzordura.

**Zein da aurtengo egitaraua? Badago nobedaderik?**
12:00etan elkartuko gara Biteri plazan eta bertan iazko koadrila irabazleak eurak idatzitako pregoia irakurriko dute. Gero kalejira egingo dugu txarangarekin batera. Hor egongo da aurrera daitekeen aurtengo nobedade nagusia: azken urteetan kalejiran jende asko ibili izan denez, ibilbidea aldatzea erabaki dugu eta sari banaketa bazkaldu aurretik egingo da. Hala, aurten Maalatik sartuko gara alde zaharrera Herriko Plazara heldu arte. Plazan bertan egingo dugu sari banaketa, jaiaren hasieran.

**Badira urte batzuk jaia zapatuan ere ospatzen dela. Nolakoa izan da azken urteotako erantzuna?**
Jaia zapatura ere pasa zenetik urtez urte jende gehiago ibili da. Horren adibide da urteren baten jende asko herri bazkaritik kanpo geratu dela txartelik ez dualako lortu. Horietako batzuk euren kabuz bazkaldu dute, baina kalejiran parte hartuz. Bestalde, harrigarria eta pozgarria da adin guztiendako herritarrak batzen direla jaira.

## Gehienez 700 sartzen dira

Aratusteetako jai batzordearen arabera, 700 lagunendako lekua dago gehienez Uarkapen. Sarrerak astelehenean jarri zituzten salgai Monte, Kajoi, Iluntz eta Basati tabernetan, 20 euroren truke. Bestalde, otsailaren 10ean karrozak egiteko bilera egingo da gaztetxean, 18:30ean.




Matrikulazio epea zabalik
haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan
Urtarrilaren 30etik otsailaren 10era

Gurasoen Elkartea
arrasate Herri Eskola
baikara Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa

Guk bezala,
egin apustu, egin kiñu
Euskal Eskola
Publikoaren alde!



BEDOÑABE • Tel.: 943 79 20 69



MUSAKOLA • Tel.: 943 79 04 49



ERGUIN • Tel.: 943 79 77 74

# Aspaldiko sentsazio onak errekuperatuta, lider

## Kanpanzar ART taldea B multzoko lehen postuan dago; deskantsua izango dute asteburuan

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Denboraldiko lehen zatian Arrasatek ezin izan zuen A multzoan jokatzeko sailkatu, baina hori gaindituta, B multzoan gauzak ahalik eta ondoen egiteko konpromisoa hartu dute. Hain zuzen, berba hori azpimarratzen du taldearen entrenatzaile Igor Isasik azken hilabeteotako lana azpimarratzeko: "Denboraldia hainbat jokalari berrirekin hasi genuen, eta horrek eskatzen du batzuekin zerotik hastea. Bestalde, iazko denboraldia eskasa izan zen, Durangorekin geneukan hitzarmena tarteko jokalari batzuek Durangon jokatzen zutelako, eta aldiz, guk Durangokoen atzetik ibili behar izaten genuen gure partiduetara etor zitezen; hainbat norgehiagokatan gutxieneko zenbatekoa ere ez genuen lortu". Hortik etorri zen, neurri handian, talde bakoitzak bere bidetik jarraitzeko erabakia. Eta taldean igarri egin da hori".

La Unicaren kontrako garaipenak utzitako zapore onak bi astez iraungo die jokalariei, oraingo asteburuan ARTko ordezkariek atseden izango dutelako: "Egutegi berezi samarra izango dugu datozen lau asteotako partiduak etxean jokatuko ditugulako jarraian, eta ondoren lau astez kanpora joan beharko dugu; gainera, lau bidai horietatik hiru Santander aldera izango dira". Hala, lider egoteak liga amaiera ra arte motibatuta egoten lagun dezakeela aurreratu: "Behintzat liga modu txukunean luzatu nahi dugu, ganoraz ibili".



Joan den asteko norgehiagokan, Arrasate eta La Unica. | JOSETXO ARANTZABAL

### Taldea mantentzea

Hori da Arrasateko entrenatzailearen nahia: "Urtetik urtera aldaketa handiak izaten dira, eta ea urte honen ostean taldea mantentzea lortzen dugun".

**IGOR ISASI**
ENTRENATZAILEA

### "Zapatuko garaipena jarrera kontua izan zen, gogoz jokatu genuen"

Partidu parekatu baten ostean Kanpanzar Arrasate taldeak alde txikiagatik hartu zuen mendean La Unica, ordura arteko liderra (10-5).

**Lider jarri zarete.**

Bai, baina lidergo honek ez du saririk izango, B multzoan gaudelako eta A multzokoak igotzen direlako. Dena dela, iaz C multzoan izan ginen, eta horrekin alderatuta asko hobetu dugu. B multzoan aurrean amaitzeak lagunduko du jendeak denboraldia motibatuta amaitzeko, batez ere datorren denboraldira begira. Garrantzitsua izango da talde honi eustea.

**Parekatuta egon ziren indarrak.**

Lehenengo zatian ikusi zen hori garbi, eta atsedenaldian komentatu genuen gogo gehien jartzen zuen taldeak irabaziko zuela partidua. Teknikoki ez genuen aparteko lana egin, baina jarrera aldetik bikain ibili ginen, eta hor egon zen gakoa.

## ZALDIBAR

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Ekaitz-Aldatz | 0-3 |
| Iriztu-McAwenDauen | 6-9 |
| Sonografos-AT Betrayer | 3-4 |
| Aston Birras-Lasagabaster | 2-10 |
| Dribling-Dublin | 7-7 |
| Abokajarro-Iluna | 2-0 |
| Fidel&Discipulos-Portaboleiros | 9-3 |
| Iluntz | Atsedena |

**SAILKAPENA**

| | TALDEA | P | J |
|---|---|---|---|
| 1 | Dribling | 22 | 9 |
| 2 | Dublin | 22 | 10 |
| 3 | McAwen | 21 | 10 |
| 4 | Aldatz | 20 | 10 |
| 5 | Iriztu | 19 | 9 |
| 6 | Sonografos | 18 | 9 |
| 7 | Abokajarro | 18 | 9 |
| 8 | AT.Betrayer | 16 | 10 |
| 9 | Lasagabaster | 14 | 10 |
| 10 | Fidel&Discipulos | 12 | 9 |
| 11 | Iluntz | 9 | 9 |
| 12 | Iluna | 6 | 9 |
| 13 | Ekaitz | 4 | 9 |
| 14 | Aston Birra | 3 | 9 |
| 15 | Portaboleiros 2.0 | 0 | 9 |

**PARTIDUAK**

URTARRILAK 28, ZAPATUA
**10:30** Ekaitz-AT Betrayer / **Dublin**
**11:30** Sonografos-Dublin / **Ekaitz**
**12:30** Abokajarro-Fidel&Dis. / **Sonograf.**
**16:00** Aston Birra-Iluna / **Iriztu**
**17:00** Iriztu-Lasagabaster / **Iluna**
URTARRILAK 29, DOMEKA
**11:30** Iluntz-McAwen / **Portaboleiros**
**12:30** Dribling-Portaboleiros / **McAwen**
Ekaitz: **Aldatz**

### Liderrak azken sailkatua hartuko du domekan

Domekan, orain arteko talde indartsuenak motelen hasi denaren kontra jokatuko du, Driblin eta Portaboleiros aurrez aurre (12:30). Gol festa egon daiteke hor, edo Portaboleirosek uste baino hobeto euts diezaioke txapelketako faboritoetako bati. Batzuetan, Davidek Goliath menderatzen du; horrenbestez, argi. Galdetu, bestela, Espanyol taldean, edo Miranda aldean.

# Euskal Herriko kopan Jonathan Perez lehenengo eta Markel Blanco bigarren

## Valentzian lehiatu zen Malen Ruiz de Azua laugarren izan zen

X.U. | ARRASATE

Joan den asteburuan jokatu zuten Anoetan kluben arteko Euskal Herriko atletismo kopa, eta Arrasateko atletek azpimarratzeko moduko lana egin zuten. Baita, neurri berean, Valentzian lehiatu zen Malen Ruiz de Azua ere.

Anoetan, gorputzaldi onenean egon barik Realeko ordezkari Jonathan Perezek erakutsi zuen, beste behin, pertika saltoan Euskal Herrian ez duela parekorik, eta 4,60 metroko saltoa eginda lehenengo postuan sailkatu zen. Txapelketa berean Markel Blanco korrikalariak Irungo taldearen elastikoa defendatu zuen, eta Arrasatekoa bigarren izan zen 1.500 metrotako lasterketan (4.04.56).

Bestalde, Malen Ruiz de Azua Valentzian lehiatu zen, han egin zuten Espainiako kluben arteko txapelketan. Arrasatekoa laugarren izan zen, 3,50 metroko saltoa eginda.

# MUk etxean jokatuko du berriro, bihar

X.U. | ARRASATE

Araberriren kontrako porrotetik errekuperatzeko asmoz irtengo dira MUko mutilak zapatuan Iturripera (18:00), nahiz eta jakin aurrean izango duten Bide Bide Ibiza ez dela, bereziki, ligako kontrariorik errazena izango.

Hurrengo fasean Bide Bide ez da kontrario zuzena izango; mailaz igotzeko helburuaz lehiatuko dira tolosarrak. Hala, kategoriari eusteko lehian partidu erabakigarria izan barik, etxekoak ezustea ematera irtengo dira.

# Iturripen beharrean Musakolan hartuko du Ford Mugarrik Urduliz

Usurbil taldeari zortzi goleko errentaz irabazi zion joan den astean Ford Mugarrik, eta bihar, etxean, Ane Herreroren mutilek ligan atzealdean dabilen beste talde bat izango dute aurrean: Urduliz (Musakola, 17:30). Urduliz etxean arriskutsu izan daiteke, talde horrek estu hartu zuen joan den astean Romo, bigarren sailkatua (19-21), baina etxetik kanpora behera egiten dute nabarmen. Ford Mugarriko mutilak, berriz, kontrarioari begira egon barik euren kasara dabiltza, erregistro guztiak hautsi nahian. Oraingoz, 16 partidutatik 15 garaipen eta berdinketa bat. Ikusgarria.

ARGITU
Psikologia eta osasun etxea
Psikoterapia kognitiboa eta jokabidearena
Haurrak – nerabeak – helduak – indibiduala – bikoteak - familiak
PROGRAMAK ETA TAILERRAK
Tabakoaren mendekotasuna gainditzeko tailerra
Urtarrilak 28 eta 29
Laguntza doluan
Adimen emozionala
Ikasketa ohiturak
Guraso eskola
Beste batzuk...
675 70 68 07
Bidebarrieta 27 B, 9. bulegoa. EIBAR

Otsailean ere DESKONTUAK!
Maiatz
ILE APAINDEGIA
Animatu eta deitu!

| | ILE MOTZA | ILE LUZEA |
|---|---|---|
| • Orraztea | 13,50€ | 16,50€ |
| • Moztea eta orraztea | 25,20€ | 28,50€ |
| • Kolorea ematea, moztea eta orraztea | 43,50€ | 50,90€ |
| • Kolorea ematea eta orraztea | 34,90€ | 39,50€ |
| • Gizonentzako ile-moztea | 13,20€ | |
| • Umeen ile-moztea (8 urte beherakoak) | 8,90€ | |

Antso Abarka 3 behea • Musakola
ARRASATE • Tel.: 943 79 58 78

# Gitarra ikasteko aukera bikaina gazte txokoan

## San Andresko gazte txokoan izango da ikastaroa, 12 eta 17 urte bitarteko gazteendako, eguenetan

**ARANTZAZU EZKIBEL** | ARRASATE

Urte berriarekin batera aukera eta eskaintza berriarekin datoz gazte txokoak. Horren adibide da San Andresko gazte txokoan antolatu duten gitarra ikastaroa. 12 eta 17 urte bitarteko gazteendako ikastaroa da. Otsailean eta martxoan eskainiko dute, eguenetan, 18:00etatik 19:30era.

Plaza mugatuak izango dira: sei lagunendako lekua egongo da eta dagoeneko lauk eman dute izena.



Gitarra irakaslea Olatz Urkia izango da. | A.E.

**Gazte txokoak ezagutaraztea**

"Helburua da gazteak gazte txokoetara joatea eta gazteek gazte txokoan egiten diren ekintzak ezagutzea. Adibidez, San Andresko gazte txokoa ezagutzea", azaldu du. Bestalde, gazteendako aisialdirako eskaintza zabaltzea ere izan da ikastaro hori antolatzearen helburua: "Adibidez, sukaldaritza ikastaro bat egin daitekeen neurrian, gitarra ikastaroa antolatu dugu oraingoan", dio Urkiak. Hala, gazteak erakarri gura dituzte gazte txokoetan antolatzen diren ekintzetan parte har dezaten.

**Aurretiko esperientzia barik**

Ikastaroan parte hartu gura duenak ez dauka zertan aurretiko esperientziarik izan. Gitarra jotzen ikasteko gogoa izatea nahikoa izango da izena emateko. Hutsetik hasiko dute ikastaroa eta ikasleen beharren arabera moldatuko dute gero. "Denetik egingo dugu, akordeak ezagutuko ditugu, abestiak ikasiko ditugu...", azaldu du Urkiak. Rocka, bluesa... denetik ikasiko dute.

Gainera, ez da beharrezkoa norberaren gitarra eramatea ikastarora; izan ere, lau gitarra daude gazte txokoan eta haiek erabiltzeko aukera egongo dela azaldu du Urkiak. Bestalde, gaineratu du izena eman duten ikasleetako batzuek euren gitarra dutela.

**Izena emateko modua**

Ikastaroan izena eman gura duenak San Andresko gazte txokora edo Txatxilipurdiko egoitzara (943 79 54 46) jo edo telefonoz deitu beharko du.

Olatz Urkia arrasatearra da, eta, gitarra ikasketak izateaz gain, piano ikasketak ere egin zituen bere garaian. Profesionalki ez da ibili gitarra erakusten, baina lagunen artean askotan erakutsi izan du musika instrumentu hori. Ondo pasatu eta musika ikasteko aukera ona izango da ikastaroa.

**ESANAK**

"Helburua da gazteak gazte txokoetara etortzea"

"Akordeak ezagutu eta abestiak ere ikasiko ditugu"

OLATZ URKIA | GITARRA IRAKASLEA

## Santa Ageda batzea egiteko deialdia egin dute aurten ere

**A.E.** | ARRASATE

Ohitura zaharrei eutsiz, Santa Ageda koruak herriko auzo eta baserrietan ibiliko dira otsailaren 4an. Hori dela eta, koruetan kantuan irteten direnei dei egin diete otsailaren 1ean 21:00etan Karkabal elkartera joan daitezen. Santa Agedako koruetako kantari, poltsero eta laguntzaileei egin diete deia.

**Dirua batzea da helburua**

Ohitura zaharrei eutsi eta herria girotzeaz gain, ekimen honen helburua dirua batzea izango da, behartsuenei laguntzeko. Iaz, parrokiako Caritasen bitartez banatu zuten batutako dirua. Bada, diru ekarpenak 2101.0055.65.0110714854 kontu korronte zenbakian egin daitezke *(Santagedako koruek)*.

**DATUA**

**6.710**

EURO

2011. urtean 6.710 euro batu zituzten behartsuenei banatzeko.

## 'Paradisuko atean' laneko entseguak hasi ditu Doke taldeak

**A.E.** | ARRASATE

Irailean deialdia egin zuen Doke taldeak: herritarrak behar zituzten antzezlan berri baten parte hartzeko. Bada, deialdiak erantzun ona izan zuen. 15 bat lagunek deitu zuten: "Oso pozik gaude erantzunarekin", dio Mari Asun Pagoagak. Bada, lantaldea zehaztuta dagoela, lanean hasi dira herriko aktoreak.

"Urtarrilean fundamentuz hasi ditugu entseguak", azaldu du Pagoagak. Astean bi entsegu egiten dituzte, martitzenetan eta eguenetan. Itziar Rekalde da *Paradisuko atean* lanaren zuzendaria. Testua, ostera, Jose Mari Velez de Mendizabalek idatzi du. Astelehenean batzar orokorra egin zuten eta testua eta gidoia zehaztuta utzi zituzten.

**Sanjuanetan estreinatzea**

Antzezlana komedia bat da, komedia unibertsala: "Tanatorio baten girotuta dago", dio Pagoagak.

11 aktorek parte hartuko dute antzezlanean; denak dira Arrasatekoak, eibartar bat eta azpeitiar bat izan ezik. Doke antzerki taldearen asmoa da sanjuanetan estreinatzea lana, Arrasaten.

## Zestoako Adabegiren emanaldia datorren astean

**A.E.** | ARRASATE

Otsaileko egitaraua estreinatuko du Adabegi taldeak datorren eguenean, otsailak 2. Zestoako taldea orain dela bi urte inguru sortu zuten. Euren musikaren oinarria txalaparta da, baina, horrez gain, flamenkoa, musika afrikarra eta beste doinu batzuk ere nahasten dituzte.

Otsailaren 9an Vomitok eskainiko du kontzertua eta hilaren 23an, Foxy Leires taldeak. Saioak 22:00etan izango dira, 5 euroren truke.

## Al-Andalus elkartearen festa aste bukaeran

**A.E.** | ARRASATE

Arrasateko Al-Andalus elkarteak festa giroan ospatuko du aste bukaeran elkartearen 22. urtemuga. Egubakoitzean hasiko dute festa, elkarteko bazkideek afaria eginda.

Zapatuan, 19:00etan, musika emanaldia izango dute: Sueños de Andaluciaren eta Al-Andalusko koru errozieroaren saioa. 21:30ean afaria izango dute, eta, horren ondoren, Tolin el Mariachik girotuko du gaua. Domekan, 13:30ean, sevillanak, runbak eta pasodobleak izango dira.

## Pello Añorgaren ikastaroa bertan behera geratu da

*Bularretik mintzora* egitasmoaren barruan Pello Añorga idazleak gurasoendako eman behar zuen ikastaroa bertan behera geratu da. Bibliotekako arduradunek esan dute asmoa dela udaberri aldean abian jartzea asteon hastekoa zen ikastaroa, baina oraindik zehazteke dago.

Restaurante UGARAN Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

MONTE TABERNA
edari, jana eta kirola
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

KIWI EKOLOGIKOEN SALMENTA
Banaketa pertsonalizatua
10 kilo 10 euro
Arrazola baserria • Olabarrieta auzoa • Oñati • 670 24 01 69


Toki askotako jakiak izango dira aurten ere azokako protagonista nagusiak. | GOIENA

# Zaporeen azoka asteburu osoan San Martin plazan

Azoka domekara bitartean izango da zabalik; jaki eta artisauez gainera, bitxikeriak ere egongo dira aukeran plazan jarritako 18 postuetan

**EDU MENDIBIL** | BERGARA

Hirugarren urtez Zaporeen Azoka egingo dute Bergaran. Azoka domekara bitartean izango da zabalik San Martin plazan. Atzo zabaldu zuten, iaz bezala, muskuilu dastatzearekin. Galizia aldetik ekarritako 100 bat kilo muskuilu gertatu zituzten jende artean banatzeko, doan. Eguneneko pintxo-poteoak konpetentzia latza izan zuen atzo. Edo konpetentzia baino gehiago, osagarri ezin hobea.

JC 2000 enpresa eta Bergarako Udala dira azokako antolatzaileak. Aurten 18 postu jarri dituzte herriko plazan eta domekara bitartean ordutegia honakoa izango da: 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara.

**Produktu ugari aukeran**

Besteak beste, Kantabria, Extremadura, Gaztela eta Leon, Galizia, Madril, Mallorca edota Euskal Herriko saltzaile eta produktuak batuko ditu feriak. Jaki eta artisauez gain, bitxikeriak ere egongo dira aukeran. Era berean, hainbat erakustaldi iragarri dituzte antolatzaileek. Olio barik erabil daitezkeen zartaginenak, guraize edo artazi berezienak eta beste hainbat. Produktu ekologikoak ere ez dira faltako.

Beraz, hirugarren aldiz etortzen da feria Bergarara eta antolatzaileak pozik azaldu dira aurreko bi urteotan jasotako erantzunarekin. Aitor Fernandez eibartarra JC 2000 enpresako ordezkaria da. Zera adierazi digu feria zabaldu baino lehen: "Feria ibiltaria da eta Bergaran beti izan dugu erosleen eta jendearen babesa. Iaz Santa Ageda inguruan egin genuen eta aurten zertxobait aurreratu dugu. Horrela, 2012ko lehenbiziko feria Bergaran egin nahi izan dugu. Ia Euskal Herri osoan ibiltzen gara, herririk herri, eta Bergara ezinbesteko geldialdia bilakatu da honez gero. Saltzaileak pozik daude aurreko bi urteetan izandako harrerarekin. Ea eguraldiak laguntzen duen eta herritarrak zein saltzaileak pozik geratze diren...".

**Babarrunak domekan**

Domekan, doaneko babarrun dastatzea izango da feria agurtzeko. Goizean zehar 200 bat arrazio prestatuko dituzte. eta doaneko dastatzea 13:30ean hasiko da.

Edozein modutan, domeka arratsaldean ere zabalik izango da azoka.

## OHARRAK

**MARIAREN LAGUNDIKO IKASLEEN ZOZKETA**

Mariaren Lagundia Ikastolako DBHko 4. mailako ikasleen zozketan 2.578 izan da saritutako zenbakia. Zumelaga jatetxean bi lagunendako afaria eskuratuko du irabazleak. Holandako ikasleekin elkartrukea egiteko dirua lortzeko antolatu zuten zozketa. Txartelaren jabeak Mariaren Lagundira (943 76 25 40) dei dezake otsailaren 29a baino lehen.

**HIKA IKASTAROA OTSAILEAN JARDUNEKIN**

Jardunen eskutik, otsailaren 13tik 23ra bitartean hika ikastaroa emango du Juan Martin Elexpuruk; bi orduko zortzi saio izango dira astelehenetik eguenera, 18:30etik 20:30era. Argibideak: 943 76 08 19.

**SAN MARTIN IKASTETXEA: ATE IREKIAK BIHAR**

2012-2013 ikasturteko matrikula kanpainaren inguruan bi ekintza egingo ditu San Martin Agirre Herri Ikastetxeak. Bihar, zapatua, ate irekien jardunaldia, 16:30etik 19:30era. Martitzenean, urtarrilaren 31n, gurasoei zuzendutako bilera informatiboa izango da 18:00 etan eskolako liburutegian. Argibide gehiago 943 76 21 47 telefonoan.

**ARATUSTEETAKO BAZKARIA SAN JOXEPEN**

San Joxepe elkarteak Aratusteetako martitzenerako bazkaria iragarri du. Otsailaren 21ean izango da. Izenematea erretiratuen egoitzan egin daiteke.



E.M.

## Ibargarai kalea berriro ere zabalik

Ibargarai kalean lanean ari direla eta, astean itxita egon da 4. zenbakitik 16. zenbakira doan tartea (Seminarioko patioaren parekoa). Miguel Altuna parean zegoen zebra-bidea kendu eta metro gutxi batzuk atzerago (Seminario aldera) jarri dute Udaleko brigadako langileek. Aurrerantzean, altxatutako zebra-bidea izango da, gainera. Susto bat edo beste egon da leku horretan, eta, oinezkoek dagokion tokitik errepidea zeharka dezaten, hesia jarriko dute Miguel Altuna ikastetxea, Orange denda eta Tejidos Fernandez komertzioaren ondoan. Errepidea atzo zabaldu zuten arren, beste hamar bat egun iraungo dute lanek.


AMAIA TXINTXURRETA

## Zaborraren kudeaketa aztertzen

Zero Zabor taldeak antolatuta, zaborraren kudeaketaren gaineko berbaldia egin zuen Imanol Biain oñatiar biologoak eguaztenean. Herritar ugari hurbildu zen Irizar jauregira. Biainen hitzetan, "atez ateko sisteman herritarron parte hartzea bultzatzen da eta birziklatze kopuru handiak lortuz lehengaiak xahutzea ekiditen da. Horrela ez legoke erraustegi baten beharrik".



AZKAR, AZKAR! DENEI ESAN BEHAR DIEGU!
ZEIN DA JOKINEN TELEFONUA?
RING RING!!
RING RING!
ZER? BAINA ORAINTXE?!
BANEKIEN BANEKIEN! AUPAAA!
DENEI ESAN BEHAR DIET!
BERRIA JASO DOZU?
ARRETAZ ENTZUTEN ZAITUT
BERRI ON BAT IZATEA ESPERO DOT
BAI NESKA! HAU DA ITXOITEN GEUNDENA!!
ZER PENTSATZEN JATZU?
GAILETA GEHIAGO EGONGO AL DIRA?
PREST ZARE?
ORAINTXE BERTAN ENTERATU NAIZ!
KAIXO! GAUZATXO BAT ESATEA NAHI NIZUN
BUENO... HASI GARA BERRIZ!
SEGURU ZAUDE MARIAREN LAGUNDIA IKASTOLAN DALA, EZ?
NOSKI!
EZ ZARA ADARRA JOTZEN ARIKO, EZTA?!
EZETZ, EZETZ! GERO ETA GUTXIAGO GELDITZEN DALA!
MAIALEN FALTA DALA!!
BAINA.. NI GABE HASI ZARETE?
HAUEK NERBIOAK HAUEK
MATRIKULAZIOA
URTARRILAREN 30ETIK OTSAILAREN 10ERA
2 URTEKO UMEEN GURASOENTZAT BILERA OTSAILAREN 1EAN ARRATSALDEKO 18:00ETAN
ZU ERE ETORRIKO AL ZARA MARIAREN LAGUNDIA IKASTOLARA?
1799
1999
Mariaren Lagundia Ikastola
Espaloia 1
Tel. 943 76 25 40 / 41
ikastola@mlagundia.net
www.mlagundia.net



Iaz egin zuten lehen aldiz Mari Justaren jaitsiera Uberan. | GOIENA

# Mari Justaren jaitsiera Uberako jaiak hasteko

Umeendako jolasak eta kukañak bihar eta trikitilari eta dantzariak domekan

**EDU MENDIBIL** | BERGARA

Sab Paulo eguna ospatu zuten eguaztenean Uberan eta jaiek jarraipena izango dute aste bukaeran. Zeledonekin eta Bitorianatxorekin egiten den antzera, Mari Justaren jaitsiera egingo dute gaur jai ekitaldiei hasiera emateko. Mari Justa Beiztegi Idarraga zena omendu nahian, iaz haren figura berreskuratu zuten jaietako ikur moduan. Idarraga Azpikoa baserriko maiorazkoa zen Mari Justa eta auzotarren arabera jairik jai ibiltzea atsegin zuen gehien. Bi tapako zestoa eskuan, Eibarrera edo Bergara jaisten zen, baserriko produktuak saltzera eta inguruko herrietan oso ezaguna zen. Pedro Jose Astarloarekin ezkondu zen, baina ez zuten seme-alabarik izan. Uberarren arabera, 1884an jaio eta 1976an hil zen, heriotza data zehatzarekin zalantza dezente egon arren. Mari Justak egindako dohaintzari esker, San Paulo elizaren berritzea egin ahal izan zuten 80ko hamarkadan. Eta auzoari emandakoa eskertzeko, Mari Justaren figura berreskuratu dute Uberan. Gaur, esan bezala, Mari Justaren jaitsiera egingo dute 20:30ean.

**Tortilla eta tarta lehiaketa**

Biharko, zapaturako, tortilla eta tarta txapelketak deitu ditu jai batzordeak. Etxean egindakoak izatea eta sei lagunek jan ahal izateko modukoak izatea beharrezkoa da. Ondoren, sari banaketaren ostean, parte hartutako tortilla eta tartekin bazkaria izango da, 13:00etan.

**Domekan, herribusa**

Jaiak domekan bukatuko dira eta goiz osoan hainbat ekitaldi izango dira Uberan. Harainoko joan-etorria egiteko herribusa ibiliko da eta ohiko geralekuetan hartu ahal izango da herribusa. Antolatzaileek ahal izanez gero herribusa erabiltzea eskatu dute, Uberan aparkatzeko arazorik ez izateko. Herribusaren ordutegiaren gaineko argibideak 943 76 59 42 telefono zenbakian jaso ditzakezue.

**EGITARAUA**

**EGUBAKOITZA 27**

**20:30** Mari Justaren jaitsiera.

**21:00** Afaria trikitilariekin.

**ZAPATUA 28**

**12:00** Salda eta txistorra. Jarraian umeendako jolasak eta kukañak.

**12:00** Tortila eta tarta lehiaketa.

**DOMEKA 29**

**10:00** Diana Bergarako txistulariekin.

**10:30** Meza nagusia.

**11:30** Salda eta txistorra.

**11:30** Bergarako trikitilari gazteen emanaldia Moises Azpiazu elkarteko dantzariekin.

**12:00** Ugarixo tiroketa eta toka txapelketak.

**NIRE USTEZ**



**MAIALEN MADARIAGA**

## Zenbat gara?

Denboratxo bat badaramat konponbiderik aurkitzen ez diodan eragiketa matematiko bati erantzuna eman nahian. Mila modutara saiatu naiz askatzen, baina gorputzeko hatz guztiak erabilita ere, ez dut ezer lortzen. Badirudi emaitza lortzea ez dagokidala niri; beraz, hemen azaltzea erabaki dut, ea inork laguntzen didan askatzen:

Izan bitez, Haitiko lurrikaran izandako ehun mila hildakoak, berdin: milaka.

Estatu Batuetako armadak hildako ehun mila irakiarrak, berdin: ehunka.

Urtarrilaren 7an Bilboko kaleak bete zituztenak, berdin: jendetza. Camp Nou-ko azken futbol partiduan izandako ikusleak, berdin: ehun bider mila, beraz, ehun mila.

Ez ditut matematika hauek ulertzen, kontuak ez zaizkit ateratzen ongi. Hamarkadak daramatzagu soluzio logiko bakarra duen eragiketa matematiko korapilatsu hau askatu nahian, non X motako ehun mila norbanakok hamar segundoko lekua besterik ez duten pantailetan, eta beste hamar lerrokoa egunkarietan.

Izan liteke honakoa esanahi ezkutua duen asmakizun horietako bat izatea, eta hala balitz, nire logikak dio ehun mila buruk hamarrek baino lehenago aurkituko dutela irtenbidea. Gainera, ziur naiz asmakizun honek, beste ehun gramo pazientzia eta hamar elkarrizketa gehiagorekin, emaitza atsegina izango duela; berdin: X.

# Haurrendako txotxongilo emanaldia Zabalotegin

Panta Rhei taldeak 'Beltzitina' ikuskizuna eskainiko du zapatuan, 18:00etan

**E.M.** | BERGARA

Bereziki 3 eta 7 urteko neskamutikoei zuzendutako txotxongilo emanaldia egingo du Panta Rhei taldeak bihar, zapatua, Zabalotegin.

Adimen urritasuna duen neskatila da lanari izenburua ematen dion Beltzitina. Hura eta Txuribeltz izeneko ahatetxo itsusia dira istorioko protagonistak. Bien artean konplizitatea piztuko da berehala; euren buruak desberdin ikusten dituzte Txuribeltzek eta Beltzitinak, eta, hori dela eta, baztertu egiten dituzte han eta hemen. Elkarrekin adiskidetasunaren edertasuna, laguntasuna, elkar ulertzearen eta anaitasunaren balio amaigabea ezagutuko dute. Panta Rhei taldekoen arabera, antzezlan erraza da Bergarara ekarriko dutena eta itxaropena, askatasuna eta poesia plazaratzea izan dira helburu nagusiak. Desberdinak diren pertsonenganako errespetuaz hitz egiten duen lana da eta besteenganako maitasuna azpimarratu nahi izan dute egileek. Mozarten eta Italiako Napoli aldeko herrikantuak erabili dituzte antzezlanean. Biharko emanaldia 18:00etan hasiko da eta sarrerak 3 euroren truke eskuratu ahal izango dira.

**'La lechuga' gaur**

Bestalde, *La lechuga* antzezlana ikusteko aukera izango da gaur, egubakoitza, Zabalotegi aretoan, 22:00etan. Sarrerak 5 eurotan izango dira salgai Zabalotegiko leihatilan bertan.



*Beltzitina* laneko irudi bat.

## Nekane Lazkanoren argazkiak Aroztegin, eta pintura erakusketak Nahikarin eta Raizabalen

Nekane Lazkanoren argazki erakusketa domekara arte dago zabalik Aroztegin. Garun-paralisiaren gaineko 24 argazki batu ditu argazkilari bergararrak. Bestalde, Jose Mari Larrañagak eta Anton Arrillagak pintura erakusketa jarri dute Masterrekako Nahikari tabernan, hilaren 31ra arte. Eta Juan Gonzalez Cuestaren koadroak Artekaleko Raizabal gozotegian ikus daitezke.

## Shamadi Yoga Elkartearen ikastaroak eta zeramika eskolak Arrietarekin aste barruan eta zapatuetan

Urte berriarekin batera antolatutako ikastaroen artean, Shamadi Yoga Elkarteak laster nidra-yoga erakusten hasiko dutela iragarri du. Argibideak 629 23 57 53 telefonoan. Xanti Arrietak, berriz, zeramika eskolak ematen ditu aste barruan eta zapatuetan. Gaztetxoendako eta helduendako taldeak. Izen-ematea eta argibideak 656 77 85 91 (Xanti) telefono zenbakian.

## Taila ikastaroa, bertso eskola, euskal dantzak eta salsa ikastaroa gaztetxean datozen asteotan

Gaztetxeak hainbat ikastaro antolatu ditu. Tailarena urtarrilaren 18an jarri zuten abian eta apirilaren 18ra arte eguaztenero izango dira eskolak, 18:00etan. Egurra lantzeko oinarrizko teknikak ikasi eta euskal taila klasikoa deritzona jorratuko dute. Bertso eskola otsailetik aurrera izango da, egubakoitzetan; euskal dantzak otsailaren 4an hasiko dira; eta salsa ikastaroa, otsailaren 11n.

## Ortu ekologikoaren gaineko ikastaroa San Juan auzoko elkartean, otsailaren 7an hasita

Udaleko kultura zerbitzuaren eskutik, ortu ekologikoaren gaineko oinarrizko ikastaroa izango da San Juan auzoko elkartean, otsailaren 7an, 9an, 13an eta 14an, 17:00etatik 21:00etara bitartean. Biolurreko kideek emango dute ikastaroa. Argibideak kultura etxean, Errotalde jauregian, edota 943 77 91 58 telefono zenbakian jaso ditzakezue.


HEZKUNTZA-SISTEMA ERABAT BERRIA BERGARAN
PROIEKTU BERRITZAILE ETA AURRERAKOIA
Ateak irekitzen
mugak eta paretak botatzen
eraikuntza eta proiekto berria
mundura zabaltzen
"Aranzadi ikastola" konfidantza
osoakin aurrera jarraitzen.
ARANZADI ikastola
Kalitatezko Euskal Heziketa
0 urtetik 6 urte arteko
PROIEKTU PSIKOPEDAGOGIKO BERRITZAILE ETA AURRERAKOIA
FAMILIA
ADINEN ARTEKO INTERKOMUNIKAZIOA
NORBANAKOAREN ERRITMOA
BANAN-BANAKO HEZIKETA
ZAINTZAILEAREN ZAINKETA
BILERA INFORMATIBOA:
urtarrilaren 30ean, arratsaldeko 18:30ean
Aranzadi Ikastolan (sarrera Haurtxoa ondoko atetik)
IKASTOLA BERRITZEN
Aranzadi Ikastola
0 urtetik 18 urte arteko
KALITATEZKO EUSKAL HEZIKETA
Proiekturako AHOLKULARITZA: Rafael Cristobal, haur psikoterapian aditutako psikiatra, EHUko eta MUko irakasle ohia, "Fundamentos del ser humano: una psicología para educadores" eta "El niño en la mirada del conocimiento. Una pedagogía de la confianza", liburuen egilea.
ARLO ARKITEKTONIKOAREN ARDURADUNAK:
beb arkitektoak
Garazi Mendizabal
Silvia Staffolani
Matrikulazio epea irekita
urtarrilaren 30etik otsailaren 10era
Herri Lagunak 1 • 20570 BERGARA
Tel. 943 76 90 71 • bergara@ikastola.net • www.aranzadiikastola.org

# Ate irekiak ikastetxeetan, matrikula zabaldu aurretik

## Gaurtik martitzenera arte ekitaldiak egingo dituzte herriko eskolek euren proiektuak erakusteko

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Urteko egunik garrantzitsuenak dituzte herriko ikastetxeek. 2012-13 ikasturtean eskolan hasiko direnen izenak batzeko matrikula epea zabaltzear dago. 2-16 urte arteko ikasleen izena emateko epea urtarrilaren 30etik otsailaren 10era izango da ikastetxe guztietan. Hori horrela, euren proiektu pedagogikoak eta eraikuntzak erakusteko ate irekiak egingo dituzte datozen egunetan. Gelak zabaldu eta askotariko ekitaldiak egingo dituzte gaurtik martitzenera arte.

### Txantxiku Ikastola

Ate irekiak egiten lehena Txantxiku Ikastola izango da. Gaur, egubakoitza, 0-6 urte artekoen gelak zabalduko dituzte, 17:00etatik 19:00etara arte: gelak ikusi, ikasturte berriko lagunak eta irakasleak ezagutu... Tarte horretan, Patxin eta Potxin pailazoek ikuskizuna egingo dute; euririk ez bada jolaslekuan, eta, bestela, areto nagusian.

Astelehenean, hilaren 30ean, batzar informatiboa egingo dute. Ikastolaren proiektu pedagogikoa eta funtzionamendua aurkeztuko dituzte, 18:30ean, aretoan. Hitzaldia dagoen artean, haurtzaindegi zerbitzua egongo da 8 urte arteko umeendako.

### Elkar Hezi eta Herri Eskola

Bihar, zapatua, Elkar Hezik eta Errekalde Herri Eskolak zabalduko dituzte ateak.

Elkar Hezik 12:00etan zabalduko ditu ateak. Gelak erakutsiko diete bertaratzen diren guztiei, eta luncha izango dute mokadutxoa hartzeko. Dena den, ate irekietara joan ezin dutenek aukera dute gelak beste edozein unetan ikusteko, 943 71 82 72 telefonora deituta.

Ate irekien aurretik, 11:00etan, musikoterapia tailerra egingo dute 0-3 urte arteko haurrendako eta euren gurasoendako: musika tarteko, umeen suspertze goiztiarra landuko dute; eta sukaldaritza ikastaroa, 3-6 urte arteko umeendako.

Eskola publikoan 17:00etan egingo diete ongietorria umeei. Bideoak, jokoak, txokolate-jana, magia ikuskizuna eta tailerrak egingo dituzte: besteak beste, bitxigintza, birziklatze, dantza, eta makillaje ikastaroak.

### Hezkultur

Zuazola-Larraña Institutuak ere ate irekiak egingo ditu martitzenean, hilaren 31n, 18:30ean. Gainera, hurrengo astean VI. Hezkultur ospatuko dute. Hezkuntza eta kultura batzeko asmoz, askotariko ekitaldiak egingo dituzte: tailerrak, irteerak, hitzaldia, ETBra bisita...

**Matrikulazio epea: hilaren 30etik otsailaren 10era**

goienagida 2012 — OÑATI

**GUARDIAKO FARMAZIEN EGUTEGI ZUZENA**

MOZTU ETA GIDAN ITSATSI

| HILAB. | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| URTARRILA | 3 | 2 | 2 | 3 | 3 | 1 | 4 | 4 | 1 | 1 | 2 | 2 | 3 | 3 | 3 | 4 | 4 | 1 | 1 | 2 | 2 | 2 | 3 | 3 | 4 | 4 | 1 | 1 | 1 | 2 | 2 |
| OTSAILA | 3 | 3 | 4 | 4 | 4 | 1 | 1 | 2 | 2 | 3 | 3 | 3 | 4 | 4 | 1 | 1 | 2 | 2 | 2 | 3 | 3 | 4 | 4 | 1 | 1 | 1 | 2 | 2 | 3 | XX | XX |
| MARTXOA | 3 | 4 | 4 | 4 | 1 | 1 | 2 | 2 | 3 | 3 | 3 | 4 | 4 | 1 | 1 | 2 | 2 | 2 | 3 | 3 | 4 | 4 | 1 | 1 | 1 | 2 | 2 | 3 | 3 | 4 | 4 |
| APIRILA | 4 | 1 | 1 | 2 | 2 | 2 | 2 | 2 | 2 | 4 | 1 | 1 | 2 | 2 | 2 | 3 | 3 | 4 | 4 | 1 | 1 | 1 | 2 | 2 | 3 | 3 | 4 | 4 | 4 | 1 | XX |
| MAIATZA | 4 | 2 | 2 | 3 | 3 | 3 | 4 | 4 | 1 | 1 | 2 | 2 | 2 | 3 | 3 | 4 | 4 | 1 | 1 | 1 | 2 | 2 | 3 | 3 | 4 | 4 | 4 | 1 | 1 | 2 | 2 |
| EKAINA | 3 | 3 | 3 | 4 | 4 | 1 | 1 | 2 | 2 | 2 | 3 | 3 | 4 | 4 | 1 | 1 | 1 | 2 | 2 | 3 | 3 | 4 | 4 | 4 | 1 | 1 | 2 | 2 | 3 | 3 | XX |
| UZTAILA | 3 | 4 | 4 | 1 | 1 | 2 | 2 | 2 | 3 | 3 | 4 | 4 | 1 | 1 | 1 | 4 | 1 | 4 | 1 | 4 | 4 | 4 | 1 | 4 | 1 | 4 | 1 | 1 | 1 | 4 | 1 |
| ABUZTUA | 4 | 1 | 4 | 4 | 4 | 1 | 4 | 1 | 4 | 1 | 1 | 1 | 1 | 4 | 4 | 2 | 3 | 3 | 3 | 2 | 3 | 2 | 3 | 2 | 2 | 2 | 3 | 2 | 3 | 2 | 3 |
| IRAILA | 3 | 3 | 2 | 3 | 2 | 3 | 2 | 2 | 2 | 3 | 2 | 3 | 2 | 3 | 3 | 3 | 2 | 2 | 3 | 3 | 4 | 4 | 4 | 1 | 1 | 2 | 2 | 3 | 1 | 1 | XX |
| URRIA | 1 | 4 | 1 | 1 | 1 | 4 | 4 | 4 | 3 | 2 | 2 | 3 | 3 | 3 | 4 | 4 | 1 | 1 | 2 | 2 | 2 | 3 | 3 | 4 | 2 | 1 | 1 | 1 | 2 | 2 | 3 |
| AZAROA | 1 | 4 | 4 | 4 | 1 | 1 | 2 | 2 | 3 | 3 | 3 | 4 | 4 | 1 | 1 | 2 | 2 | 2 | 3 | 3 | 4 | 4 | 1 | 1 | 1 | 2 | 2 | 3 | 3 | 4 | XX |
| ABENDUA | 4 | 4 | 1 | 1 | 2 | 4 | 3 | 3 | 3 | 4 | 4 | 1 | 1 | 2 | 2 | 2 | 3 | 3 | 4 | 4 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 3 | 3 | 4 | 4 | 4 | 4 |
| HILAB. | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 |

*Gaueko guardiak Arrasateko farmazietan izango dira.*

*1. ANDUAGA San lorenzo 3. Tel.: 943 78 21 16*
*2. AMAIA IGARTUA Kale zaharra 1. Tel.: 943 78 01 22*
*3. GARATE Kale barria 42. Tel.: 943 78 05 58*
*4. JULDAIN Kale barria 6. Tel.: 943 78 11 28*

Interneten
**PDF formatuan eskuragarri, deskargatu!**
*www.goiena.net/gida*

Informazio orokorra: *www.cofgipuzkoa.com*

# Argentinarako 31. edukiontzia bidalita, materiala batzen hasiko dira berriro ere

M.B. | OÑATI

Argentinako inportazio sisteman egindako aldaketengatik, urritik atzeratutako edukiontzia Argentinarako bidean dago jadanik. Asteon –martitzenean– kargatu dute Ulman eta dagoeneko hasi du bidea. 31. edukiontzian bidali duten materiala hainbat lekutan banatuko dute: kaxa batzuk, Jose C. Pazen eta inguruko herrietan; eta beste kaxa batzuk, Jujuy probintzian.

Azken horiek agustindarrek banatuko dituzte, hango parrokiako kideen eskutik. Hurrengo edukiontzia maiatzean edo ekainean bidaliko dute.

### Bidebarrietako lokala

Bestalde, otsailaren 1ean hasiko dira Hermansoloñako kideak materiala batzen berriro ere. Bidebarrietako lokalean egongo dira eguaztenetan eta eguenetan 18:30etik 20:30era arte.



Ulmako langileak Argentinako edukiontzia kargatu ondoren. | JOSE A. URTEAGA

# Hitzik gabeko antzezlana 3-6 urte arteko umeendako

M.B. | OÑATI

Teatro Teloncillo taldeak umeendako antzezlana egingo du domekan, hilaren 29an, 17:00etan: *Los animales de Don Baltasar*. 3-6 urteko artekoendako antzerkia da eta 17:00etan hasiko da.

Antzezlan berezia da: hitz bako ikuskizuna. Onomatopeiak, irudiak eta musika dira nagusi. Komunikazioari eta harremanei buruzko antzezlana da, hitz barik besteen bihotzetara nola heldu erakusten duen ikuskizuna.

Taula gainean aktoreak eta animaliak izango dira protagonista. Animalien mundua, koloreak, hizkiak eta garraioen mundua landuko dituzte umorearekin eta jolasekin.

# Beira birziklatzen erakusteko karpa

M.B. | OÑATI

Debagoieneko Mankomunitateak beira birziklatzeko karpa ipiniko du gaur, egubakoitza, Foru plazan 17:00etatik 20:00etara. Karpa ibiltaria da, hondakinen sorreraren prebentzioaren erakusketa moduan. Bi aditu egongo dira azalpenak ematen, eta jolasak eta bestelakoak egingo dituzte.

Karpan beira birziklatzeko prozesua eta haren onurak azalduko dituzte. Horrekin batera, edukiontzi berdeetan beirazko poteak, beirazko botilak eta beirazko flaskoak bakarrik bota daitezkeela ere erakutsiko dute. Aldiz, ezin dira bota portzelanak, zeramikak, txapak, tapoiak, edalontziak, fluoreszenteak, kopak...

## Urtarrileko elkarretaratzea egingo dute gaur plazan

Urtarrileko azken egubakoitza izanik, elkarretaratzea egingo dute gaur, 19:30ean, plazan. *Eskubide guztiekin, euskal presoak Euskal Herrira! Kaleak bete, kartzelak husteko!* lelopean batuko dira.

Bestalde, bihar, 11:00etan, presoen aldeko herri mugimenduari buruzko batzarra egingo dute institutuko sotoan.

## Goiena telebista ondo ikusteko konponketak egin dituzte

Muruko seinalean zauden arazo bat tarteko, Oñatiko hainbat etxetan ez duten Goiena telebista ikusten. Asteon egin dituzten konponketak, eta dagoeneko ondo hartzen da seinalea. Dena den, telebista piztu eta Goiena telebista ikusten ez duten etxeetan, berriro sintonizatu beharko dute kanala.


guk,
elkar hezi
URTARRILAK 28, ZAPATUA
L.H.ko
eraikinean,
ATE IREKIAK
12:00etatik 14:00ak arte
11:00etan
musikoterapia tailerra
11:00etan
sukaldean elkarrekin
eta ondoren...luntxa
L.H.ko
eraikinean
17:00etan
magia tailerra
otsailak 2, eguena
L.H.ko
eraikinean
18:30-20:00
erlaxazio teknikak familian
otsailak 7, martitzena
ikastaroetan izena emateko:
idazkaritza@elkarhezi.com haurtzaindegia: 943718272
ELKAR HEZI
Euskadi
ikastetxea



Berdintasun Zerbitzuko teknikaria eta arkitektoak erretiratuekin batzarrean, martitzenean. | M.A.

# Herrian hobekuntzak egiteko iritziak jaso dituzte

## Berdintasun Zerbitzuko kideek batzarrak egin dituzte hainbat herritarrekin eta orain txostena osatuko dute

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Udaleko Berdintasun Zerbitzua, Emakunderen laguntzarekin eta Udaleko beste arlo batzuekin elkarlanean, genero ikuspegia kontuan hartutako hirigintza ikerketa egiten dabil. Hainbat talderekin elkartu da azken asteotan, eta martitzenean egin zuten azken bilera, erretiratuekin hain zuzen. Orain, jasotako iradokizunak aztertu, eta txosten batean jasoko dute guztia, Hirigintza Sailera bideratzeko.

**Guztiendako moduko herria**

Herritar guztiak inolako arazo barik mugitzeko moduko herria izatea Aretxabaleta da asmoa, gizon edo emakume izan, gazte edo adineko, norberak bizi duen egoera bizita ere –ezintasunen bat, umedun edo gurpildun aulkia ibili beharra…– traba barik mugitu ahal izatea. "Herritarrek espazio publikoan parte hartzeko berdintasun baldintzak bermatzea da helburua eta hirietako ekimen -estrategietan erabakiak hartzeko garaian aldeak murriztea", diote Berdintasun Zerbitzuko kideek. Hala, Berdintasun teknikaria, bi arkitekturen laguntzarekin, herritarren iritzia jasotzen ibili da azken hilabetean, eta batzarrak egin dituzte honako taldeekin: herritarrak (zabalik guztiei); adinekoen zaintzaileak; institutuko gazteak; kirol esparruan dabiltzan kideak; eta erretiratuak. Horrez gain galdetegia jarri zuten edonoren eskura, herriaren gaineko hainbat galdera erantzuteko.

Talde horiekin guztiekin bost gai landu dituzte: irisgarritasuna –kale eta eraikinetako trabak…–; mugikortasuna –kalean eta ibilbideetan pasatzeko zailtasunak…–; zerbitzuak eta ekipamenduak; segurtasuna –eta segurtasun eza–; eta adierazpen sinbolikoa –kaleen izenak…–. Eta jaso dituzte herrian atzemandako gabeziak, trabak, zuzendu beharrekoak eta hutsuneak. Jasotako eskaeren artean daude: zebra-bide gehiago hainbat kaletan; adinekoei egokitutako plazak; Txarapeara igotzeko eskailera desegokiak; Urkulurako bidegorrian konpondu beharreko kontuak; bizikleta eta oinezkoen bateraezintasuna bidegorrian; autobus zerbitzua hobetu beharra Donostiara eta Bilbora…

**Hirigintzara bideratu**

Jasotako eskaera, iradokizun eta iritzi guztiekin txostena osatuko dute orain eta Hirigintza Sailera bideratuko dute gero. "Hirigintza arloko kontuak garatzerakoan herrian zein irizpide erabili zehaztuko du txosten horrek; horrela, berdintasuna kontuan hartuta garatzeko", diote Berdintasun Zerbitzuko kideek.

Bestalde, Olaia Sagredo Berdintasun zinegotziak onartu du jasotako eskaera eta iradokizunak egun batetik bestera ezingo direla abian jarri: "Poliki-poliki garatuko dira, eta aurrera begira nondik jo zehaztuta geratuko da txosten horretan".

## Odol-ateratzeak datozen bi astelehenetan

**M.A.** | ARETXABALETA

Arabako Odol Bankuko kideak izango dira datozen bi astelehenetan, urtarrilak 30 eta otsailak 6, osasun etxean (16:30 -20:00) odola ateratzen.

*Lagun bat ekarri* kanpaina jarri du abian oraintsu Euskadiko Odol Emaileen Elkarteak, eta ohiko odol emaileei eskatu diete senide, lagun, lankide edo ezagunen bati odol-ateratzearen gaineko argibideak emateko eta parte hartzera animatzeko haiek. Hala, odolik ematen ez dutenek ekimenarekin bat egin eta odol ateratze kopurua igotzea gura dute.

## Kintoak hiru egunetan ibiliko dira eskean

**M.A.** | ARETXABALETA

1993an jaiotako neska-mutilak izango dira Santa Ageda eskean eta kantuan ibiliko direnak aurten, eta bi egunetan beharrean hirutan ibiliko dira, gainera. Otsailaren 3an, egubakoitza, denda, lantegi eta ikastetxeetara joko dute –Santa Ageda bezpera eta eguna aste bukaeran direlako–; otsailaren 4an, zapatua, baserri guztietara; eta 5ean, domeka, kaleko etxeetara. Egun horretan, ohi bezala, dantza saioa eskainiko dute Herriko Plazan (19:00).

# 'Euskeraren espektakulua' bihar, Oihan Vega irrati esatariak bideratuta

## Hainbat herritarrekin grabatutako esketxak eskainiko ditu Loramendik

**M.A.** | ARETXABALETA

Oihan Vega irrati esatari eta musikari bergararrak aurkeztu eta bideratuta, *Euskeraren espektakulua* dator bihar, zapatua, Arkupeko Zaraia aretora. Hiru saio egingo dituzte (17:00, 18:30 eta 20:00), baina sarrera gehienak banatuta daudela aurreratu dute; astean banatu ez direnak Arkupeko harreran izango dituzte.

**Hausnarketarako esketxak**

Loramendi Elkarte barruan iaz sortutako Sustapen Taldeak gertatu duen ikuskizuna da *Euskeraren espektakulua:* "Aretxabaletarrok euskararekiko dugun jarreraren gainean hausnartzeko", hain zuzen.

Kepa Errasti aktore aretxabaletarrak zuzenduta, askotariko egoerak jasotzen dituzten hainbat esketx grabatu dituzte herritarrekin: "Geure buruari barre egiteko egoerak agertuko dira, umore handiarekin kontatuak", diote Loramendiko kideek. Baina ez dute askoz gehiago aurreratu gura, "harrituta gera daitezen ikusleak".




Esketxetako baten irudia: herritar bi futbol zelaian. | LORAMENDI

Umore giroan gertatu eta hausnarketarako bide izan gura duen ikuskizuna bideratzeko gonbidatu dute Oihan Vega irrati esatari ezaguna. Hala, esketx arteko tarteak beteko ditu hark, eta ordubete inguruko saioa borobildu. Helduendako ikuskizuna dela aurreratu dute antolatzaileek.

## OHARRAK

**'EUNON' ANTZEZLANA**

Apropox proiektuak *Eunon* antzezlana eskainiko du domekan, hilak 29, Arkupen (19:30). Sarrera, 4 euro.

**KANDELERIO EGUNA**

Parrokiako kideek Kandelerio eguna ospatuko dute eguenean, otsailak 2. Bi meza izango dira eta ondoren kandelak bedeinkatuko dituzte: 09:00etan, monasterioan; eta 19:00etan, parrokian.

**'LA NANA' FILMA ZINE KLUBEAN**

Eguenean, hilak 2, *La nana* filma emango dute Arkupeko Zaraia aretoan (19:30). Sarrera, 4 euro.

**SAN BLAS EGUNA**

Otsailaren 3an, egubakoitza, San Blas eguna ospatuko dute Apotzagaetxebarri auzoko Salluente ermitan. Meza esan (10:30) eta jakiak bedeinkatuko dituzte. Parrokian ere esango dute meza ilunkaran (19:00) eta jakiak bedeinkatu.

## Kutxabankerako taldea osatzea onartu dute

**M.A.** | ARETXABALETA

Kutxabankeko hainbat organotan ordezkaritza izateko beste herri batzuekin batera taldea osatzea onartu zuen udalbatzak astelehenean egindako ezohiko osoko bilkuran. Herri hauek osatu nahi dute taldea: Bergara, Arrasate, Oñati, Antzuola, Aretxabaleta, Azpeitia, Amezketa eta Anoetak.

Bilduko zinegotzien botoekin onartu zuten; Aralarkoak abstenitu egin ziren, informazio falta egotzita, eta EAJko biek aurka bozkatu zuten: "Kanpotik bultzatutako ordezkaritza hori ez dator bat gure irizpideekin, eta ez dute gurekin kontatu". Alderdi sozialistako zinegotzia, ostera, ez zen izan bilkuran.

Datorren astelehenean, hilak 30, beste osoko bilkura bat egingo du udalbatzak, ohiko batzarra.

# 'Zast!' helduendako kontakizun musikatua gaur udaletxe zaharrean

Lau herritarrek osatutako taldetxoak musika eta testuak bateratuko ditu

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

*Zast!* izeneko ikuskizuna eskainiko dute gaur (22:30) goxo-goxo gertatutako udaletxe zaharreko atarian. Ipuinetatik abiatuta hainbat eratako testuak irakurriko dituzte, musika lagun. "Askotariko testuak daude, ipuinez gain, horregatik da kontakizun musikatuen ikuskizuna. *Zast!* izena jarri diogu ikuskizuna borobiltzen duen ideia saski-naskiarena delako", argitu du Beñat Zamalloa taldeko kideak, eta gaineratu: "Gure buruak diren saski-naski horretan dauden hari, orratz, artazi eta abarretatik atondutako ideiak, gogoak, doinuak eta letrak sortu eta bateratu ditugu".

**Erritmodun ikuskizuna**

Zamalloa aretxabaletarraren eta Maialen Arratibel arrasatearraren burutazioa izan da: "Udalekuetako begiraleak izan gara biok eta gauetan umeei ipuinak kontatzen genizkien goxo lokar zitezen. Begiraleei ere, gauetan eta udaleku ostean elkartzen garen hitzorduetan, kontatu izan dizkiegu. Eta aurten inoiz baino gogotsuago arituta, berotu eta zerbait egin behar genuela erabaki genuen", azaldu du. Hala, taldetxoa osatu dute: Arratibel, gitarrarekin eta kantuan; Zamalloa, kontalari; Martin Antxia, perkusioetan; Eñaut Zubizarreta, txeloan; eta Aitor Ziardegi, pianoan.


*Zast!* ikuskizuneko kideak: Antxia, Zamalloa, Arratibel eta Zubizarreta. | ZAMALLOA

ESANAK

**"Askotariko testuak daude, ipuinez gain"**

BEÑAT ZAMALLOA | KONTALARIA

Ikuskizun entretenigarria izango dela aurreratu dute. "Ez da erlaxazio ikuskizun lasaia izango. Saiatuko gara erritmoa, positibismoa eta puntutxo ganberroa ere ematen. Denetik dugu gure buruetan, gure saski-naskian, eta bizitzan askotik den bezala, argitik eta ilunetik".

Ikuskizunerako sarrera borondatearen truke emango dute, "geuk antolatu eta geuk autofinantzatutako ekimena da eta". Ondoren Arrasateko gaztetxean (otsailaren 4an, 18:00) eta Eskoriatzan ere eskainiko dute *Zast!*

# 'Konkistak 500 urte, deuseztatu ezin izan zuten oroimena' hitzaldia otsailaren 2an

M.A. | ARETXABALETA

1512-2012 Nafarroa Bizirik ekimeneko kide Patxi Abasolo gonbidatu dute Kurtzebarri eskolako kideek gurera, eta berbaldia egingo du eskolan bertan, otsailaren 2an, eguena (18:00): *Konkistak 500 urte, deuseztatu ezin izan zuten oroimena*. Historia kontuetan aditua da Abasolo.

Nafarroako erresumaren nondik norakoen berri emango du; tartean, jakinaraziko du estatu batek dituen eskubide guztiak izan zituela 1512a artean, eta ondoren etorri zirela mendekotasun politikoa, soziala eta ekonomikoa.

Eskolako guraso, irakasle eta interesa duten herritar guztiei dago zabalik.

## ATXABALTA LEHIAKETA

**Hartu parte eta irabazi hainbat sari** — Loramendi

7. Ze izen abizen ditu "Loramendi" ezizenaz ezagutzen den poeta euskaltzaleak?

8. Zein ez da sinonimoa?
a) librau b) jaregin c) askatu d) loratu

**Erantzunak eta zure datuak** (moztu azpialdea) Loramendi Elkartera ekarri (16:00-20:00) edo bidali hona: Aretxabaletako 96 posta-kutxa edo *lehiaketatxabalta@gmail.com*.

7:________ 8:________
Izen-abizenak:________ Tel.: ________
**Azken eguna: Otsailaren 3a.**

**Aurreko galderen erantzunak:**
5: **a)** Arratabe jauregian.
6: "Gutxiegia eta larregia... **beti kaltegarria**.


Pausoka HAUR ESKOLA

2011-2012 ikasturtea

Izena ematea: urtarrilaren 30etik otsailaren 10era

**Ordutegia:** 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara




TALDE EGOKITUAK
- 0 eta 3 urtera arteko haurrak talde egokituetan

ORDUTEGI ZABALA
- 07:30etik 18:00etara
- Ordutegia moldatzeko aukera

JANGELA ZERBITZUAK
- Bertan gertatutako janaria
- Haur bakoitzari egokitutako dieta

EGUTEGI ZABALA
- Egutegi eskolarraz gain, Gabonetan, Pazko astean eta Uztaila zabalik.

LOGELA



*Txiki txikitatik jolasten heziz*

**BELORRIETA 8. ARETXABALETA. Tel.: 943 77 03 77**

# Aurrekontuaz jardungo dute berriz hilaren 31n

Onartu berri dituzten kontuen gaineko azalpenak ematekoa zen atzo alkatea eskoriatzarrei

**MIRIAN BITERI** | ESKORIATZA

Buru-belarri dabil Udal Gobernua gertatutako kudeaketa plana eta aurrekontua eskoriatzarrei azaltzen. Atzo iluntzean bilera zen egitekoa, eta Beñat Herce alkateak udalerriko egungo egoera azaltzeaz gain, Eskohitza prozesuaren bidez arloka jasotako ekarpenak, udalbatzak onartu berrien duen aurrekontua eta horren harira dauden aurreikuspenen gaineko azalpenak emateko asmoa zuen, besteak beste.

Aurrekontuei dagokienez, esan zuen errealitatetik gertuen izango den estimazioa egiten saiatu direla, Udalak dituen helburu eta horiek lortzeko egingo diren ekintzen arabera. Horren harira, adierazi zuen gastuak sarreretara mugatu direla, eta aurtengo estimazioa 5.053.066 eurokoa dela. Iazko estimazioa 6.191.666 eurokoa zen, eta azkenean gastatutakoa 6.840.817 euro izan ziren.

**Zorpetzea baztertuta**

Jaitsiera horren atzean sarreren murrizketa "nabarmena" eta zorpetze "garrantzitsuena" daudela esan zuen, eta asmoa gastua eta inbertsioa mantentzea dela aipatu zuen; hirigintza, kultura eta elizate arloetan igartzen da bereziki jaitsiera hori. Dena dela, nabarmendu zuen aurreko urteotako aurrezkiak erabiliko dituztela, hurrengo urterako ere utziaz; horrek hainbat aldaketa eragingo ditu estimazio horretan. Horrekin batera, ohartarazi zuen egoera ekonomikoa aldatzen ez bada, aurrezkiak agortuko direla.

Atzoko batzarrera joatea ez zutenendako beste bilera bat antolatu dute hilaren 31rako, 19:30ean, Ibarraundi museoan.



**AITOR URRUTIA**
EAJ

"Osoko bilkuran gure botoa ezezkoa izan da. Alde formaletik ez gaude ados nola eroan den prozesua. Bestetik, aurrekontuak makillatuta daude. Pertsonalaren kapitulua %10 igotzen da alkatetzako oinarrizko ordainsariek %34 gehiago ekartzen dutelako, eta, bitartean, zerbitzu gutxiago ematen dizkiegu herriko elkarteei. Bestalde, Zaldibar antzokia da inbertsio bakarra; diru hori beste hainbat gauzatan sar daiteke".



**JOSE LUIS CANTERO**
PSE-EE

"Kontra bozkatu dugu. Ez da Eskoriatzak behar duen aurrekontua, izaera antisoziala, ez solidarioa eta aurreikusi ezin daitekeena duelako. Udaleko diru-kutxa zalantzan jartzen du. Horrez gainera, udalerriko ekonomia eta enplegua sustatzeko ekintzarik ez da aurreikusten. Bestalde, gizarte arloko partidak murrizten dituen neurrian, alkateak eta alkateordeak euren soldata %7,5etik gora igotzen dute. Lotsagarria da".



**JUAN LUIS MERINO**
ESKORIATZAKO EZKERRA

"Abstenitu egin gara. Gizarte izaera baino gehiago, izaera politikoa du aurrekontuak. Liberatuen soldata izugarri igo da eta herriko hainbat elkartetarako dirulaguntza, aldiz, murriztu: esaterako, etxez etxeko arreta zerbitzua eta, besteak beste, gurasoen elkarte eta ikastetxeendako laguntzak bertan behera utzi dituzte. Enpleguari dagokionez, ez du inongo partidarik aurreikusi. Eta ez dago inbertsiorik. Adibideak baino ez dira aipatutakoak".

**AURREKONTUA ARLOKA**

| ARLOA | 2011* | 2012 | ALDEA |
|---|---|---|---|
| Obra eta Zerbitzuak | 1.054.463 | 1.024.929 | %-2,80 |
| Hirigintza | 1.652.835 | 338.560 | %-79,52 |
| Euskara | 227.090 | 188.191 | %-17,13 |
| Gazteria | 135.992 | 133.868 | %-1,56 |
| Hezkuntza | 181.709 | 179.884 | -%1 |
| Kirola | 247.247 | 254.121 | %2,78 |
| Kultura | 189.115 | 115.593 | %-38,88 |
| Liburutegia | 87.664 | 86.820 | %-0,96 |

| ARLOA | 2011* | 2012 | ALDEA |
|---|---|---|---|
| Garapen | 165.732 | 120.185 | %-27,48 |
| Gizarte | 410.697 | 428.499 | %4,33 |
| Parte Hartzea | 134.720 | 141.446 | %4,99 |
| Ogasuna | 15.156 | 19.000 | %25,37 |
| Orokorra | 1.635.333 | 1.524.792 | %6,76 |
| Elizateak | 278.665 | 37.300 | %-86,61 |
| Beste erakunde batzuk | 424.398 | 459.878 | %8,36 |
| **GUZTIRA** | **6.840.817** | **5.053.066** | **%-26,13** |

*Oharra: 2011 atalean, iaz gastatutakoa dator, urte horretako aurrekontuaren estimazioa 6.191.666 eurokoa bazen ere. 2012 atalean, aurtengo estimazioa dator.

ITURRIA: ESKORIATZAKO UDALA



Joan den urtean Aingeru Guardan landatu zituzten arbolak. | GOIENA

## San Pedro auzoko parkean 50 bat zuhaitz landatuko dituzte etzi

**M.B.** | ESKORIATZA

Aurten ere Zuhaitz Eguna egingo dute herrian. Etziko, domeka, jarri dute hitzordua, 10:30ean, Ibarraundi museoan. Parte hartzen duen eskoriatzar bakoitzak zuhaixka hartuko du, eta jarraian, San Pedro auzoko parkerantz abiatuko dira guztiak batera, landatzera. Urteroko ekintza da Zuhaitz Eguna. Urtean zehar udalerrian jaiotako ume bakoitzeko zuhaitz bat landatzean datza esandako ekintza. Ibarraunditik azaldu digutenez, iaz 50 ume inguru jaio zirela kontuan izanda, gutxienez beste horrenbeste arbola landatuko dituzte.

Arbola bat landatzeko interesa izan dezakeen edonor dago ekintza horretara gonbidatuta.

## Eski irteera antolatu dute otsaileko bigarren asteburuurako

Eskoriatzako Kirol Elkarteak eski irteera antolatu du aurten ere. Otsailaren 11ko eta 12ko asteburuan Luz Ardidenera joateko asmoa dute; prezioa 115 euro da, eta horren barruan, pentsio erdia, forfaita eta autobusa daude. Izena eman gura dutenek 943 71 43 27 edo 606 93 21 61 telefono zenbakira dei dezakete.

## Ikasleen arteko gatazkaz jardungo dute Luis Ezeizan

Andoni Colas psikologo gasteiztarrak *Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleen arteko gatazkak konpontzen* izeneko hitzaldia eskainiko du martitzenean, urtarrila 31, Luis Ezeizan. Gurasoei zuzendutako berbaldia gazteleraz izango da, eta 18:30ean hasiko da herri eskolako aretoan.

## Goio Arrietaren 'Sustraiak han dituenak' unibertsitatean izango da gaur

**M.B.** | ESKORIATZA

Goio Arrieta eskoriatzarrak *Sustraiak han dituenak* izeneko bakarrizketa aurkeztuko du gaur, egubakoitza, 22:30ean, unibertsitatean. Horretarako sarrera debalde izango da.

*Harri Irratixe* izeneko lanaren bigarren zatia da hori, eta, bakarrizketa horretan, bideoklipak, musika, umorea eta omenaldiak tartekatuko ditu. Honela azaldu du Arrietak lana: "Atzera begirako bat da; oso bizkor bizi gara egun eta etenaldietxoa egitea komeni izaten dela uste dut. Aurrera begiratu beharra dago, baina nondik gatozen ahaztu barik, hau da, norberaren sustraiak ahaztu barik".

## OHARRAK

**KIROL HITZORDUAK**

Norgehiagoka bi daude bihar, kiroldegian. 16:00etan, areto futbolean, etxeko gazteak Calasanzen kontra lehiatuko dira; eta 18:00etan, areto futboleko 1. erregionalean, Eskoriatza eta Bobys Bar Nanclares.

**GAZTEAK ESKIATZERA**

Eskiatzera joango dira bihar herriko gazteak. Valdezcarayra egingo dute irteera.

**MUS TXAPELKETA**

Euskal Herriko Mus Txapelketarako lehen kanporaketa egingo dute etzi, Inkernu, 16:00etan. Inkernun eman daiteke izena, bikoteko 20 euro ordainduta.

**URETAKO PARKEA**

Uretako parkea egingo dute etzi: 16:00etan, 6 urtetik beherakoak izango dira, lagunduta; 17:00etan, 7 eta 9 urte artekoak; eta 18:30ean, hortik gorakoak.

# Herriko mus txapelketako finala domekan

M.A. | ANTZUOLA

Joan den aste bukaeran jokatu ziren herriko mus txapelketako hiru kanporaketak. Guztira, 22 bikotek hartu zuen parte. Bada, domekan jokatuko den finalerako txartela ondorengo lau bikoteek eskuratu dute.

Lehen postuan Igor eta Txarly, bigarrenean Nekane eta Agurtzane, hirugarrenean Serafin eta Anselmo eta laugarren postuan Felix eta Felix bikotea sailkatu ziren pasa den astean.

**Azken kanporaketa**

Gaur, barikua, 22:15ean, Gailur tabernan laugarren eta azken kanporaketa jokatuko dute. Horixe da, beraz, orain arte parte hartu ez duten bikoteendako domekako finalerako txartela lortzeko azken aukera.

**Domekan finala**

Arin jatetxean jokatuko da domekan, hilaren 29an, herriko mus txapelketako final nagusia. Bertan banatuko dituzte, gainera, herriko irabazleendako sariak, eta lurraldeko txapelketara joango diren bikoteak hautatuko dituzte. Lurraldekoaren ondoren, Euskal Herrikoa etorriko da: horretara joan ahal izateko aukera bakarra herrian sailkatzea da; horrenbestez, oraindik garaiz daude antzuolarrak.

# Ipuin kontaketa saioa heldu eta haurrendako

## Gaur eta domekan izango dira bi ipuin kontaketa saioak Albo eta Agirresarobe kontalarien eskutik

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Gaurko gauari berezitasuna, enkantua eta bizitasuna emango dio Alacantetik datorren Pablo Albo ipuin kontalariak. Helduendako ipuin kontaketa 22:30ean hasiko da, Torresoroan, gaztelaniaz; sarrera 3 euro da.

**Idazlea eta ipuin kontalaria**

Pablo Albok 1994an kontatu zituen lehen aldiz ipuinak jendaurrean. Idazlea eta blogaria dugu Albo: *Palabras* izeneko bitakoran bere pentsaerak eta hausnarketak irakurtzeko aukera ere ematen digu: *www.pabloalbo.blogspot.com*. Hitzen hezitzaile gisa aurkezten du bere burua. Ipuinek ez dutela adinik dio, baina adin bakoitzak bere ipuina daukala gaineratzen du blogean.

Umorez jantzitako ipuinak dira, baina azpian, barrenean, sakontasuna dutenak eta publikoari zer pentsa eragiten dioten istorioak dira. Gorputzez eta arimaz kontatzen ditu ipuinak, keinuekin eta begiradarekin.

Idazlea ere bada, eta haurrendako 27 liburu idatzi eta argitaratu ditu. Helduendako eleberriak ere argitaratu ditu: *Mar de sábanas* (2003); *Estela* (2008); *Marabajo* (2008); *Diógenes* (2008); *¿Rinoceronte?¿Qué rinoceronte?* (2009); *El último canto* (2010); eta azkena, *Gigante poco a poco* (2010).



Pablo Albo idazle eta ipuin kontalaria. | WWW.PABLOALBO.COM

**Haurrendako ere bai**

Eta, nola ez, herriko txikitxoenendako, Antzuolako liburutegiak eta Kultura Sailak antolatuta, domekan Ixabel Agirresarobe ipuin kontalariaren istorioez gozatzeko aukera egongo da. 4 eta 9 urte bitarteko haurrendako saioa da. Torresoroan egingo da, 18:00etan, domekan, eta sarrera doan da.

Ixabel Agirresarobe usurbildarra da. Esperientzia handiko kontalaria eta aktorea ere bada Agirresarobe. *Ipupomamua* umeendako saioan Hans Christian Andersen idazle handiaren ipuinak kontatzen eta *Wazemank* umorezko saio arrakastatsuan aktore lanetan ere izan da usurbildarra, besteak beste. Eta ezin ahaztu *Xabinaitor* antzezlan arrakastatsuan ere Alkain eta konpainiarekin Agirresarobek egindako lana.

1990ean hasi zen kontalari gisa eta dagoeneko makina bat liburutegi, gaztetxe, barnetegi, ikastetxe eta areto zapaldu ditu Euskal Herrian.

# GPS ikastaroan izena emateko epea zabalik dago otsailaren 8ra arte

M.A. | ANTZUOLA

Arrola mendi taldeak GPS ikastaroa antolatu du aurten ere. Baina, ikastaroa behar den moduan lotzeko eta antolatzeko, interesa dutenek, aurrez eman beharko dute izena.

Hala, otsailaren 8a, eguaztena, baino lehen eman beharko da izena e-mailez, ondorengo helbidera mezu bat bidalita: *arrolamt@gmail.com*; edo telefonoz deituta: 635 20 58 41 (Iker).

**GPS sistema ezagutuz**

Helburua GPS sistemaren oinarrizko kontzeptuak ikastea eta programa bera lantzea da. GPS sistemaren erabilera praktikatzeko aukera egongo da.

## OHARRAK

**PALA TXAPELKETA**

Gaur, nagusien larruzko pala txapelketaren hirugarren jardunaldiaz gozatzeko aukera egongo da. Olaldek eta Oianguk jokatuko dute, 20:15ean.

**FUTBOLA**

Antzuolak etxean jokatuko du 18. jardunaldia. Orioko taldea etorriko da Estalara. Zapatuan, 16:00etan.

# Otsailaren 28an jasoko dute baserri inguruetako plastikoa

## Supide azpialdeko aparkalekuan batuko dute

M.A. | ANTZUOLA

Debagoieneko Landa Garapen Elkarteak plastiko bilketa zerbitzuak izango duen 2012ko egutegia aurkeztu berri du. Hain zuzen ere, baserri inguruetan sortzen den plastikoa hilean behin jasoko dute, martitzenetan.

Antzuolan joan den urtarrilaren 14an egin zen urteko lehen plastiko bilketa, Supide azpialdeko aparkalekuan. Hurrengo bilketa otsailaren 28an, martitzena, egingo dute, Supide azpialdeko aparkalekuan bertan.

**Batuko den plastiko mota**

Baserri inguruetan sortu ohi diren lau plastiko mota batuko dira nagusiki, hauexek: siloa estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza; belar boletan erabiltzen den plastiko beltza; berotegietan eta ortuan lurra estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza; eta berotegietako plastiko zuria. Horrekin lotuta, kontuan hartu beharra dago plastiko sokak ez dituztela batuko.

**Bilketa egunak**

Hain zuzen, hilean behin batuko dute plastikoa, martitzen baten, arratsaldez.

Hauek dira hileroko hitzorduak: otsailak 28, martxoak 27, maiatzak 22, uztailak 24, irailak 25, azaroak 27 eta abenduak 18. Horiexek dira Debagoieneko Landa Garapen Elkarteak ezarri dituen plastiko bilketen egunak.

Bada, plastikoa arratsaldez utzi behar da, esandako lekuan; eta norbaitek beste lekuren baten utzi nahi badu, berriz, telefonoz deitu beharko du ondorengo telefono zenbakira: 943 76 25 47.

# Herritarrek odola eman ahal izango dute hilaren 2an

Antzuolako Odol Emaileen Elkarteak dei egin die antzuolarrei datorren eguenean, otsailaren 2an, 17:30ean Olaranera joan eta odola eman dezaten. Bada, bi baldintza bete behar dira: 18 urtetik gorakoa izatea eta 50 kilo baino gehiago pisatzea. Lehen aldiz doazenek osasun-galdeketa bete beharko dute.

# Eskolako patioan eta pilotalekuan txakurrik ez sartzeko eskatu du Udalak

Eskolako patioa eta pilotalekua jendearentzako kirol-gune eta aisialdirako gune direla azpimarratu gura du Udalak. Hala ere, azkenaldian gero eta gehiagotan ikusten dira txakurrak. Ondorioz, Udalak eskatu du animaliarik ez sartzeko bertan. Bide batez, gogorarazi nahi du ere txakurren kakak jabeek jaso behar dituztela.

# Armarri-sinbolo lehiaketako lanak ikusgai Olaranen

Antzuolako etorkizuneko armarri-sinbolorako ideien lehiaketa sarira aurkeztutako lanak ikusgai egongo dira datozen bi aste bukaeretan.

Hain zuzen ere, urtarrilaren 28an eta 29an eta otsailaren 4an eta 5ean erakusketa hori bisitatzeko aukera egongo da Olaranen, 18:30etik 20:30era.



Txapelketaren aurkezpenean elkartu ziren bertsolarien talde argazkia, Gasteizen. | ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

# Aramaiok asko du esateko koadrila arteko txapelketan

## Gasteizen jokatuko da lehen kanporaketa otsailaren 3an; finala Aramaion jokatuko da, martxoaren 24an

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARAMAIO

2012ko Arabako koadrila arteko bertso txapelketa aurkeztu zuten joan den aste bukaeran Gasteizen. Iaz banakako txapelketa jokatu ondoren, bi urteko zikloa jarraitzera dator taldekakoa. Bi txapelketa paralelo jokatuko dira: bat-batekoa eta idatzizkoa. Batean zein bestean, Aramaiok asko du esateko eta aurkeztu diren lau taldeetakoren bat finalera heltzen bada, etxean lehiatuko da. Izan ere, finala Aramaioko pilotalekuan jokatuko da, martxoaren 24an.

### Aramaiokoak bi modalitateetan

Bat-bateko modalitatean Arabako 12 taldek hartuko dute parte –guztira, 146 parte-hartzaile–, eta idatzizkoan, berriz, 24 taldek eman dute izena –guztira, 150 parte hartzaile–. Idatzizko txapelketan Aramaioko bi talde egongo dira: Gazte Asanblada eta abesbatza.

Bat-batekoari dagokionez, berriz, Aramaioko Marixeka eta Aramaioko Izarrak egongo dira. Marixeka koadrilaren barruan ondorengo bertsolariak arituko dira: Xabi Igoa, Andere Arriolabengoa, Maria Izaga, Beñat Burgi, Sabin Aranburu, Garazi Eriz, Iker Elexpuru, Xabier Agirre, Izar Elorza, Nerea Asurmendi, Miren Eriz, Markel Arriolabengoa eta Gillen Agirre.

Eta Aramaioko Izarrak taldearen barruan, bestalde, honako bertsolari hauek aurkeztu dira: Manex Agirre, Paula Amilburu, Beñat Zalakain, Iker Agirre, Ana Martiarena, Jon Ugarte, Mikel Muñoz, Amaia Lopez de Bergara, Maitane Uribe, Eider Ballina, Txomin Elorza eta Endika Ruiz de Samaniego.

> **DATUA**
>
> **36**
>
> TALDE, ARABA OSOTIK
>
> Bat-batekoan 12 talde izango dira eta idatzizkoan, berriz, 24. Guztira, 36 talde.

### Araban egin den "indartsuena"

Otsailaren 3an jokatuko da lehenen kanporaketa, Gasteizen. Ondoren atsedenik gabe jarraituko du txapelketak, aste bukaerero Arabako txoko ezberdinetara zabalduz. Aramaioko lehen kanporaketa, adibidez, otsailaren 4an jokatuko da; Marixeka elkartean, 20:30ean. Talde guztiak lau ligatan banatu dira. Liga bakoitzean hiru taldek hartuko dute parte: ondoren, liga bakoitzeko irabazleak lehiatuko dira finalerdietan. Eta finalerdietan ondoen aritzen direnak, martxoaren 24ko finalera sailkatuko dira.

Saio aurreko afarian parte hartzeko txapelketako webgunera jotzea gomendatu dute antolatzaileek: *www.arabakotxapelketa.org*, sarrerak atalean. Araban inoiz egin den txapelketa "parte-hartzaileena" eta "indartsuena" izango da, Arabako bertsozale elkartekoen arabera.



LIERNI ALTUNA

## Euskal Herriko mus txapelketa: Aramaiokoa jokatu da

Zapatuan jokatu zen Euskal Herriko mus txapelketako Aramaioko kanporaketa, Eki tabernan. Aurten sei bikotek hartu dute parte. Mikel Aiastui eta Dani Zaldibar izan ziren garaileak, baina Arabako txapelketan ezin izango direnez egon, finalista geratu ziren Ramon Nafarrate eta Unai Kortabarria joango dira haien ordez. Azken horien ordezko izango dira, azkenik, iazko Arabako txapeldunak: Igor Aiastui eta Kepa Etxebarria.

# Santa Ageda bezperako tradizioari eutsi guran

## Bizente Goikoetxea abesbatzak deialdi zabala egin du aurten: otsailaren 1ean, entsegu orokorra

**J.B.** | ARAMAIO

Bizente Goikoetxea abesbatzako kideek deialdi berezia egin dute Santa Ageda bezperari begira. Tradizioari eutsi gura diote, eta, korutik haratago, herritarrei dei egin diete otsailaren 4rako prestatu duten egitarauarekin bat egin dezaten.

Nola? Bada, datorren eguaztenerako, otsailak 1, entsegu orokorra deitu dute udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 20:30ean: "Duela hilabete inguru pentsatu genuen ondo egongo litzatekeela abesbatzako kideez gain herritarrek ere parte hartzea Santa Ageda bezperako ekitaldietan", adierazi du Bittor Kortabarria abesbatzako presidenteak. Kortabarriak dioenez, abesbatza zahartzen ari da eta tradizioari eutsi gura diote: "Ez dugu Santa Ageda bezperako tradizioa itzaltzerik nahi, indar berezia eman eman gura diogu". Datorren urtean bertso eskolakoek ere parte hartuko dutela jakinarazi du Bizente Goikoetxea abesbatzako presidenteak.

### Otsailaren 4an, egun osoz

Orain arte arratsaldez irten izan dira kantuan, baina aurten, zapatua dela aprobetxatuz, egun osorako egitaraua prestatu dute, Santa Ageda bezperarako. Goizean zehar auzoetako baserrietan ibiliko dira kantuan: 10:00etan batuko dira plazan eta, besteak beste, Matxin kale, Eguzkierripa, Arraga, Errotabarri eta Zalgo inguruan arituko dira eztarriak berotzen.

Denok batera bazkaldu ostean, arratsaldean Ibarra auzoan egingo dute kantuan.



Bizente Goikoetxea abesbatzakoak entsegu baten. | J.B.

### Martxoaren 8rako kartel lehiaketa antolatu du Udalak; entregatzeko azken eguna, otsailaren 23a

Martxoaren 8a dela-eta kartel lehiaketa antolatu du Udalak. Gizarteko arlo guztietan Aramaioko emakumeen eskubideen defentsa bultzatzeko antolatu dute lehiaketa. Ekimen horretan, Aramaion jaiotako edo bertan bizi den edonork har dezake parte. Kartelak otsailaren 23ko 15:00ak baino lehen aurkeztu behar dira, udaletxean. Argibide gehiagorako: 945 44 50 16.

### Lagunarte dantza taldeak euskal dantzen ikastaroa hasiko du gaur, ikasturte amaierara arte

Gaur hasi eta ikasturte amaierara arte Lagunarte dantza taldekoek euskal dantzen ikastaroa antolatu dute. Hala, hirugarrenez egingo dute euskal dantza ezagunenak erakustea helburu duen ekimena. Hamar euro ordaindu beharko da ikasturte osorako izen-ematea. Gaur bertan San Martin eskolako gimnasiora joatea nahikoa da izena emateko, 18:15ean. Antolatzaileek jakinarazi dute geroago ere eman daitekeela izena.

### Memoria lantzeko tailerra antolatu guran dabil Udala, 60 urtetik gorako aramaioarrendako

Leire Espinosa Zuiako Koadrilako eta Aramaioko Gizarte langileak jakinarazi duenez, memoria lantzeko ikastaroa antolatu guran dabil Aramaioko Udala. Lurgorri eguneko zentroan lanean diharduen KL kooperatibak emango luke tailer hori: oroimena, arreta, oreka eta gorputz jarrera landuko lirateke, besteak beste. Izen-ematea ireki dute; udaletxeko bulegoan, otsailaren 15a baino lehen. Taldea mugatua izango dela aurreratu dute.

ELGETA

# Elkarte egitura eman gura diote Kantsatzeke mendi taldeari

20 bat lagun batu dira lehen bileran; otsailaren 7rako deitu dute hurrengoa

**J. IRIONDO / L. ZEBERIO** | ELGETA

Elkarte bat abian jarri nahian ari da Elgetan herritar talde bat, eta, hain zuzen, martitzeneko bileran Elgetako mendi taldea eginaldi berri baten atarian dagoela esan zuten.

Aurkezpen bileran azaldu zuten mendi elkartea orain sortzekoak izan arren, jatorria lehenagokoa duela. 2009an Ozkarbi elkarteko hiruzpalau lagun batu ziren, Udalak eskatuta, Finalisten Eguna antolatzeko. Orain, taldea formalizatu eta elkarte egitura eman nahi diote. Bi urteotan antolakuntza lanetan jardun duen taldetxoak baina laguntzeko prest dagoen jendea batu nahi du elkartea egituratzeko eta antolakuntza lanak banatzeko.

**Bi urteotan zortzi irteera**

Ozkarbi mendi taldeak antolatuta zortzi irteera egin dira bi urteotan, eta bataz beste dozena bat lagunek hartu izan dute parte. "Ikusi dugu jendea apuntatzen dela, eta hemendik abuztura bitartean hilean irteera bat-edo antolatzea da asmoa", adierazi du antolakuntza taldetxoan jardun duen Enrike Gorrotxategik.

Udalak bilera gela bat lagatzeko eta urteko federazio kuota ordaintzeko konpromisoa hartu duela adierazi zuten, baita Kantsatzeke taldea erregistratuta dagoela eta talde federatua izateko tramite guztiak eginda daudela ere.

Kantsatzeke izena Ozkarbi izena dagoeneko erregistratuta dagoelako hartu dutela adierazi zuten. "Izena aldatzeko beste arrazoia da taldea herri osora zabaltzea, eta ez Ozkarbiko bazkideei mugatzea", gaineratu zuten.

**Proposamenak**

Lehen egitasmoen artean daude lan batzordeak antolatzea, bazkide kanpaina egitea, irteera egutegi bat adostea, logotipo bat aukeratzea, eta orain arte egindako argazkiak batzeko afari edo bazkari bat egitea. Martitzeneko bileran ez zen erabaki irmorik hartu eta gauzak zehazten joateko bigarren bilera bat egitea adostu zuten. Otsailaren 7rako deitu dute. Udal Liburutegian egingo dute, 20:00etan hasita, eta herritar guztiei dago zabalik.



Udal Liburutegian egindako aurkezpen bilera. | JULEN IRIONDO

# Martxoaren 8ko kartel lehiaketa deitu dute

Bideberri mankomunitateak deitu du Gatzagako, Elgetako eta Antzuolako herritarrendako

**L.Z.** | ELGETA

Emakumeen Nazioarteko Egunarekin lotuta Bideberri mankomunitateak deitzen duen bigarren kartel lehiaketa da honakoa. Iazkoa Elgetako Alicia Gartziak irabazi zuen.

Lehiaketaren bigarren edizio honetarako bi sari iragarri dituzte; lehenengoa 350 eurokoa, eta bigarrena 150 eurokoa. Interesatuek otsailaren 21era arteko epea dute —13:00ak bano lehen— lanak udaletxera eramateko.

**Leloa ere asmatu behar da**

Gatzagako, Elgetako eta Antzuolako udalek osatzen dute Bideberri mankomunitatea, eta lehiaketa hiru herri horietako biztanleendako eta bertan jaiotakoendako dago irekia.

Kartelaren diseinua sortzeaz gain leloa ere egileak egin beharko du, eta testu horri diseinuari besteko garrantzia emango zaiola jakinarazi dute deitzaileek. Kartelak, gainera, *Martxoak 8 Emakumeen Nazioarteko Eguna 2012* errotulua eta Bideberri mankomunitatearen logotipoa sartzeko lekua ere jaso beharko ditu.

Epaimahaiaren eraketa erabakia ematen den egun berean emango dute ezagutzera.

**Ezaugarri teknikoak**

Kartelen neurria, gehienez, 50x70 zentimetrokoa izango da, eta teknika egileak aukera dezake. Hori bai, lana formatu digitalean ere aurkeztu beharko da.

Dena den, lehiaketaren oinarriak Gatzagako, Elgetako eta Antzuolako udaletxeetan zein horien webguneetan egongo dira ikusgai.

Mankomunitateak, bestalde, lehiaketara jasotako kartelekin erakusketa egiteko asmoa du. Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltan izango da hori.

## FRONTENIS TXAPELKETA

| AURREKO JARDUNALDIKO EMAITZAK | |
|---|---|
| Andoni Elortza-Eneko Maguregi / Oskar Sarasua-Xanti Dosuna | 25-12 |
| Haritz Gallastegi-Enrike Elkoro / Odei Zenitagoia-Mikel Beretxinaga | 25-11 |
| Rebeka Ubera-Mikel Arkarazo / Idoia Elkoro-Enrike Elkoro | Atzeratua |

| PARTIDUAK, BARIKUAN, HILAK 27, 20:00ETAN |
|---|
| Oskar Sarasua-Xanti Dosuna / Mikel Zubiaurre-Danel Cusi |
| Jon Irazabal-Ibon Untzetabarrenetxea / Iban Retolaza-Xabier Ubera |
| Haritz Gallastegi-Enrike Elkoro / Adrian Gorostiza-Asier Osoro |

| PARTIDUAK ZAPATUAN, HILAK 28, 17:30EAN |
|---|
| Odei Zenitagoia-Mikel Beretxinaga / Andoni Elortza-Eneko Maguregi |

| PARTIDUAK DOMEKAN, HILAK 29, 10:15EAN |
|---|
| June Dosuna-Xanti Dosuna / Idoia Serna-Asier Osoro |
| Rebeka Ubera-Mikel Arkarazo / Idoia Elkoro-Enrike Elkoro |

### Martxotik aurrera haurreskola erabili nahi duten familiendako izena emateko azken eguna

Gaur, urtarrilak 27, amaitzen da martxotik aurrera haurreskola zerbitzua erabili nahi duten familiendako izena emateko epea. Epe luzeagoa izango dute urtarrilaren 28tik otsailaren 21era bitartean jaiotako haurrek. Gogoratu Haurreskolan hasi ahal izateko haurrek 16 hilabete beteta izango behar dituztela. Argibide gehiago 943 788 236 telefono zenbakian.

### 2012ko aurrekontuan 500 euroko diru-lerroa onartu du udalbatzak Gazteria Sailerako

Egun, Gazteria Saila Kultura batzordearen barruan dago, eta Udalak onartu duen aurrekontuak 500 euroko diru-lerroa jasotzen du gazteria alorrerako. Janire Lazkano batzordeburuak esan du batzordean landu eta adostu beharreko gaia dela, baina asmoa dela udaberri aldean gazteekin irteera batzuk egitea.

### Zanguango taldeak 'Aqui va a pasar algo' antzezlan komikoa egingo du gaur, barikua, 22:30ean

Txubio Fernandez eta Miguel Garces ariko dira agertoki gainean. Oroimena galdu duten bi lagunen istorioak kontatuko dizkigute umorez jositako obra batean. Nortzuk diren gogoratzeko hainbat saiakera egingo dituzte, eta emaitza umore absurdoz jositako obra izango da. Antzerkia 22:30ean hasiko da Espaloian. Sarrera 10 euro da, zortzi euro bazkideendako.

### Intxortako frontea ezagutzeko bisita gidatua egongo da domekan, 10:00etan abiatuta

Domekan, urtarrilak 29, bisita gidatua egin dute Intxortako fronteko lubakietara. 10:00etan abiatuko da bisita gidatua Espaloiko interpretazio gunetik, eta hiru bat orduko iraupena izango du. Ezinbestekoa da aldez aurretik izena ematea. Argibide gehiago: 943 79 64 63, 943 71 89 11 edo *turismo@debagoiena.net*.

### Patxi Monterok domeka iluntzean 'Herrixa dantzan' saio irekia egingo du kafe antzokian

Urtarrileko azken domeka da honakoa eta Elgetako eta inguruko dantzazaleek hitzordua dute Espaloian. Gidatutako dantzaldi irekia egingo du Patxi Monterok, 19:00etan hasita. Euskal Herriko eta, oro har, Europa osoko dantza tradizionalak egingo dituzte. Parte-hartzea librea da, eta sarrera doakoa.

LEINTZ GATZAGA

# Bertso afarirako txartelak salgai daude Labidean domekara arte

**MIRARI ALTUBE** | LEINTZ GATZAGA

Domeka, hilak 29, izango da azken eguna bertso afarirako txartelak erosteko. Labidea dendan dituzte salgai herritarrek.

Korrika batzordeak antolatu du afaria otsailaren 3rako, egubakoitza, eta Sebastian Lizaso eta Iker Zubeldia bertsolari ezagunak gonbidatu ditu, Soran etxean egingo duten afalordua giro dezaten. Antolatzaileek ziurtatu dute afari ederra, euskal giroa eta umore ona izango direla nagusi, eta herritar guztiak animatu gura dituzte.

Iaz ere antolatu zuen bertso afaria batzorde horrek, Korrikaren etorrera girotzeko, eta orduan jende asko elkartu zen.

### Uraren eta estolderia zerbitzuaren tasa ordaintzeko deia

Udalak jakinarazi du 2011ko laugarren hiruhilabeteari dagokion uraren eta estolderia zerbitzuaren tasa ordaintzeko epea zabalik dagoela. Martxoaren 14ra bitartean ordaindu beharko da, eta, ordainagiria helbideratuta dutenek izan ezik, gainerakoek udaletxeko bulegora jo beharko dute.

### Astelehen arratsaldean KZgunea zabalik egongo da

Astelehenean, urtarrilak 30, zabalik izango ditu ateak herriko KZguneak (16:00-20:00), eta Aitor Madrid dinamizatzailea egongo da. Herritarrek Interneten gainean dituzten zalantzak argitu eta ikastaro motzak eskainiko ditu: sare sozialen gainekoak, Googlek eskaintzen dituen tresnen gainekoak, eta abar.

Aperribay, s.l.
Marmoldegi eta granitoak
Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA

MENDIKO ESKIA

## Asteburuan egingo dute Open Altitoy Ternua lasterketa, Frantziako Pirinioetan

Puntako eskiatzaileak eta amateur mailako eskiatzaile koadrila galanta batuko du asteburuan Open Altitoy lasterketak Frantziako Pirinioetan –650 lagunek eman dute izena–, Luz Saint Sauveur inguruan. Antolatzaileek gertu dituzte zapatuko eta domekako ibilbideak, baina elurraren egoera dela-eta aldaketak egon daikezke. Hasiera baten, zapatuan Tournaboup-eko aparkalekutik (Bareges) irtengo dira, Aigues Cluses aldera, eta Madamette tontorra igoko dute. Euskadiko mendiko eskiko txapelketarako puntuagarria izango da proba; aldi berean, mendiko eskiaz lasaiago gozatzeko ibilbideak ere egingo dituzte.

ESKALADA

## Liga Boulderreko hamargarren edizioak lau jardunaldi izango ditu aurten, gehienak Gasteizen

Debagoieneko eskalatzaileek hainbat bidaia egingo dituzte Araba aldera aurten, Liga Boulderrean esku hartzera. Guztira, lau jardunaldi izango ditu, horietako hiru Gasteizen egingo dituzte eta laugarrena Amurrion izango da. Lehenengo hitzordua bihar izango da, Gasteizko Fundacion Estadioko kirol instalazioetan. Hala, bertan esku hartu nahi duten eskalatzaileek *www.fundacionestadio.com* webgunearen bitartez egin beharko dute izen-ematea –egunean bertan ezin izango da izenik eman–. Jardunaldi bakoitzeko eskalatzaileek 9 euro ordaindu beharko dituzte (mendian federatuek, 7 euro).

FUTBOLA

## Bergarak eta Aretxabaletak derbia jokatuko dute zapatuan Agorrosin futbol zelaian

Partidu azpimarragarrien artean dago Bergarak eta Aretxabaletak jokatuko duten derbia (Zapatua, 16:15, Agorrosin). Etxetik kanpora galdu ostean, Bergarak ondo lotu nahi ditu etxeko puntuak, momentu honetan hutsegite bat garesti ordain dezaketelako. Aretxabaletak, berriz, luzapenean sartu zuen joan den astean garaipenaren gola, eta bosgarren dira dagoeneko. Mondrak Trintxerperi irabazita eman nahi du iraultzaren hurrengo pausoa eta Aloñak Ondarroako Aurrera izango du kontrario.



Bergararen eta Aretxabaletaren iazko derbiko une bat. | GOIENA

FUTBOLA

## Mondrako neskek Logroñora egingo dute bidaia, eta Arizmendikoak igoera faserako sailkatu dira

Emakumezkoen bigarren mailan, joan den astean Athleticen kontra bigarren zatian barkatu ostean –Mondrakoek sartu zuten partiduko lehen gola, penaltiz– Zuluren eta Ezkurraren neskek sailkapenean atzealdean dabilen Atletico de Levellin taldearen zelaian jokatuko dute, Logroñon. Sailkapenean estu-estu daude talde asko, eta zuri-moreek lehenbailehen lortu behar dute garaipen bat. Bestalde, Arizmendiko neskak dagoeneko igoera faserako sailkatu dira, eta, oraingo asteburuan, fase berrian lider dagoen Intxaurdiren bisita izango dute Almenen (domeka, 14:00, Ibarra).

PILOTA

## Federatuta ez dauden pilotari beteranoendako txapelketa egingo dute Gatzagan

Aurreko edizioko arrakasta ikusita, Mauri Zubillaga buru-belarri dabil aurtengo Gatzagako pilota txapelketa antolatzen. Torneoa pilotari beteranoendako da, federatuta ez dauden herritarrendako. Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Gatzaga eta Oñatin egin du deialdia, baina animatzen denak lekua izango du. Izen-ematea otsailaren 19an amaituko da eta pilotari bakoitzak 15 euro ordaindu beharko ditu (605 72 40 96, Mauri). Norgehiagokak hamabost egunean behin jokatuko dituzte, domeketan, 09:00etan hasita. Hala, martxoaren 4ean hasiko dute torneoa eta finalak irailean jokatuko dituzte, Gatzagako jaietan.



Mallabiabarrena eta De la Iglesia, EHU Araba taldearen kontrako partiduan, taulapeko lehian. | GOIENA

SASKIBALOIA

# "Tortillari buelta emateko

### Natra Oñatik Easoren kontra jokatuko du bihar; etxeko puntu

XABIER URTZELAI | OÑATI

"Tortillari buelta emateko ordua da, emaitza onak lortzen hasteko ordua, eta etxean hasi behar dugu horretan", adierazi digu taldeko entrenatzaile Xabi Igartuak. Natra Oñati taldeari aurreikusi baino gogorragoa egiten ari zaio EBA maila, eta hasi berri duten bigarren itzulian goitik behera irauli beharko dituzte orain arteko emaitzak (azkenak dira sailkapenean, bi partidu irabazita): "EBAra iritsi aurretik partidu bat irabazteko nahikoa zen norberak ondo jokatzea, baina aurten horrekin ez da nahikoa. Txukun jokatu dugun partidu asko galdu egin ditugu, kontrarioak maila oso onekoak direlako. Besteak beste, hori aldatu da aurten".

**Alde handia fisikoan**

Orain arteko denboraldietan taldea bikain moldatu da kategoria berrira, eta hasiera-hasieratik emaitza oso onak lortu izan dituzte. Baina ez zuten aurreikusten EBAn fisikoki halako aldea egongo zenik. "Dezenteko aldeaz kategoria honetan fisikoki talde makalena garela esango nuke, baina guk beste

### Ander Gartzia, taldea indartzera

Ander Gartzia bergararrak Oñatiko taldean jokatuko du datorren astetik aurrera, fitxaren tramiteak amaitzeaz batera. Gartziak 23 urte ditu eta 1,92 neurtzen du; esperientzia zabala du goi mailako txapelketetan, besteak beste ACB mailako Baskonia taldeko kide izandakoa da–eta. Talde gabe egon da aurten, eta bi hilabetez Zilarrezko LEB mailako Araberrin izan da.

ELURRETAKO LASTERKETAK

# Itoitz Armendaritz geroago eta aurrerago dago Pirena lasterketako sailkapenean

X.U. | BERGARA

Domekan hasi zuten Huescan Pirena lasterketa, txakurrez lagunduta Pirinioak 15 egunean zeharkatzen dituen proba. Eta lasterkari moduan bigarrengoz korritzen dabilen Itoitz Armendaritz eskoriatzarrak –beste edizioetan laguntzaile moduan jardun duuste baino indartsuago hasi du proba, aurrean ibili da-eta aste osoan. Gainera, egunak aurrera joan ahala, Eskoriatzakoa geroago eta aurrerago dago. Atzo, eguena, bosgarren etaparen amaieran Granvalira/Ternua taldeko musherra seigarren postuan zegoen. "Niretako sorpresa da lehenengo hamar sailkatuen artean egotea, hamabost onenen artean egotea zelako aurreikuspena. Hala, hamar onenen artean jarraitzeko egingo dut lan", adierazi du aste barruan Goiena telebistako *Magazinea*-n.

**Elur faltan**

Aurtengo edizioak nahi baino hasiera petralagoa izan du, eta elur faltagatik antolatzaileek



Aurtengo edizioko erretratuan, txakurrak lera



# ordua"

uek ezin dute ihes egin



Ander Gartzia. | BASKONIA

arma batzuk ditugu, eta horiek erabiltzen asmatu behar dugu. Izan ere, kalitate aldetik oso talde ona dugu".

**Entrenatzeko arazoekin**

Jardunaldi batetik bestera fundamentuz entrenatu ahal izateko arazoak izan dituzte Oñatin, batez ere, jende faltagatik: "Min hartuta batzuk, lan edo ikasketa kontuengatik, beste batzuk kanpoan... zailtasunak izan ditugu nahi moduan entrenatu ahal izateko. Baina pozik gaude, bigarren itzuliari begira Iñigo Biain eta Ibai Osa moduko jokalariak errekuperatu egingo ditugulako, eta horrek asko lagunduko digu. Horrekin batera, Ander Gartzia ere taldean izango dugu, eta entrenamenduetan laguntzearekin batera kantxan ere bere ekarpena egin ahal izango du. Oso maila oneko jokalariekin jokatu izan du, dagoeneko egin ditu pare bat entrenamendu saio eta erakutsi du ze maila duen".

Natra-Oñatik dena beharko du datozen hilabeteotara begira, besteak beste, Jon Lekuonak utziko duen hutsunea bete beharko dute-eta: "Lekuonak denboraldi hasieran esan zigun ezin izango zuela urte osoa egin, eta hori ere kontutan izan dugu. Baina dagoeneko badakigu nork beteko duen leku hori".

**Bihar, Easo Zubikoan**

Natra-Oñatiren iraultzak asteburuan bertan hasi behar du, Easoren bisitaren kontra (18:00): "Euren kantxan irabazteko kapaz izan ginen, eta Zubikoan ere irabazi egin behar dugu. Easo oso talde gaztea da, eta seguru liga hasieratik hona dezente hobetu dutela, hazi egin direla. Azken boladan hainbat partidu irabazi dituzte, eta horrek esan nahi du kontrario gogorra izango dugula. Fisikoki borroka handia egiten duen taldea da, jokaldi bakoitza araudiaren mugara eramango dute, eta horren esperoan egon behar dugu. Guk, baina, gure jokoa eginda irabazi behar dugu partidua".



GOIENA

**XABI IGARTUA**
ENTRENATZAILEA

## "Kantxa kanpoko giro ona kantxara eraman behar dugu, irabazita"

Bigarren itzulia hasita, Xabi Igartuak (Oñati, 1982) taldean dagoen giroaz egin digu berba. Sailkapenak kontrakoa esaten badu ere, baikor izateko motiboak dituzte.

**Aurten jasotzen ari zareten emaitzek eragina izan dute taldeko giroan? Zelan dago taldea?**

Garbi dago emaitza onak lortzen ez dituzunean zailagoa izaten dela jendea pozik ibiltzea, eta kantxa barruan tentsio uneak izaten direla. Kantxatik kanpora taldean oso giro ona dugu, eta giro on hori kantxa barrura eramatea lortu behar dugu; horretarako, baina, irabazi egin behar da.

**Galdera hori egin dizut irabaztera ohituta dagoen talde batendako ez delako erraza izango.**

Pentsa azken urteotan zelako emaitzak izan ditugun; gainera, Arrasateko jokalariak ere gurera etorri zirenean oso bolada onak izatetik zetozen; ni ere Arrasateko taldean izan nintzen urte haietan. Hau da, azken bost urteotan ez ditugu bi partidu jarraian galdu. Eta horrek txoke egiten du egungo egoeraz. Baina hori aldatu egin behar dugu.



batetik tiraka. | PIRENA.COM

hainbat aldaketa egin behar izan dituzte: "Lehen hiru etapak Huesca aldean egin izan ditugu urtero, baina aurten 6 kilometroko lasterketa baino ez genuen egin, eta zuzenean etorri ginen Baqueirara. Nahiko xelebrea izan zen, baina konpromiso batzuk tarteko egin behar izan zen etapa hura".

Bestalde, Pirenaren zailtasunen gainean ere egin zuen berba Armendaritzek: "Etapa erabat ezberdinak dira, batzuk laburrak, esprintekoak, eta besteak luzeak. Ez da gauza bera txakurrak 6 kilometroko probetarako entrenatzea, ala 30 kilometroko etapetarako. Badira bi etapako egunak, goizez eta gauez korritzen dugu... Guztira 15 egun dira; alde horretatik, proba luzea da". *Pirena.com* webgunean segi dezakezue proba.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

**LEHENENGO MAILA**
Reala-Gijongo Sporting
Domeka. 16:00. Anoeta.

**EMAKUM. BIG. MAILA**
AT. Revellin-Mondra
Domeka. 12:00. Logroño.

**GAZTEEN EUSKAL LIGA**
Aretxabaleta-Indartsu
Zapatua. 14:00. Ibarra.

**OHOREZKO ERREGIONALA**
Trintxerpe-Mondra
Zapatua. 16:00. Pasai Antxo.
Bergara-Aretxabaleta
Zapatua. 16:15. Agorrosin.
Aurrera-Aloña
Zapatua. 16:30. Zaldupe.

**ERREGIONAL PREFERENTEA**
Getariako-Aretxabaleta B
Domeka. 12:00. Mendibeltz.
Antzuola-Orioko
Zapatua. 16:00. Estala.

**LEHEN ERREGIONALA, IG.**
Allerru-Mondra B
Zapatua.15:45. Lezo.

**LEHEN ERREGIONALA, KOPA**
Aretxabaleta C-Ontzerri
Zapatua.18:00. Ibarra.

**OHOREZKO GAZTEAK**
Mondra-Ikasberri
Zapatua.16:00. Mojategi.
Bergara-Amaikak Bat
Domeka. 11:30. Ipintza.
Elgoibar-Aloña Mendi
Domeka. 16:00. Mintxeta.

**GAZTEAK, KOPA**
Aretxabaleta B-Eibartarrak
Domeka.16:15. Ibarra.
Arizmendi-Bergara B
Zapatua. 15:30. Almen.
Eibartarrak B-Aloña Mendi B
Domeka. 16:00. Mintxeta.

**OHOREZKO KADETEAK**
Aurrera-Bergara
Domeka.16:30. Zaldupe.
Aretxabaleta UDA-Eibar B
Domeka. 12:00. Ibarra.
Aloña Mendi-Reala B
Zapatua. 11:15. Azkoagain.

**KADETEAK, IGOERA**
Arrasate-Real Union B
Domeka.12:00. Mojategi.

**LEHEN KADETEAK, KOPA**
Soraluze-Arizmendi
Domeka. 11:00. Ezozia.
Antzuola-Arrasate B
Domeka. 11:00. Estala
Bergara B-Eibartarrak
Zapatua. 18:00. Ipintza.
Aloña Mendi B-Aretxabaleta B
Domeka. 11:30. Azkoagain.

**INFANTILAK, OHOR. KOPA**
Euskalduna-Bergara
Zapatua. 15:30. Ubitarte.
Amaikak Bat-Aretxabaleta
Zapatua. 16:30. Errotazar.
Arrasate-Tolosa
Zapatua. 12:00. Mojategi.
Aloña Mendi-Urola
Zapatua. 16:30. Azkoagain.

**EMAKUMEZKOEN IGOERA**
Arizmendi-Intxaurdi
Domeka. 14:00. Ibarra.

**EMAKUMEZKO KADETE F11**
Urola-Aloña Mendi
Domeka. 16:30. Argixao.
Añorga-Mondra
Domeka. 13:00. Rezola.

**ARETO FUTBOLA**

**EUSKADIKO TXAPELKETA**
Eskoriatza (atsedena).

**BIGARREN MAILA**
Aretxabaleta-Hirukide
Gaur.20:45. Almen

**KADETEAK**
Arizmendi Eskoriatza-Zarautz
Zarautz. 11:00. Almen.

**ESKUBALOIA**

**EUSKADIKO TXAPELKETA**
Ford Mugarri-Urduliz
Zapatua. 17:30. Musakola.
Soraluce BKE-Askartza
Zapatua. 18:00. Labegaraieta.

**EMAKUM. SENIOR PREFERE.**
Aloña Mendi-Aiala Zarautz
Domeka. 12:15. Zubikoa.

**LEHEN TERRITORIALA**
Urola-Izarraitz Tab. Aloña Mendi
Zapatua. 18:00. Zumarraga.

**BIGARREN TERRITORIALA**
Arrasate-Ordizia Vicuña
Domeka. 11:30. Iturripe.

**KADETE GIZONEZKOAK**
Urola-Soraluce Bergara
Domeka. 10:00. Zumarraga.
Talleres Chapime-Egia
Domeka. 10:00. Iturripe

**SASKIBALOIA**

**EBA**
Natra Oñati-Easo Pastas
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

**LEHEN NAZIONAL MAILA**
MU-Bide Bide Ibiza
Zapatua. 18:00. Iturripe.

**GAZTEAK, EUSKAL LIGA**
MU-Autoescuela Lagunak
Domeka. 18:00. Iturripe.

**SENIOR GIZONEZKOAK**
MU-Aluminios Alberdi
Gaur. 20:00. Musakola.
Allerru-Soraluce Bergara
Gaur. 20:00. Lezo.

**SENIOR, BIGARREN MAILA**
Aloña Mendi-Donibane
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

**SENIOR EMAKUMEZKOAK**
Cafes Aitona-Eskoriatza
Zapatua. 18:00. Donostia.

**GAZTEAK, GIZONEZKOAK**
Soraluce Bergara-Easo94
Domeka. 17:00. Labegaraieta.
MU B-Gamon KE
Domeka. 11:45. Musakola.

**GAZTEAK, EMAKUMEZK.**
Añorga-Eskoriatza
Domeka. 12:00. Donostia.

**PILOTA**

**ARETXABALETA**
Aretxabaleta-Olalde
Gaur. 19:15. Iturrigorrin.

**ARRASATE**
Arrasate-Lagunak1
Arrasate-Igeldo
Gaur. 20:30. Uarkape.

**BERGARA**
Bergara-Arrasate
Bergara2-Legazpi
Zapatua. 16:00. Munizipala.

**ESKORIATZA**
Eskoriatza-Gazteleku
Zapatua. 17:00. Udal pilotalekua.




JOSETXO ARANTZABAL

**LIDERRAK ETXEAN** Ford Mugarrik Musakolan hartuko du zapatuan Urduliz (17:30), eta kategoria berean Soraluce BKEk ere etxean jokatuko du Askartzaren kontra (18:00).



## Begiristain

Iturriotz baserria IKAZTEGIETA
607 36 57 43
*begiristainsagardotegia@gmail.com*
*www.begiristainsagardotegia.com*

**Eskaintza**

- Urtarriletik ekaina bukaera arte zabalik, sagardoa txotxetik. Zuzeneko botila sagardo salmenta urte guztian. Etxez-etxeko banaketa.
- Sagardotegiko menua. Arkumea burduntzian enkarguz. Afariak asteartetik zapatura, bazkariak eguenetik igandera
- Webgunean sagardotegira bazkidetzeko aukera.
- **"Tolare" sagardotegia**



## Iruki

Otaola hiribidea, 3 atzealdean.
EIBAR / 943 20 68 44
*irukieibar@hotmail.com / http://irukieibar.com*

**Eskaintza**

- Eibar erdialdean.
- Aparkalekua doan.
- 200 lagunentzako tokia.
- Egunero zabalik, baita egubakoitz eta zapatu gauetan eta jai bezperatan ere.
- Parrilla eguneko menuan ere.
- Prezio merkeak eta giro atsegina.



## Ipintza

Ipintza baserria / Santio Zaharra 12
ASTIGARRAGA / 688 81 17 24
*ipintza@ipintza.com / www.ipintza.com*

**Eskaintza**

- Astigarraga erdigunean.
- Egunero zabalik, igande gauetan izan ezik.
- Urte osoan sagardoa txotxetik.
- 150 pertsonarentzat lekua.
- Eserita.
- Aparkalekua.
- Sagardo botila salmenta.
- **"Tolare" sagardotegia**



## Iturrieta

Arraga auzoa / ARAMAIO
945 44 53 85 / 685 72 15 93
*iturrietasagardotegia.blogspot.com*

**Eskaintza**

- Egubakoitzetik domekara irekita. Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- 80 lagunendako lekua, eserita edo zutik.
- Sagardotegiko menua.
- Bertako sagardoa.
- Sagardotegiko menua (txuletoi edo saiheskiarekin)
- Giro aparta zuzeneko musikarekin.



# EGIN TXOTX!

## sagardotegietan



## Larre-Gain

Larre-gain sagardotegia
HERNANI
943 55 58 46 / 616 28 78 67

**Eskaintza**

- Janaria sagardotegiak jartzen du.
- Bakailoa saltsan, aurrez deituta.
- Astegunetan, gauetan bakarrik zabalik. Egubakoitzetan eta zapatuetan egun osoa zabalik Domeketan, eguerdira arte zabalik. Astelehenetan, itxita.
- **"Tolare" sagardotegia**




## Oiharte

Irukarate-gain auzoa (Mutiloa bidea)
ZERAIN
943 50 10 13 / 686 29 91 58
*www.oiharte.com*

**Eskaintza**

- 120 lagunendako lekua, zutik edo eserita.
- Martitzenetik zapatura gauez. Egubakoitz, zapatu eta domeka eguerdietan zabalik.
- Sagardoa botilan salgai.
- Sagardotegiaz gain nekazaritza turismoa.



## Unzueta

Zabola z/g
ARAMAIO
945 44 50 95

**Eskaintza**

- Sagardoa txotxetik urte osoan.
- Sagardotegiko menua: 29 €
- Berezitasuna: txuleta.
- 70 lagunendako tokia.
- Parking eta terraza.



## Zabala

Garagartza baserria / ADUNA
(Andoain eta Billabona artean)
943 69 07 74

**Eskaintza**

- Urtarriletik maiatz hasiera arte zabalik.
- Egubakoitz, zapatu eta domeka eguerditan enkarguz.
- Bertako janaria.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako Sagardo Lehiaketetan, 2004an, 2006an eta 2010ean irabazleak.
- Botilak salgai urte osoan.
- **"Tolare" sagardotegia**

# KULTURA



Bergarako Musika Eskolan 2008an egindako musikoterapia ikastaroa. | GOIENA

## Musikoterapia, zientzia gisa

"Komunikazio bideak ez zeudenean soinuak erabiltzen zituzten, eta hori musikoterapian sartuko litzateke", azaldu du Aintzane Aranak. Terapia horren erabilera antzinatik ezaguna den arren, aurreko mendeko 40ko hamarkadan hasi ziren zientzia moduan erabiltzen; hau da, musika egiteko prozesuak zer eragin duen pertsonengan aztertzen hasi ziren.

Musikoterapiak bi arlo hartzen ditu: hezkuntza eta osasuna. Gaur egun mundu osoan zabaldua dagoen zientzia da eta hainbat herrialdetan, unibertsitatean eskaintzen duten gaia da. Danimarkako eta Australiako unibertsitateetan, esaterako, doktoretza egin daiteke.

# Musikaren bitartez emozioak eta sentimenduak azaltzea

- Musikoterapia ikastaroa egingo dute Bergarako Musika Eskolan
- Zapatutan izango da, 10:30etik 12:30era, otsailaren 25ean hasita

## IKASTAROAREN EDUKIAK

**TEKNIKA AKTIBOAK**
- Inprobisazio egituratuak
- Inprobisazio libreak

**TEKNIKA PASIBOAK**
- Erlaxazioak
- Entzunaldiak

**ARTEAK**
- Musika mugimenduak
- Musika-arte ederrak
- Musika-literatura

**ARANTZAZU EZKIBEL** | BERGARA

Musikoterapia ikastaroa egingo dute Bergarako Musika Eskolan. Asko entzuten den teknika edo terapia da musikoterapia, baina askok ez dute jakingo zer den. Bada, ikastaro horren bidez musikoterapia ezagutzeko aukera paregabea eskainiko dute Bergaran. Izan ere, Bergarako Musika Eskolan –eta baita Arrasaten ere– ikasgai moduan ematen da musikoterapia azkeneko bost urteetan. Otsailaren 25ean hasiko da eta lau zapatutan jarraian egingo dute, 10:30etik 12:30era. Helduendako da.

Izena emateko azken eguna otsailaren 16a izango da. Ikastaroaren prezioa: 50 euro.

### Bizipenak izatea

Olaia Ramos eta Aintzane Arana izango dira irakasleak. "Denondako oso interesgarria da; izan ere, denok behar dugu gure buruarekin egoteko denboratxo bat", azaldu du Ramosek. "Jende askok galdetzen du zer den musikoterapia; hortaz, gura izan dugu zabaldu jendeak ezagutzeko", dio Aranak. Horren harira, Ramosek hau gaineratu du: "Ezagutzeko onena? Bizipenak izatea".

Musikoterapiak norberaren gaitasunak eta ezgaitasunak ikusteko balio du. "Entzuten ikasteko ere balio du. Zer da gaur egun entzutea?", dio Ramosek. Musikoterapiaren helburua denbora eskaintzea ere bada: "Musika entzuteko denbora eskaintzea da", dio Aranak.

### Musika sortu eta entzun

Teknika pasiboak eta aktiboak landuko dituzte. "Inprobizazioan oinarritzen gara: musika sortu, gorputz mugimendua... Teknika pasiboa, ostera, musika entzutea izango da", azaldu du Aranak.

Musika gainerako guztiarekin erlazionatuta dagoela azaldu dute. "Ezin da ulertu musika ez baldin badakigu gizartean zer pasatzen den, politikan zer pasatzen den, ekonomikoki zer gertatzen den, artea, filosofia... denarekin dago lotuta, modarekin...", esan du Ramosek. Azken finean, musika estiloak horregatik sortzen dira, behar bat dagoelako. Gizartean zer edo zer gertatzen dabilela adierazten du eta horregatik estilo ezberdinak sortzen dira. "Adierazteko modu bat da", diote. Norbere buruarekin egoteko espazio eta denbora bat eskainiko du ikastaroak.

Ikastaroan parte hartzeko ez da musika ezagutzarik eskatuko. Edonork parte har dezake, izan ere emozioak eta sentimenduak espresatzen denok dakigu. Taldearen beharren arabera moldatuko dute ikastaroa gero.

Ramosek eta Aranak badute esperientzia musikoterapia arloan. Gustura daude orain arteko ikastaroetan izandako esperientziarekin.

**OLAIA RAMOS ETA AINTZANE ARANA** | IRAKASLEAK

## "Denok eduki behar dugu denboratxo bat gure buruarekin egoteko"

Musikoterapia ikastaroko irakasleak dira Ramos eta Arana. Jendea animatu gura dute ikastaroan parte hartzera, norberaren esperientziaren bitartez musikoterapia zer den ikusteko.

**Nori zuzendutako ikastaroa da?**
Helduei zuzenduta dago. Edonor etor daiteke. Denondako oso interesgarria da; izan ere, denok behar dugu gure buruarekin egoteko denboratxo bat.

**Musikoterapia ezagutzeko modu egokia izan daiteke.**
Gura izan dugu ikastaro hau antolatu jendeari ezagutarazteko Musika Eskolan badagoela musikoterapia irakasgaia. Jende askok galdetzen du zer den; hortaz, gura izan dugu zabaldu jendeak ezagutzeko.



Ramos eta Arana. | A.E.

**Zertarako balio du?**
Nork bere gaitasunak eta ezgaitasunak ikusteko balio du, besteak beste.

# Loquillok azken diskoa aurkeztuko du Amaian

A.E. | ARRASATE

*Su nombre era el de todas las mujeres* azken diskoa aurkeztuko du gaur *Loquillo a solas, tour teatros 2012* biraren barruan. Arrasateko Amaian izango da emanaldia, 21:00etan.

51 urte egin berri, indarberrituta dator Loquillo abeslaria. *Su nombre era el de todas las mujeres* Luis Alberto de Cuenca poetaren idatzietan oinarrituta dago eta musika Gabriel Sopeñak egin du.


Loquillo abeslaria. | LOQUILLO.COM

## Lan pertsonala

Nostalgia puntua duen lana dela esan dute adituek, baina, Loquilloren ustez, disko pertsonal eta arriskutsuena izan da azken hori. Diskoa mugarria izan da Loquillorendako; gauzak ulertzeko eta gauzei aurre egiteko aldaketa ekarriko dio.

*Rolling Stones* aldizkariko irakurleen ustez, Espainiako rock historian 10. disko onena da.

## Abestien letrak

Ez da lehenengo aldia Loquillok poeta baten letrak erabiltzen dituena: *La vida por delante* (1994) eta *Con elegancia* (1998) diskoetan ere hainbat autoreren lanak erabili zituen. Oraingoan, baina, autore bakarra hartu du oinarri, eta esan behar da Loquillok bere egin dituela letrak.

Bederatzi abestiz osatutako lana da Loquillok aurkeztuko duena. Aukera paregabea, hortaz, rockeko izen handia bertatik bertara ikusteko.

# Umore kritikoa Zanguango antzerki taldearen eskutik

A.E. | ELGETA

*Aqui va a pasar algo* antzezlana eskainiko dute gaur, egubakoitza, Elgetako Espaloia aretoan, 22:30ean. Sarrerak 10 euroren truke daude salgai –Espaloiko bazkideendako, 8 euro.

Txubio Fernandez de Jauregi eta Miguel Garces aktoreak etorriko dira Elgetara. Ez da lehenengo aldia bi aktoreak Elgetan izango direna. Espaloiko ikusleek ondo ezagutzen dituzten aktoreak dira.

## Zanguango antzerki taldea

1993an sortu zuten antzerki taldea. Umore kritikoa egiten duen taldea da, eta, hain zuzen, hori izaten da euren antzezlanen oinarria. *Aqui va a pasar algo* lanarekin ere umorea izango da ezaugarri nagusia. Bi gizon izango dira antzezlaneko protagonistak, eta bi gizon horien bizitzaren inguruan jardungo dute.

Aktoreak dira Zanguango antzerki taldearen oinarria. Aktore lanean eta talde lanean oinarritzen dira antzezlanak egiterakoan. Gizakiaren jarrerak aztertzen dituzte, eta gaur ere hori eskainiko dute.

**Manex Agirre** | Bertsolaria

# "Pribilegioa da saioan parte hartzea, ni oso gustura nago"

ARANTZAZU EZKIBEL. | ARRASATE

Bihar, zapatua, Bertso Eguna ospatuko dute Donostian. Goizean hainbat saio egingo dituzte, alde zaharrean, eta arratsaldean ekitaldi nagusia izango da: Kursaaleko areto nagusian egingo dute saioa 25 bertsolarik; tartean, Manex Agirre aramaioarrak.


Manex Agirre. | GOIENA

**Zein izango da zure lana ekitaldi nagusian?**

Ez dakigu oso ondo. Aurten Bertsozale Elkarteak 25 urte egiten ditu eta saio guztia horren inguruan izango da. Seietako saioan 25 bertsolarik parte hartuko dugu, zenbaki borobila errespetatzearren.

**Lehenengo aldiz hartuko duzu parte Bertso Egunean?**

Pare bat bider izan naiz. Ariketa ezberdinak egiten dira egunean zehar: goizean, adibidez, kalean egiten den bertsopoteo estilokoan parte hartu izan dut, eta baita afalostean ere. Ekitaldi nagusian inoiz ez dut kantatu.

**Zer da bertsolari batendako horrelako ekitaldi batean parte hartzea?**

Euskal Herriko bertsolaritza panoraman bilgune garrantzitsuenetakoa da, eta, horregatik, pribilegioa da aukera hori edukitzea. Ni oso gustura nago eman didaten aukerarekin.

**Zer esan gura du Bertsozale Elkarteak 25 urte betetzeak?**

Elkartea eta bertsolaritza paraleloan doaz, elkarlotuta. Bata aldatzen den heinean bestea ere aldatu egiten da. Aldaketaz aldaketa indartu egin da eta esango nuke gaur egun euskal kulturgintzaren barruan kultura adierazpide batek duen adibide garbiena dela.

**Asko aldatu da bertsolaritza?**

Bertsotan egiteko modua asko aldatu da. Orain dela 25 urte aukera gutxiago zeuden. Euskarak aurrera egin du eta horren adierazgarri da bertsolaritzak egin duen bide hori ere.


## URTARRILEKO SARIAK

DONOSTIA 2016 KAMISETAK



DONOSTIA 2016 SAN SEBASTIAN

IPUINAK UMEENTZAT



PAMIELA

ERREMEIXUEN DVD-A



kutxa
Bergarako Udala
goiena

LIBURUAK



PAMIELA

## Hemen ere erabili zure Goiena klubeko txartela





lastai

**Zer da Lastai?**

Eskarmentu handia, gaztetasuna eta egiten dugunarekiko ilusioa batzen dituen profesional-taldearekin osatutako enpresa familiarra gara. 40 urte baino gehiago daramagu Debagoieneko eta Gasteizko eta inguruko bezeroen beharrak asetzen.

Bi arlotan egiten dugu lan: alde batetik, haurtzaintza. Zuen haurtxoak bere bizitzako lehen hilabeteetan behar duen guztia daukagu; eta, bestetik, atsedenari zuzendutako gunea (koltxoiak, oinarriak, kanapeak, ohe artikulatuak...)

Haurtzaintzari eta atsedenari eskainitako azalera handiena duen denda dugu Gasteizen; 400 m2 baino gehiagoko erakusketa 2 solairutan banatuta.

**Non zaudete?**

Gasteizko Uritiasolo poligonoan: Arkatza kalea 1, 49. pabiloian; eta aparkatzeko inongo zailtasun barik, gainera!

Baita hiriko auzo berrienetako baten: Zabalgana ibilbidea 26. Biak ere, larunbat arratsaldeetan irekita.

**Zer abantaila du Goiena Klubeko txartelaren erabiltzaileak?**

- Helduentzako atseden arloan, %5eko deskontu gehigarria.
- %5eko deskontua haur-kotxe eta automobileko segurtasun-aulkietan.
- %5eko deskontua sehaska, haur-kotxe eta automobileko segurtasun-aulkietarako denboraldiko ehungaietan.
- %10eko deskontua denboraldiko haur-arropan.

Beherapenetan eta eskaintza berezietan izan ezik.

lastai.com

## 2012an atera etekina txartelari

RENAULT AUTOBERRI
AVIA
Esko Sport
gahir
LILURA EDERTZE INSTITUTUA
MULTIÓPTICAS
GAES
IKER SUKALDEAK
lastai
AQVARIVM
TXIKI ZOO
TXURI-URDIN
ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

goienakluba" 2012

Tel.: **943 25 05 05** | e-posta: *kluba@goiena.com* | *goienakluba.com*
Urteko kuota: **50 €.**

goienakluba"
Abantailaz betetako kluba!

# 'Zapla' fantzinea argitaratu dute Debagoieneko hainbat marrazkilarik

## Debagoieneko tabernetan jarri dute lana salgai 1,5 euroren truke

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Debagoieneko marrazkilari talde batek *Zapla* fantzinea atera berri du. Urtarrilaren 5ean argitaratu zuten fantzinearen lehenengo zenbakia. Helburua da eurek "nahi dutena egitea".

**13 marrazkilari batu dira**

Gari Garitano marrazkilaria beste bergarar batzuekin harremanetan jarri, eta handik irten zen ideia: "Deialdia egin genuen marrazkia gustuko zutenak batzeko, eta, hala, 13 lagun elkartu gara fantzinea egiteko", dio.

Debagoieneko marrazkilariak dira guztiak, Elorrioko eta Azpeitiko bana izan ezik. Hauek, hain zuzen ere: *Txinbo*, *Santos*, Maite Eraña, Jon Pozo, Lezuri Doyague, Aiert Zubigarai, Aitor Burcio, Gari Garitano, Jon Iraegi, *Momo*, Iñigo Borda, Alex Molano eta Alex Ugalde.

Komikiak dira fantzinearen oinarria, baina, komikiaz gain, ilustrazioak, bertsoak, denbora-pasak –*Zapla-pasak*–... ere egin dituzte. Gainera, lehenengo zenbakiak 2012ko egutegia dakar, Evaristo abeslari ezagunaren irudiarekin. Fantzinea zuri-beltzean da eta erdialdeko egutegia, azala eta kontrazala ditu koloretan. Azala Iraegik egin du eta kontrazala, Otamendik.

**Krisia izan da gai nagusia**

Marrazkilarien asmoa da euren zaletasuna aurrera eramatea eta gustuko dutena egitea. Bada, fantzinearekin ez dute dirurik irabazi gura.

Lehenengo zenbakia egiteko gai nagusi bat hartu dute oinarri, eta horren inguruan egin dituzte lanak. "Krisiaren inguruan egin ditugu lanak; besteak beste, tabernak, pintxo-poteoa, Gabonak... gaiak landu ditugu". Marrazkilari bakoitzak erabaki du zer egin eta zelan egin. Hiru hilabeteko lana izan da fantzinea aurrera eramatea.

Dagoeneko hasi dira bigarren zenbakiarekin lanean. Euren asmoa da Aste Santurako kalean izatea, Erramu-zapaturako edo. Gaiari dagokionez, librea izango da.

**Tabernetan jarri dute salgai**

Komiki fantzinearen lehenengo zenbakia 1,5 euroren truke jarri dute salgai –benetako kostua 3,80 euro da baina laguntzaileei esker merkeago jarri dute.

Bestalde, dei egiten diote fantzinean parte hartu gura duen edonori. Interesatuek *zaplafanzinea@gmail.com* helbidera idatz dezakete.

ESANAK

**"Deialdia egin genuen marrazkilarien artean"**

GARI OTAMENDI | MARRAZKILARIA

DATUA

**250**

ALE

Lehenengo zenbakiaren 250 ale jarri dituzte salgai, 1,5 euroren truke. Tabernetan eros daitezke.




*Zapla* fantzinearen azala. | JON IRAEGI

## 'La lechuga' antzezlana aurkeztuko du Glu-glu taldeak Zabalotegin

Gaur, egubakoitza, *La lechuga* helduendako antzezlana eskainiko du Glu-glu antzerki taldeak Bergarako Zabalotegin, 22:00etan, 5 euroren truke.

Umorezko antzezlana da *La lechuga*; taldekideek dioten moduan, umore beltza. Izan ere, Martinez familiaren bizimodua kontatzen du istorioak, etxean senitarteko bat egoera begetatiboan duen familia baten istorioa. Virginia alabak aita etxean zaintzea erabaki du eta Victor eta Vinicio semeek, ostera, ez dute ezer egiten. Egoera horrek arazo asko sortuko die anai-arrebei, baina, era berean, aitak berak lotuko ditu anai-arrebak.

## 'Contra el viento del norte' lana Oñatiko Santa Ana aretoan gaur

Ttanttaka taldeak aurkeztuko du antzezlana gaur, 22:30ean, Santa Ana aretoan. Joseba Apaolatza, Itziar Atientza eta Kike Diaz de Rada dira aktoreak eta Fernando Bernuesen zuzendaritzapean jardungo dute.

Antzezlanak mundu birtualaz dihardu. Hutsegite baten ondorioz emakume baten mezua psikologia irakasle batek jasoko du. Hain zuzen, emakumearen eta gizonaren arteko hartu-emanaz berba egingo du antzezlanak. Sarrerak *www.barrabarra.eu* atarian daude salgai, eta Internet bidez saltzen ez diren sarrerak leihatilan jarriko dituzte salgai.





**Maria Izaga** | Musikaria

Maria Izaga, Aramaioko plazan, Sastiña ermita atzean duela.

MIRIAN BITERI

# "Adeleren bideoarekin gustura geratu naiz, eta kantu gehiago grabatu eta Internetera igoko ditut"

**MIRIAN BITERI** | ARAMAIO

Astebetean ezagun egin da Maria Izaga gazte aramaioarra Adele abeslari ospetsuaren *Someone like you* kantua institutuko kantaldian abesteagatik. Musikaz gain, askotariko zaletasunak dituen neskarekin egin dugu topo.

**Zelan daramazu ezustean iritsi zaizun ospea?**

Arraroa da, ez duzu espero institutuan egindako bideo batetik horrelakoa sortzea. Lehengo martitzenean igo zen bideoa, eta astebetean telebistan eta guzti irten naiz. Aramaiotik kanpo ere askok esan didate zerbait: lehengo egunean Arrasaten emakume batek kalean geratu ninduen. Gehienak hitz ederrak izan badira ere, kritikaren bat edo beste ere entzun izan dut egunotan.

**Nolatan irten zen Adeleren abestia kantatzeko ideia?**

Arrasateko institutuan urtero Gabonetako kantaldia egiten da. Aurten, hori antolatzen duen irakasleak jakin zuen abestu egiten dudala eta animatzeko esan zidan. Azken ikasturtea egiten ari naiz eta banekien institututik abestu barik joaten banintzen, damutu egingo nintzela. Adele abestera animatu nintzen. Orain dela gutxi egin da famatu, eta haren bi lanak ditut hasieratik. Beti gustatu izan zait musika estilo hori, eta baita haren ahotsa ere; *Someone like you* gustura entzuten dut eta abesteko erraza da, egun hartan ahotsa txarto banuen ere.

**Asko entseatu zenuen?**

Bezperan, etxean karaokearekin abestu nuen birritan-edo, baina ahotsa txarto nuen. Egunean bertan ere apur bat entseatu nuen; ondo irten zen.

**Noiztik abesten duzu?**

Aramaioko abesbatzan hasi nintzen 7 urterekin, eta, gaur egun, oraindik hor segitzen dut. Orain dela hiru urte Arrasate Musikalen kantu eskolak hartzen hasi nintzen, eta solfeo eskolak jasotzen ditut. Horrez gain, Izaskun Murgia elkarte lirikoan nabil. Zaletasun hori ez dakit nondik datorkidan. Aitaitak koruan abesten du eta amari ere beti izan gustatu zaio abestea. Musikari dagokionez, denetarik gustatzen zait, baina, bereziki, jazza, soula, rocka eta popa ditut gustuko.

**Izaskun Murgian zarzuelak egiten dituzue. Ez da oso ohikoa gazte bat topatzea zarzuelak egiten. Zer dauka horrek zuretako?**

Diferentea da: alaia da eta ondo pasatzen da. Lotsak joaten dira.

**Trikitia ere jotzen duzu, ezta?**

Hala da. Orain dela lau urte hasi nintzen. Lasaitu egiten nau. Lotsatu egiten naiz jendaurrean jotzean, baina barrena lasaitzeko modu ona da, euskal dantzak bezala. Horrez gain, pintura eskoletara ere banoa.

**Bertsolaritzaz ahaztu zara...**

Horretan ere banabil, Aramaioko Bertso Eskolan. Ikastolan, laugarren mailan gaudenetik hasten gara bertso eskolak hartzen astean behin. Arabako eskola arteko txapelketetan eta, aurten, nagusiekin koadrilen arteko Arabako txapelketan ere parte hartu behar dugu. Otsailean hasiko gara; finala martxoan izango da.

**Denbora librerik baduzu?**

Bai; jendeak hori galdetzen dit, baina, ondo antolatuta, samurra da. Asko ikasten da zaletasun bakoitzetik.

**Etorkizunean musikatik bizi izan gura zenuke?**

Noski, beti izan dut musikatik bizi izateko ametsa; nire instrumentua ahotsa da. Baina badakit oso zaila dela. Adeleren bideoarekin gustura geratu naiz; ziurrenik, kantu gehiago grabatuko ditut eta, gero, Internetara igoko ditut.

**Ametsa bete bitartean, ikasten segituko duzu?**

Bai. Datorren ikasturtean, Irakaskuntza, Ingeles Filologia edo Itzulpengintza eta Interpretazioa egitea pentsatu dut. Oraingo hilabeteetan lotu behar dut hori. Musikaz gain, hizkuntzak ditut gustuko; letretakoa naiz ni.

**Bestelako zaletasunik?**

Udan AEBetara noa hilabete, familia batekin bizi izatera. Iaz hasi nintzen, eta aurten hara noa ostera ere.

## PERTSONALA

**Zure herriko txoko politena:** Andra Mari.

**Kantu gustukoena:** Nickelback taldearen *If today was your last day*.

**Abeslari gustukoena:** Amy Winehouse. Zoritxarrez, ezin izango dut zuzenean ikusi.

**Musika talde bat:** Coldplay eta Nickelback.

**Bizi izateko toki bat:** Aramaio.

**Bertsolari gustukoena:** Jon Maia. Horrez gain, herrikoen alde nago beti.

**Hiri bat:** Chicago.

**Gosari gustukoena:** Txokolatea galletekin.

**Amesten duzu:** Kantutik bizi izatea.

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Eskoriatza.** Etxebizitza duplexa, 120 metro koadrokoa, salgai. Berri-berria. Jantzia. Prezio onean. 679 16 24 96

**Oñati.** Etxebizitza salgai San Lorentzo auzoan. 60 metro koadro eta bi logela. Prezio negoziagarria. 699 78 47 49

### 103. ERRENTAN EMAN

**Aretxabaleta.** Bi logelako eta terraza handia duen etxebizitza ematen da errentan. Deitu 665 72 18 59 telefonora.

**Arrasate.** 65 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan Erguinen. Bi logela eta egongela handia. Eguzkitsua. Bizitzera sartzeko moduan. Prezio interesgarria. 616 84 55 96

**Arrasate.** Logela bakarreko apartamentua ematen da errentan. Beokuntza zentralarekin, argitsua, ondo kokatua eta merke. 628 22 45 09

**Bergara.** Erdigunean etxebizitza ematen da errentan. Lau logela, bi komun, sarrera, egongela eta sukaldea. Hornitua eta jantzia. 607 32 74 32

**Oñati.** Errekalde 3an etxebizitza ematen da errentan. Igogailua, oso eguzkitsua, guztiz berritua, oso ondo hornitua eta jantzia. Hiru logela, bainugela, sukaldea eta egongela. Nahiago bertako pertsonak. 677 07 19 37

**Oñati.** Kalebarrian 5 urte dituen etxebizitza berria ematen da errentan. Guztiz jantzia. Oso erosoa bizitzeko. Bi gela, komuna, eta sukalde eta egongela bateratuak. Bi balkoitxo ere baditu. 605 76 63 87

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Etxebizitza bila, errentan. Hiru logelakoa. Oso arduratsuak. 630 26 13 28

**Oñati.** Etxebizitza behar dut errentan. Estudio, logela bat edo bikoa. Venezuelakoa naiz. 608 49 89 76

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Logela ematen da errentan Araba ibilbidean. Mutil batentzat. Deitu 678 73 66 54 telefonora

**Arrasate.** Neska arduratsua behar da etxebizitza osatzeko. Erdigunean dago, etxe berria da eta egoera oso onean dago. 606 88 94 14

**Arrasate.** Pixua osatzeko jende bila gabiltza. Guztiz hornitua: garbigailua, ontzi-garbigailua, berokuntza zentrala.. 250 euro hilabetero, gastuak barne. Lorea:. 620 52 94 98

**Bergara.** Logela ematen da errentan pertsona bakar edo bikotearentzat. Deitu 699 09 46 26 telefonora

**Eskoriatza.** Pertsona bat behar dugu plazan dagoen etxebizitza osatzeko. Guztiz eraberritua. Leire. 685 73 60 57

**Logela bila nabil.** Bergaran edo Arrasaten logela edo konpartitzeko pisu baten bila nabil, nahi eta nahi ez kontratoarekin. Interesatuok deitu 648 01 32 39 telefono zenbakira.

## 2. GARAJEAK

### 201. SALDU

**Bergara.** 15 metro koadroko garaje itxia salgai Ozaetan. Prezio negoziagarria. Deitu 655 72 63 13 edo 943 76 50 71 telefono zenbakietara.

**Bergara.** Garaje itxia salgai Aranerrekan, Bolu auzoan. Dimentsio handikoa: auto bat eta motorra sartzen dira. Prezio negoziagarria. Deitu 20:00ak arte mugikorrera eta ondoren finkora mesedez. 646 92 74 69 edo 943 71 52 46

**Eskoriatza.** 15 metro koadroko garaje itxia salgai Intxaurtxueta 23an. 679 16 24 96

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garaje bat alokatzen da Arrasaten. Larrea etxeen atzetik (Usaetxe enparantzan). 60 euro hilabetean. Sergio. 678 53 82 48 edo soliveira@hotmail.es

**Bergara.** Garaje itxia, 17 metro koadrokoa, ematen da errentan Burdinaten. 943 76 06 60

### 204. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Garaje baten bila nabil, Bergarako edozein zonatan. 618 90 23 66

## 3. LOKALAK

### 303. ERRENTAN EMAN

**ARETXABALETA**
Taberna/puba salgai edo errentan.
943 53 38 27

**ARRASATE**
Taberna ematen da errentan erdigunean.
Guztiz berritua.
671 42 54 32

**ARRASATE**
Taberna ematen da errentan alde zaharrean.
619 91 16 07

### 305. BESTELAKOAK

**Oñati.** Lokala daukat partekatzeko moduan. Guztiz hornituta dago. Erdigunean. Deitu 651 70 17 41 telefonora.

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Bergara.** Euskaraz hitz egiten duen emakume bat behar da bi ume zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Harremanetarako deitu 637 77 45 57 edo 678 64 15 18 telefono zenbakietara.

**ARRASATE**
Esperientziadun sukaldaria behar da tabernarako.
Goizez deitu.
605 70 49 57

### 402. ESKAERAK

**Aramaio.** Aramaioko neska gaztea, Haur Hezkuntzan diplomatua, goizetan haurrak zaindu eta eskolara eramateko prest. 645 73 22 72 .

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** **PREZIO BEREZIA** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu.**
Egubakoitzean + Astelehenean: 21 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
**- Profesionalen moduluak.**
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

**1. ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

**2. GARAJEAK**
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

**3. LOKALAK**
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

**4. LANA**
401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

**6. MOTORRA**
601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
603. Konpondu
604.Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

**8. DENETARIK**
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805.Trukatu
806.Galdu
807.Aurkitu
808. Bestelakoak

**9. HARREMANAK**
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

**10. RELAX**

**Arrasate.** Emakume arduratsua etxeko lanak edota pertsona nagusiak zaintzeko prest. 656 77 53 37

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu plantxa egin edo bestelako etxeko lanetarako, orduka. 699 54 17 27

**Arrasate.** Emakume euskalduna. Umeak zaindu eta eskolara eramango nituzke. Orduka plantxa egiteko ere prest nago. 626 29 98 43

**Arrasate.** Gizona gertu edozein lanetarako: garbiketak lokaletan, tabernetan zerbitzari edo bestela. Baita asteburuetan ere. Interesatuok deitu hurrengo zenbakira: 693 40 88 86

**Arrasate.** Neska gazte euskalduna etxeak garbitzeko edota umeak zaintzeko prest, esperientzia handikoa. Interesatuok deitu hurrengo zenbakira: 618 41 24 79

**Arrasate.** Neska gertu etxe zein atariak garbitzeko. Erreferentzia onak ditut. 610 82 02 17

**Arrasate.** Neska gertu gaixoak eta edadetuak zaintzeko. Esperientziakin daukat egoitzatan geriatria laguntzaile gisa. Gauak ospitalean egiteko prest. Etxe garbiketak ere bai. Interesatuok deitu hurrengo zenbakira: 693 40 88 86

**Arrasate.** Orduka edo etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. 682 31 97 37 edo 610 99 70 46

**Bergara.** Emakumea gertu ume zein nagusiak zaintzeko edo garbiketak egiteko. Interesatuok deitu hurrengo zenbakira: 610 34 97 88

**Bergara.** Eskarmentu handiko emakumea, geriatria ikasketaduna, orduka, etxean bertan bizi izaten zein asteburuetan lanerako gertu. Urte asko daramatzat hemen eta legezko paperak ditut. Interesatuok deitu hurrengo zenbakira: 617 12 61 44

**Bergara.** Goizetan garbiketa lanak egin edo nagusiak zaindukonituzke. Interesatuok deitu hurrengo telefono zenbakira: 680 77 06 46

**Bergara.** Neska euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko goizez zein arratsaldez. 605 51 96 89

**Bergara.** Neska gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Erreferentziaduna. 669 10 13 94

**Debagoiena.** 40 urteko emakumea gertu nagusi zein umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 620 43 85 40

**Debagoiena.** Arrasateko esperientzadun 28 urteko mutila gertu barrako zerbitzari, furgonetako gidari banatzailea, motozikleta gidari banatzailea, banatzailea orokorrean, pintore eta arotza laguntzailea, komertzio dependiente moduan lan egiteko. 677 61 95 92

**Debagoiena.** Asteburuetan lan egingo nuke: nagusiak zaintzen edo denetariko garbiketa lanetan. 699 09 46 26

**Debagoiena.** Asteburuetan zerbitzari lanak egingo nituzke jatetxe batean. Esperientzia eta ingelesa. 649 57 70 59

**Debagoiena.** Bertako neska gertu nagusiak zaindu eta etxeko garbiketak egiteko. Eskarmentu handikoa. 696 84 19 51

**Debagoiena.** Denetariko garbiketak egingo nituzke. Maite. Interesatuok deitu hurrengo zenbakira: 696 88 93 73

**Debagoiena.** Emakume esperientziduna eta arduratsua, etxeko lanak eta pertsona nagusiak zaintzeko prest. Interesatuok deitu hurrengo zenbakira: 680 12 73 16

**Debagoiena.** Emakumea eskeintzen da etxeko garbiketa orokorrak egiteko, esperientziaduna. Lanean hasteko prest. Interesatuok deitu hurrengo zenbakira: 672 88 01 01

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketak egin, nagusiak zaindu zein tabernatan lan egiteko. Egun osoz zein orduka. Interesatuok deitu hurrengo zenbakira: 605 41 88 20

**Debagoiena.** Mutila gertu nagusiak zaintzeko. 651 38 85 38

**Debagoiena.** Mutil arduratsua gertu nagusiak zaindu, atari zein elkarteak garbitu edo bestelako lanetarako. 685 42 72 80

**Debagoiena.** Igeltsero edo konpontze lanak egingo nituzke. Baita sukalde laguntzaile ere. Rolando. 639 41 68 38 edo 943 70 79 82

**Debagoiena.** Mutil gaztea lan desberdinak egiteko gertu. Mekaniko lanak, garbiketa, pertsona nagusiak zaindu. 645 54 43 25 .

**Debagoiena.** Emakumea gertu orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izanda lan egiteko: nagusiak zaindu, garbiketak eta abar. 638 59 04 71

**Debagoiena.** Nagusiak zaiduko nituzke. Legezko papereak eta gidatzeko baimena dauzkat. Eskarmentu eta erreferentzia onak. 603 14 59 17

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu nagusi zein umeak zaintzeko orduka edo asteburuetan ere bai. 606 54 89 90
